

# EGAN



1-3

1969

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País  
Redacción: Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

# SUMARIO

Págs.

<b>A Z K U E - EUSKALZALE:</b> Lino Akesolo .....	3
<b>P. F. IRIGARAY ("LARREKO")</b> (1869-1949) .....	11
<b>BEOBIDE:</b> Manuel Lekuona .....	14
<b>TXORI GALDUAK (traducción):</b> Aurre-Apralz .....	20
<b>URDIAIN'GO SAN PEDRO'REN KANTAITA:</b> J. M. Satrústegui .....	29
<b>OLERKIAK:</b> Pakol, Harzabal, Markue .....	32
<b>GIZON-ZUGAITZA (traducción):</b> J. Mirande .....	39
<b>"TATA" REN ERIZAIA (traducción):</b> Bozas-Urrutia .....	46
<b>DON KAMILO TA BATAIOA</b> (traducción): Bozas-Urrutia ...	53
<b>AITONA ETA BILLOBA:</b> S. Garmendia .....	56
<b>ODOLAK ODOLARI DEI:</b> Julene de Azpeitia .....	64
<b>JAN-EDANAK:</b> A. A. ....	77
<b>ADABAKIAK:</b> Juan San Martín .....	82
<b>OAR-LABURRAK:</b> Markue .....	87
<b>AINGIRA-KUMAK:</b> A. Zubikarai .....	89
<b>LIBURUAK:</b> Juan San Martín .....	104

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrue, A. Irigaray y I. Michelena

EGAN

Wichita

East - 1010 - 100

DEPOSITO LEGAL: S. S. 289 - 1958

Impreso en Gráficas Colón, S. L. P.° Colón, 4, S. S. - Junio, 1969.

# EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN  
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA  
Palacio de la Diputación de Guipuzcoa - SAN SEBASTIAN

VI Epoca

Vol. XXVIII

Enero-Junio, 1969

## Azkue, euskalzale<sup>(\*)</sup>

Jaun-andreak:

Azkue ezaguerazo edo goratu bear dabenak geien baten nora joten daben ba dakigu: berak itxi euskuzan euskerazko edo euskeraren aldeko lan andietara. Zuen erriko seme argi onen izenak, entzun orduko, ekarriko deutsoz edozeiñi gogora bere idazlanik osotuenak: euskal-iztegi nausia, *Euskaljerriaren Yakintza*, bere kantutegi ugaria edo bere *Morfología Vasca* izeneko liburu sendoa. Liburu oneikaz norañoiko maillak jo zituan erakustea, ori da geienentzat Azkue zanaren nortasuna neurtzeko biderik errezena ta egokiena. Bere lanik nabarmen orrei begituta, gizon jakituntzat eta euskalarien artean gorenko maillakotzat joko dabe bera; Euskaljerriak izan dauan gizonik mesedegarrietakotzat emongo deuskue.

Ezta, izan bere, Lekeitiar ospetsu onen alderdi ori aiztutekoa. Baña bide orretatik dabilzenak ba dirudi bere irudia goitik bera begituta erakusten deuskuela. Nik gaur emen, zuen erritar argitsu

(\*) Lekeition, 8-VIII-1964, Azkue zanaren omenaldian egindako itzaldia. Omenaldi artan izlari bi izan ziran, ez (*Zeruko Argia*-k esan zuen bezela) bat: E. Erkiaga, euskaltzaiña, ta emen dijoan itzaldiaren egillea.

ta maiteari egin nai deutzazuen omenaldi onetan, goitik berako begirada ori itxita, beste bide bat artu nai dot: beti gorako begiradatxoa egin gura neuskio. Ez naz nekatuko beste bein bere anditasuna neur-tzen. Azkue andiak euskal-sailean egin dauan lanak mendi garaia dirudi, nik olan ikusten dot; baña mendi itzal eskerga orrek, azpi azpitik oñarri sendo lez, eusten deutzala, indar maitagarri bat dauko: Euskalerruari ta euskerari gazterik artu eutsan maitasuna, euskalzale-tasuna. Oñarri bakarrik, ez. Bai, bere lanen bultzagarri bere. Ez dot esango, bultzagarri au barik, beste alderdiren batetik Azkue gizon andi izango ez genduanik, bearbada or nonbaiteko kanonigo edo go-ragoko mallaren bateko eleizgizon. Baña, zorionean, euskalzaletasu-nak geure errian lotu eban, euskeraren arloetan sartuazo eutson, Euskalerruari eskiñi eutsazan bere indar eta gaitasunak, gure onetan emon zituan emotekorik ederrenak. Ementxe egin da bere izena andi ta ospetsu. Arlo onetan, orraitio, etzan jakingura utsak eraginda ibilli; biotza izan eban beti aurrelari ta bultzatzaile, bere euskalbiotza bere abade-biotzaz bat eginda.

Euskalari baño euskalzale izan genduan lenago. *Euskalzale* jarri eutson izena bere gaztetan atera eban euskera utsezko lenengo aste-rokoari. Izen ori asmau ebanean, barruan eukanak urten eutson azalera.

Nire itzalditxo onen gaia ezta besterik izango. Lekeitiar ospetsu onen euskalzaletasuna argitu ta erakutsi nai neuke zelanbait emen zuon, bere erritarron aurrean, noz ta zelan sortu ta berotu zan bere biotzean su ori ta zelango jokabidea artuazo eutson bere biziari.

\* \* \*

Eta, lenengo ta bein, esan bearra dago zaletasun ori etzala Azkue umearen biotzean berez sortu.

Aita euskalzale ta euskal-idazle izan ebala dakianak uste izan lei, atan bere, etxetikoa ebala bere euskalzaletasuna, umetatik berez lez edo bere aitak sartua. Baña ez dirudi orrela izan zanik. Zergai-tik ez? Aita galdu ebanean, bederatzi urte zituan semeak. Ezin zei-kean onek urte samur orreitan aitaren bertsoen barri andirik jakin ez arengandik esateko bultzadarik artu euskeraren alde.

Ez; Azkuek berak esanda dakigu geroago, gaztezaroan, eskola nausietako urteetan aurkitu ebala argi ori, euskeraren alderako sugar ori. Artean, ez. Ezta arritzekoa bere. Eskolak, batez bere eskola nau-siak, euskaldunik geienak erdalzaletu egin ditu edo, beintzat, euske-rarako moldagaiztu, magitu ta zabartu. Markiñako praille ospetsu batek antxiñatxo esana da, abadageiak, eta bardin beste karreradu-nak, euren ikastaroan etxetik eroan eben euskera aitzuteko bideak

artzen dituela. Orixe jazoten jake geienai. Azkue etzan aldikada baten bide orreitatik urrin ibilli. Eta ortik jarraituko eban, bere gogoz eta zorionean atzera egin ezpaleu.

Bere ogei edo ogetabatgarren urtean zan. Bitoriako seminarioan, apaizgaitegi nausian dagoala, Kanpion zanaren gramatika andia eldu da bere eskuetara, eta amar urte lenago Kanpion orri berari jazoa jazo jako, argialdia egin da bere barruan. Eta euskaldun jayo zala-ta, euskaldun iraun gurako dau. Eta ez berak bakarrik. Euskalduntasuna biztu ta zabaldu gurako dau Bizkaian, Euskalerra osoan eta bere alegiñak asmo orretara zuzenduko ditu.

Orduantxe ikusi eban, argi ta bizi-bizirik, bera jayo ta gero, azkenengo urteetan Euskalerraren ganera jausi zan zoritxarra. Eta arrezkero biotza mindu ta erdibiturik bizi da. Azkuek berak esanda dakigu bere barruko miñ onein barri.

Bere Euskal-Izkindea, bere euskerazko lanen asikiña Bizkaiko diputaduen izenean Bizkaia osoari eskintsen deutso eta ona zer diñotzen biotz-biotzetiko berbakin: «Ni jayo nintzanean, Bizkaiak bere legeak eukazan; Gernikako zugazpean noizik noizera batzartuten ebazan bere aldunak (diputauak) edo semerik maiteenak. Lotsagarria izango litzake Bizkaitar jaioriko gizaldia Bizkaitar il ez al izatea. Gaur Bizkaiko jauregi zarrean eta zugatz maitearen inguruetan txori negarti batzuen txioak baiño ez dira entzuten... Gure mendietan, antxiñako eresi atsegintsuen orde, durundi erostariak eta erdaldun ta erdaldunduaren barre irrigarriak (bildots errukarren beekadak otsoen intziriakaz nastuta), entzuten dira.»

Arik lau urtera, milla zortzireun eta larogei ta bosgarren urtean, Bizkaiko foruzaleak eleizkizun andia dauke Gernikan, ango Andra Mari-eleizan. Azkue gaztea eroan dabe sermolari. Eta itzaldian bere barruko kezka ta miñak sutan urten deutse kanpora: «Geuk geure begiakaz dakusgun errialde au, diño, Bizkaiaren gorpua baiño ezta. Beronen zanetako odola ezta beronena. Bizkaian bizi direan asko ta askoren berbetea ezta Aitorrek bere zazpi alabai irakatsirikoa... Beronen urietan durundi egiten daben eresi edo kantak zztira gure belarreitarako egiñak, Bizkaiak, badakit, ez esan birritan, osorik daukaz lengo mendiak, geienak beintzat; agortu barik ibai-errekak; uriak, daukezan urteak aztuta, gazte-antzera azita, ugalduta, puzgotuta dagoz. Eta zer? Ez poztu, Bizkaitarrak: gure amari beste arima bat iratzi dautse. Bizkaia gaur emeretzi urte il zan...»

Il egin dala? Ez osorik. Eta auxe da Azkue gaztearen pozgarri bakarra. Euskera bizi dan artean, Euskalerra ezta gorpu uts izango. Azkuek argitaratu eban euskerazko lenengo liburua, irakurgaia, *Bein da betiko* da, emengoxe Lekeitioko ipuin bat gai ta mamizat artuta. Abbadie jaunari eskiña dago eta beronentzat esan zituan itxarope-

naren argitxoa biztuten eben berbok itzaurrean: «Ezta asko gure ama samurra il al izateko bere bizkar-azurra (Pirinetako menditeria) ta gorputza zulatutea. Euskaldun onak munduan dagozan artean, ezta berez erioke, eztau ez benetako areriok ez izen utsezko adiskidek il al izango.»

Il edo biziko une larri aretan Euskalerriaren etorkizuna Azkue jaunarentzat bere izkuntzan dago. Euskerak iraun ezkeru, Euskalerriak iraungo dau. Euskalduntasuna biztutea ta euskereari eustea, ori da bere buruaren jabe dan euskaldunaren egitekoa. Ez ete dago modurik ori lortuteko?

\* \* \*

Auzi oni erantzukeran, euskaldunak alde banatan jarriko dira. Ezezkoan dagozanen artean nagusi Azkue beraren urteetako bilbotar ospetsua dogu: Migel Unamuno jauna. Bein, bata ta bestea, Unamuno ta Azkue, Bilboko Institutoan euskal-irakasle izan naiak alkar-tu, edo obeto esateko, aurrez aur jarri zituen. Arik laster, Unamunok itxaropena galduta daukan baten bidea artuko dau. Bilbotar erdalzale onek esana da: «Euskerarenak egin dau, ilteko zorian dago. Eta bere eriotzea eragozteko alperrik izango da sariketak jarrea, alperrik eskolak zabaltzea. Igurtzi daigun bere gorpua iakintzazko olio z gorte daigun; ezto gu beste egitekorik. Batu daiguzan, bai, bere ondakin guztiak; seme on batek alan egin bear dau, betiko aztuta gelditzeko leizetan galtzen itxi baiño lenago. Euskaldunak geure odolari ta berbete zarrari deusogun maitasunaren agergarri, jaso deiogun olantxe euskereari eriozt-ondorako gomutagarri bat beintzat... Auxe da gure egiteko bakarra, besterik ez.»

¿Egiteko bakarra? Baña zer egin eban Unamunok egiteko orri erantzuteko? Zergaitik ukatu eutsan euskerari maitasun-erakutsi apur ori bere?

Bestelakoa da Azkuek artu eban jokabidea. Gure izkuntzaren etorkizuna eztau ain baltz ikusten. Euskaldun guztiak ez al dira orren endekatuak izango.

Alboetara begituta, ba dakus, bai, biotza ilteko ikuskizun negar-garririk. Ara berak dirauskuna: «Edozein erritan ikusten dira gizon da emakumak, a) euskeraz jakiñarren, ezelan egin gura eztabenak, b) euskerazko paperik irakurri nai eztabenak, z) euskerea gitxitzat daukenak, d) euskaldunen miiñean erdereba baiño besterik bizi ezpaltz, asko poztuko litzakezanak, e) euskalzaleak zorotzat edo goiarintzat daukezanak... Guztiok dira endekatuak... Izan leike erdal-kerien arrak jota dagozan orrek osakaitzak edo ezin osatuak izatea. Guk euron ardurea baiño andiagoo euki bear dogu eurotarik erne-



tan dagozan aldaka edo landara gazteena... Gaurko euskaldun endekatuen landarai, biarko euskaldunai begiratu deioegun.»

Biotzak dirautso Azkueri euskerak iraungo dauala. Ba zan oraindiño euskaldun zindorik, eta bere egunetako euskaldun endekatuen seme asko gurasoak baiño obeak izango dira. Eurotan dauko bere itxaropena. Itxaropen onek poztuta, jo ta su ekingo deutso lanari, euskalduntasuna zabaltzen, euskeraren ondar-mondar guztiak batzen, bere jatorrizko izkuntza au jaso ta edertzeko alegiñak egiten. Orretara joko dabe andik aurrera artuko dituan nekeak, berak aterako dituan irakurgari edo nobelak, bere teatro-lan musikadunak, albistari ta asterokoak.

Batez bere, abade barrietan sartu gurako dau euskalduntasun ori. Ain zuzen, jakingarria da Azkuek arlo onetan egin eban lana. Bere gaztetako egunetan seminarioan, Bitoriako abadegeitegi nausian, etzan euskerarik irakasten. Abadegeien ikastaldian ez egoan euskerarentzat lekurik. Bakotxak ikasi bear bere kabuz, edo bere erritarrakazko artu-emonean bakarrik. Azkuek berak olantxe ikasi bear izan eban. Alan da guzti bere, abade egin barritan, euskerazko sermoirik ganoraz egiteko erreztasun barik urten eban seminariotik. Urte batzuk geroago berberak autortuko deusku, erdi barrez erdi lotsa gorritz, bein jazo jakona. Entzun deiogun berari:

«Bizkaiko Eliza eder baten amarretako mezan egozan mutikotxu bi, aoa zabalik, erdaldun sermolari bati entzuten. Batak erderaz ez ekian berrogei berbatik gora; besteak asko ez baña, zelan edo alan aituteko beste ba ekian. Sermolariak sutsuen eta gogotsuen iarduala, batak itandu eutsan besteari: Txo, zer da *siñ embargo?* Beste mutiltxuak berentzako jakin arren, iñori esateko ez ekian.»

Mutikoxu oneina barregurea emotekoa da; baña Azkueri beste bein jazo jakonak ez eutsan barre egiteko gogo andirik itxi. Seminariotik urten barritan, erdera errezago egiten ebala-ta, erderazko berbaldia egin ebala diñozku berak, *siñ embargo*-erri orretan bertan. Euskerazko itzaldia gertatzeko ez ei eutsen astirik emon. «Goizean bere jesuita batek erderaz egin eban beste bat. Eta itxasgizon batek arratsaldekoa entzuckeran, "*erre egin bear genduke pulpitua*" *esan eban*. Etxako gaztetxu ari iñoiz au aztu», diño bere buruagaitik Azkuek.

Gomuta oneik emon eutsen aria *Euskalzale* asterokoan, Euskalerriko eleizgizonak euskera alik ondoen ikasteko dauken eginbearra azaltzeko. Eta lenen-lenengo, egi negargarritzko au autortzen dau emen: eleizgizon askok ez deukela eskolarik naiko pulpitueta euskeraz ganoraz egiteko; bere egunetan, don Kalixto asko zirala Euskalerrian eleizgizonen artean.

Don Kalixto ori da arako Mogelek bere *Peru Abarka*-liburuan

ateraten duan abade gaztea, sermoia ezin egiñik ulei tiraka, ostikoka, amurru baten. Olantxe aurkitu eban aita Pedro Prailleak. Praille onek lagundu eutsan bere estualditik urteten, berak lumeari eldu ta ordu baten buruan sermoia eginda isten eutsola. Abade gazte arek onela emoten eutson asierea idazten ziarduan sermoiari: «Empeñu andia, por cierto, neure auditorio noblia, neure predicacñoaren principioan berba egin bearra, zeruetako giltzak confiau eutsazan santuandi baten ganean.» Pedro, apostoluen buruaren sermoia zan.

Zenbat orrelango, diño Moglek, Bizkaiko erri askotan. Ezin dabe ezer irakatsi; bereala lotuten dira; ikara gogor batek artzen ditu; izerdi larriak urteten deutse, ixillik gelditzeko bildurrez. Eta Azkuek gañean diñoana: «Bizkaian ez eze, edozein aldetan dagoz eun Don Kalixto. Guztiak euren erru barik.» Zergaitik? Gaztetan euskerarik gogoz ta sakon ikasi eztabelako. Eta Azkuek onela jarraitzen dau: «Sortu beitez Bitoriako abade-ikastetxean euskerazko ikastaldi bat edo bi, eta Elizeari jagokazan berbaldiak entzunaz ganera, euskereak asko irabaziko dau, elizgizonak direalako euskerea bizkortuteko geien egin dabenak eta geien egin leikenak.» Milla zortzireun eta larogeta amazzpian esana da au. Azkuen eretxiz, nai ta nai ezkoa zan Bitoriako abade-ikastetxe orretan abadegeiai euskerea irakatea. Zergaitik?

Entzun barriro bere berbak. Zergaitik? 1) «Euskerea gaur bizi dan berbetarik zaarrena izanik, antxiñako gauza zarrak legez... maiterik eta alik ondoen gordetako. 2) Euskereari deutson zorra Euskalerriko Elizetak zelanbait ordaindu daion. Berari zor deusagu oraindiño (oso-osorik ezarren) oitura onak, mendu maitagarriak eta elizkoitasuna gure artean eukitea. 3) Euskerea, griegoa ta ebreoa ta beste gauza asko ta asko baiño Elizarako bearrago izanik, Bitorian griegoa ta ebreo erakutsi arren, euskerea irakatsi ezaz lotsa garealako, arpegia gorrituten jakulako, euskaldunentzako ta euskaldunpeko ikastetxea eztirudialako. 4) Elizgizonak Elizeari jagokan eran berba edo itz egin bear dabelako, eta gazterik ikasten asi ezik, gatx egiten jakulako ezer gogoz ikastea.»

Luze ta zabal diardu Azkuek azkenengo aitatu duan errazoi ori argiago jarten. «Sancta sancte», diño; gauza santu edo doneak donetasunez, santutasunez erabilli bear ei dira. Erregeak bere mandaturik iragarteko arazoa ez ei deutso edozein ez jakiñi, berba egiten ondo ez dakian iñori emoten. Zeruko Erregearen Barri Onak ezin leiz jasotasunez, jagoken moduan zabaldu berbaz ondotxo ez dakian batek. «Ea ikusten dan, Azkuen berbak dira, ea ikusten dan Erdalerrian Elizako irakastegira igoten *adrento*, ta *antier*, ta *melecina* ta *zurijano* ta *dir* (ir esateko) esaten dabenik. Ea Ikusten dan Erdalerrietako elizetan ardantegietako erdera bastoa? Euskerazko berbal-

diak egin bear direanean, orduan bai, lautatik bi gitxienez dira Don Kalixto.»

Eta ez esan Azkueri askok eztabela aituko euskera landu ta garbiago ori. Ez, erantzungo dau berak. Errikoak guk baiño euskera geiago dakie. Eta olan ezpalitz bere, berba bat bakarturik edo banakaturik dagoanean, ondo aitu edo ulertu ezarren, beste, berba batzuen ondoan adituten da. Azkue bera bere «euskerazko berbaldi garbi garbiak eginda dago Gernikan, Miraballesen, Arrigorriagan, Plentzian, Begoñan, Sondikan eta beste erdalpeko erri askotan; eta Gernika, eta Miraballes eta beste enparauetakoak, Mogel ta Astarloa asko euren artean euki ezarren, ederto aditu ebezan berbaldiak.»

Ez esan Azkueri «euskeraz erderaz baixen ondo ezin leikezala gauzak azaldu». Euskereak, erantzungo dau, erderak beste esakera ta geiago daukaz. «Euskereak daukana da: irakurle gitxi ta sasi-jakitun asko. Euskereak ez daukala erderazko au ori ta bestea? A kaiku, kaiku! Euskereak oparo ta parra-parra zabaldu nai dabezan esakera ugari, sakon, eder, mendi-usaiñeko euskaldun askoren buruan balegoz, erderazko au ori ta bestea ta zerbait geitxoago bere esan al izango gendukez geure euskera zarrean.»

Bertatik izan ezpazan bere, erantzun pozgarria emon eutsen, Eleizeak Azkue jaunaren deiadar eta ekiñai, Seminarioko ateak alango-ren baten euskereari zabalduz eta abadegeiai euskeraren jaube egiteko aukerea emonaz. Bere euskaldun-biotzak eta abade-biotzak non-bait sekulako poza izan eban ortik. Bere gogoia egi biurtu zan. Bere biotzaren itxaropenak ez eutsen utsik emon.

Illuntxoago ikusten eban gure errietako eskolen egoerea. «Euskeraz ezta eskola orretan, baten bere, ezer ikasten: guztia erderazkoa, guztia geure ekandu ta lege ta berbetea iltekoa. Euskalerrian *eskola* geiegi ta ikastetxe gitxiegi dagoz. Eta gauza onik egiteko, euskaldunak eskola orrek ikastetxe biurtuteko alegin guztiak ipiñi bear leukez. «Ezin dau ikusi, guraso zarrai suin-erren lotsa galdukoak legez, erbesteko berbetea gureari ikastetxeetako ateak isten; txakurren aurretik basakatua ibilten dan legez, euskerea basorik baso igeska ibilten. Irudi onek Azkue'nak dira.

Emen bere, gaur bizi balitz, uste dot poztasun apurtxo bat artuko leukela bere euskaldun-biotzak, biar bere jaioterri maite onetan egingo dana ikusita. Lekeition biar euskera irakasteko eskola sortzen dozue, lekeitiar zintzoak. Azkue zanari omenaldirik pozgarriena egiteko ezin izan dozue asmau gauza egokiagorik. Biar, gorputzez ezpada, gogoz zuekaz izango dozue zuen seme argi au Lekeition, pozikaratan ikastetxe orrekin bere gaztetako asmo batzuk egi biurtzen dirala ikusten.

Lekeitiar ta euskalzale zintzoak: ez dot geiago luzatu nai neure

itzaldia: Gai onek ari geiago emon leike, egia esan, ari geiago eta obeto ebagia bere bai. Esanak asko bediz Azkue'n barrua agirian ipinteko, euskeraren alde erabili zituan kezka ta burrukak erakusteko.

Ez deusagu begitu jakitunari, gizonari baiño; ez euskalariari, euskalzaleari baiño. Eta bere buruari baiño geyago bere biotzari. Lan andia egin eban jakitun lez, euskalari lez. Baña bere lanetan biotza izan eban aurrelari. Berberak autortu euskun auxe gaztetako liburu baten: «Autor dot nire liburu onek akats bat ba daukala, neure neurez dodan akatsa: bururik baiño biotzik geiago eukitea. Irakasteko arazo neketsua neure ganean artu ezpaneu, gure izkuntza buruan sartzen baiño maitatzen gogozago ekingo neuskio. Zergaitik? Euskerari geure maitasuna eskiñiaz, euskaldunok geure ama ori zelangoa dauan ikasten baiño.» (Bere «*Método práctico*» deritxon liburutik euskeratuta.)

Biotza eban aurrelari, baña ez aurrelari itsu. Biotza aurrelari, baña buruari ta adimenari indarra ta kemena emoten eutsela euskeraren barrenengo zokoetaraño sartu ta bere aberastasunak arakatu ta argitara aterateko. Biotzak egin dau jakitun; euskalzaletasunak, euskalari. Zorionean, gazterik biztu zan su ori bere biotzean. Gazterik asi zan gero ainbesteko izena ta ospea emongo eutsen lan ederretarako gaiak billatzen. Gure erritartasuna galdu genduala-ta, ez da gelditu negar-zotinka utsean, alperreko illetak joten. Biotza aurrelari, maiterik dabil orra jo ta ona jo, auzorik auzo, baserririk baserri, edo bein geixo-etxeetan sartuta, bein ardantegietan edo txakolintegietan, aiton ta amonaxoen artean autu gozatsuan, non zer ikasiko. Erria dau eskola ta maixu. Erriaren ariman murgildurik lan egin dau beti. Andik atera ditu amaika esakera jator, ainbeste euskal-itz iñoz jaso bako, ainbeste kanta ta ipuin, lengo gizaldien lorratza ta usaiñ ona dariela.

Bere jaioterrian gagoz, itxasoa beti munka dauan uri polit zoragari onetan; eta arrantzaleen esaera batekin amaitu nai dot. Azkuek bein baiño sarriagotan eralgi ta azaldu euskun Lekeitio'ko arrantzaleen oitura auxe: itxasoraterik zanean, deitzaille bat joaten zan atez ate arrantzale baktxari deika: Gora, Jaungoikoaren izenean!

Olangoxe deia entzun eban Azkue bere gaztetan. Baña Azkuek aratu bear eban itxasoa Euskalerrria zan, Euskalerrriaren arimea, euskerea. Eta itxaso onetan arraintsuan sartu ta murgildurik, itzalezko arrainketa eginda biurtu zan leorrera: bere euskal-kantutegia, bere *Euskalerrriaren Yakintza*, bere iztegia andia, bere biziko guztiko lana.

Ez Lekeitiok ez Euskalerrriak ez dau aurkitu arrantzale oberik gaur arte.

Lino AKESOLO.

# P F. IRIGARAY, "LARREKO",

idazlari zanaren urteurrenean (1869-1949)

Aurten betetzen dira 100 urte nafar idazlari ospetsua izan zena-  
ren jaiotzatik. 1869 urtean AURITZEN sortu zan, gero 1949 garre-  
nean Iruñian hiltzeko. Oraingo euskalzale gazteek ezdute behar bada  
haren irakurgaien eta idazkien berri handirik izango: bainan orain  
40 urteko euskal irakurleak dudarik gabe oroituko dira LARRE-  
KO-ren irakurgai bixi eta sarkorretaz. Bere nafar euskera garbi eta  
herrikoi hartan idatziak, atertu gabe, urte askotan, euskal aldizkari  
eta egunkari geienetan.

*Eskualdunan, Gure Herrian, Argian, La VOZ de Navarran, He-  
rrian, eta bestetan oraino, asteoro agertzen zan bere irakurgai erne  
haietako bat. PRINCIPE de VIANA-koek argitara eman PROSIS-  
TAS NAVARROS en lengua vasca dalako liburuan ematen dira LA-  
RREKO-ren artikulo batzuk eta hauek baino luzeago dan kondaira  
gertatua, EUSKALDUN BIOZTUNA MEXICON izenburuko bat,  
bidasotar gizon aidor baten gertakari ikaragarriak.*

EGAN aldizkariak itzal handiko euskal idazlariaren gorazarretan  
nai ditu, LARREKOK *Feminismoaz* orain 40 urte idatzi zituen argita-  
ratu gabeko lerro horiek hemen eman.

\* \* \*

...Gizonak bere gogoan argi ikusten duen hura, berdin erraz eta  
argi eman dezake, euskalduna bada euskaraz, erdalduna bada erda-

raz. Baño, ilun edo laño artetik baizik ikusten ez duena, hura beti neketan edo ilun, berdin euskaraz nola erdaraz.

Arazo untarik ere, emakumea gizondu naiezko ibiltze hortan bada neurri bat; andik arata bitxi daitekena eta dela, eta andik unata eskas dena.

Alde guzietarik emakumea gizondu naiezko urratsetan barna ibiltzea, bitxikeria zait. Baiño, bere neurrian, eder zait. Bainere ezda izan, oraiko aldi untan aña solasbide, emakumea gizona bezenbat agertu naiezko arazo untarik.

Legearen arabera, eskubidez, zuzenez, gizona eta emakumea berdin ba dire, izatez gizona, gizon, eta emakumea amagai eta ama. Gizonak, arra den aldetik laster du lana bukatzen. Emakumeak aldiz, emea den aldetik, arrak beretuez geroz, miñak eta lanak ditu beregain amatzeko bideetan eta gero.

Horgatik nik uste, gizona emea beretzeko beti erne dagola, aldian aldiko lana laster egina baidu; aldiz emakumea, otz edo ezkibel geinetan arra baitarako, baño ez bertze gisaz aren alderako. Naiz emakume gisaz, gizonaren aldera beti eder eta gutziatsu agertu naia dagon.

Hortaz landara, emakumea gogoaren almenez gizona aña gai dela edozertarako, ezdut ukatuko; baiño beti danik eta zerbaitengatik daukagu mari-mutikotzat, gizon lanetan ibiltzen eta sartzen den emakumea. Oroituriek erakasten digute, omen andiko emakumeak izandu direla saindu andiak, jakintsunak, bioztunak.

Hortarik ageri da gogo-almen berberak ditugula gizonak eta emakumeak; emakumeek gizonak aña lan egin dezaketela jakintza arazo eta esku lanetan. Egia ori ukatuko duenik ezdut uste izanen den. Damurik Euskalerrian dakusagu emakumeek gizonak aña esku-lan egingen, bidezkoa ezdela guziek ikusten dugularik.

Oraiko aldi untan arazo untarik galduak gabilta. Laneko eta etxeoentzat bear dena irabazteko, gizonaren lana da; eta amatzeko, aurrak azteko eta etxea bear bezala zaintzeko emakumea, edo obeki errana, emaztekoa. Berenez, izatez, emakumea ezta gizona bezala; argi ikusten dugu gazte-gaztetik, neskatxa eta emakumea bere izateari esker berexen dela mutiko eta mutiletarik.

Soñez nola gogoz berexen dire, bakotxa bere elbururako bideetan barna ibiltzeko. Neskatxetan argi dager, soin guzia borobiltzen dela, amatzeko gaitzen. Hori baidu emakumeak, berenez edo izatez bere biziko lan ederra bezain bearra eta garrantziduna. Amatzeari buruz doa emakumearen soñeko azkera; hura bai du elburu leena, bakarra ezpada, amagaitzea. Hori ala dela soinak azaletik bezenbat, emakumearen erraiek erakusten digute izatez eta elburuz, hortaratuak direla.

Horgatik, emakumeak berenez edo izatez duen edo daukan egin behar handiena, beharrena eta ederrena amatzearekin batio eldu zaiona. Damurik, Euskalerrian, emakumeek askotan, bere eta gizonen lanak egiten oi dituzte. Bein baño geiagotan (gaitz aldera arturik) esan dut hori, euskaleriko gaitz handia dela, naiz ez gizondu naiezkoa, baizik eta beharrezkoa edo ezinbertzezkoa delarik.

Egiatzko *feminismo*, hortan dago; ama on bat izateko, etxekoandere bear bezalako bat egiteko bideetan azi eta bizi. Neskatxa guziek artu behar duten bidea hordik eldu da; hori da guzien ibilbidea. Jakina, alditan, bide hortarik ibiltzeagatik ibili daitekela bertze bide batzuetan barna, irakasle, eri artazale, salzale, sal-erospenetako kontuartzale eta halakoetan.

Eta baldin Jainkoak bertze aldetik jotzen badio, moja izateko edo jakintsun biurtzeko. Nai ditugun bira-jira guziak eginik, hortan aitor eman beharko dugu, neskatxa guzien karrera, hori dela eta, zer ederragorik?, ama izatea, aurrak azi eta gizona bihotzetik estekatu baño? Gizondu naiezko hortan, zer geiago egin dezake emazte batek bere senarrari bihotzarekin nagusitzea baño?

Gizona, egiteko askotan nagusi bada, ez ote da nagusiago emaztea?, baldin hunek maiteki gizon hortaz jabetzen bada? Ez da hemen arat-unatik; emakumearen izateari dagokio amatzea eta emaztearen ondorekoen egin beharretan jarduntzea. Amatzeko egin behar horietan, gizonak eztu asti edo lan handirik galtzeko; bere eginbehar duena laster egiten du.

Baño gizona baitan dago emaztea eta aurrak begiratzeko egin beharra, eta behar dituzten guzietaz ornitzeko...

Emakumearen gizontasuna edo nagusitasuna erdiesteko bide bakarra da, emakumeago izatea; ez gizona bezenbat izan naiezkoa, baizik eta gizonaren jabe izatea, ederrez, bihotzez, maitasunez eta behar bezalako emazte izanez. Oraiko aldi huntan neskatxak eta emakumeak dabilzkiten bide guziak ezditut onesten. Eskubide berberak dituztela diote; hala uste dut nik ere, baño hordik ez da eldu, gizona eta emakumea berdinak direla.

Soñez eta erraiez, amatzeari buruz egina da: bihotzez aurrak maitatzeko eta azteko. Gizona berriz, buruz eta indarrez nagusitzeko; hortan dago baxotxaren lekua eta elburua; elkar gaitzesteko galbiderik, arazo huntarik ez ginuke behar. Arrigarrik mirariz, bortz ogi eta bi arrainekin oste handi bat asetu zuelarik, etziren kondatu gizonak baizik; emakumeak eta aurrak zenbatu gabe.

Aldiz, amaberjina bere amatzat berexi zuelarik, ez da izan sortu direnetan, hura baño handiagorik, ederragorik eta sainduagorik...

# BEOBIDE (\*)

Jaun, andreok:

Itz bi zor dizkitzuet, gaur Zumaya'n egiten dezuten omen-aldi onen betegarri. Omen-aldi, merezi-merezi bat, Zumaya'ko seme argi dan don Julio Beobide'ri.

Ni ez naiz zumayarra; bañan bai Beobide Eskultorearen aspaldiko adiskide zaarra, zaar bezain adiskide miña, biotz-biotzekoa.

Ia irurogei urte dira, nik ezagutu nuala: Gazteitz'en, Bitoria'n ezagutu ere. Gu Seminarioan bizi, eta bera an inguruko Santa Maria kalean, orain Gotzai dan don Mateo Mujika'ren etxe berean: don Mateo goian, eta gure Julio bean, apupilo Seminarioko sukalde-zaiaren, kozineroaren etxean. Ez genduan askotan alkar ikusiko; Seminario-ra joatekoan, eta andik etxera etortzekoan.

Beobide, Gazteitz'ko Katedral berriko Eskultoreak Gazteitz'en ipiñi zuten Eskultura-Ikastolan zebillen... Mutil gaztea, mutil apaña, illegorri-antza, abarketa txuriak oñetan, pelotaria zirudian... Alakoxea daukat nik gogoan, orduko gure Julio'ren iduri bipil, urduria... Ez bait-zait bein ere geroztik aaztu... Seminariora joatekoan eta etortzekoan, guk apaiz-gaiok bazkaltzen genduan otordu-gelan, an ageri izaten ziran, Beobide'k Eskultura-Ikastolarako saio bezela egiten zituan buztinzurizko busto-eta-abar... Geroztik egin al-du makiña bat alarik eta ederragorik!...

Orixe da, nik gaur gogo-gogoan daukadan gogoangarria, Beobide'ren pertsonari buruz.

Eta ez noa, bere pertsonaz ezer geiago esatera. Nik bezain ondo ezagutzen dezute zuek. Izan ere, zumayarrok ba'dezute bentaja ori:

---

(\*) Zumaya'n egindako itzaldia.



Beobide beti zuen artean, beste edozein bat bezelaxe, ikusi dezute. Orren tallako zenbait artista, erritik kanpora joan oi-da; eta errian, «ba'dalakoa» besterik ez da jakiten: ba'dalakoa, bañan errian oso gutxitan ikusia. Beobide, ez. Beobide beti zumayar, zumayar jator izan dezute... Zuek, ezik, sospetxarik asko egin gabe, nolako artista zendukaten, ixillik asko, Kresala-lantegian, eten-gabe lanean ari zan zumayar apal-apal ura.

Perptonaz guztiok ezagutzen zenduten; bear bada, artistaz oso gutxi, merezi baño askoz gutxiagok. Orregatik nik gaur artista-alderdi oni elduko diot, itz bi zuei, zumayar jator oiei, omenaldi ontan esateko. Eta artistaz ere, ez pentsa, esan liteken dana esango dedanik. Ordu asko bearko lirake ortarako. Nik, neronek gai ontaz dauzkadan gogoan-garri batzuek besterik ez dizkitzuet aipatuko. Gutxi, bañan neretzat oso gogoangarri ta jakingarri diranak.

\* \* \*

—Zer-nolako artista da zuen Beobide au?

(Egia esan, une ontan naiago nuke, bera emen ez balego. Bai bait-dakit, nolako lotsa ta sufrimena ematen dioten, beraren goga-garri esan bear izaten diran goratzarreak. Orregatikan, berriz ere, ez det esango, esan litekean gutzirik, ezta laurdenik ere; berari lotsarik eman gabe, esan nezakeana bakarrik baizik. Gutxi nola-nai ere.)

Artista, bere arte-obraen «aita» dala esan oi-da. Beobide ez da bere obraen «aita» izan; Beobide, bere obraen «ama» izan da beti. Benetako artistak oi-diran bezela; areago oraindik. Benetako artistaren lanak, beren «aita», espirituua izan oi-dute. Eta Beobide'ren espiritu ori, benetako espiritu santua izan da beti. Espiritu santuaren arnasa sentitu, eta bere lanak Beobide'k bere biotzean oretu, gozatu, eta berotu izan ditu beti: amak bere aurra bezela: bere biotzean, bere barrunbean, bere erraietan bizia emanaz. Benetako artista, benetan bere arte-obraen «ama» da.

Bañan amak era askotakoak oi-dira.

Lenengo: ba'dago baztarretan nolabaiteko emakumerik, ama iza-teagatik bere maitasuna edozein gizoni eskeintzen dionik. Beobide'ren amatasuna ez da izan, iñoiz ere, olakoa. Berak ez dio, bein bakarrik ere bere arterik eskeiñi, jaungoikozko espirituari baizik, espiritu garbiari, espiritu zerutarrari: Beobide'ren artea, ezer-bada-ta, Santuen Idurientzako izan da, Santuen eta Jaunaren idurientzako, edo-ta Jaungoikoaren irudirik ederrena dan giza-aurpegiarentzako; oietxek bait-dera gure Eskultore zumayarrak beti jorratu izan dituan gaiak: Jauna

bera, Jaunaren Santuak eta giza-aurpegia, giza-bustoa, Jaungoikoaren irudirik ederrena...

Ama izan diteke, bigarren, bere aurra inudeari uzten diona; berak sortu, bañan inudeari azitzeko ematen diona. Beobide ez da izan bere lanentzat olako ama; berak ez dio eman bere lanik inungo inuderi aziketarako.

Beste era batekoa izan da Beobide'ren amatasuna bere lanentzat, bere sorkarientzat, bere obraentzat. Berak pentsatu, berak sortu, berak azi, berak musukatu, berak laztandu, berak eman azkeneko ikutuetañoako guztia. Ori izan da gure Beobide'ren bere lanentzako amatasunaren izaera.

Bear bada, lan geiegi egin bear izan du, bere obrari olako tratua emateko: denbora-galtze aundia, indar-gastu aundia...

Neroni ikusirikan nago gure artista negu gogorrean, lau aldetara zabalik zegon aldamiu batean, arrizko bloke ikaragarri batean Dom Bosko'ren imagiña ateratzen, burnizko mallua eskuan, burnizko zintzelaz arri gogorrean jo-ta-jo, lenengo golpetik asi-ta azkenekoraño, edozein argiñek egin zezakean desbaste-lana berak bere eskuz egiten, otzaren otzez sudurra gorri, eta bujanda txiki bat lepoan biratua... Karaitz gogor artan mallu-golpe bakoitzak, Beobide'ren esku-muturretako nerbiotan zenbateko ostikada egiten ote-zuan, Jaungoikoak bestek inork ez daki... Jaungoikoak eta zerutikan begira zeukan San Juan Bosko'k berak... berak ordainduko bait-dizu, Beobide, egunen batean, Usurbil'go Ingemar'en lantegi idekian egin zenion eskulturarazko grupo bikain ura...

Olakoxea izan da, bada, beti Beobide'ren arte-era: berak egin bozetuak, berak egin gaiaren desbastea... egurra bada, arria bada, dana berak. Ori da egia. Eta ori da, ain xuxen, Beobide'ren lanak ain osoki bukatuak aterazi dituana.

\* \* \*

Bañan beste gauza bat orain. Berak esan nai baliguke, jakingo genduke, Beobide'ren artearen beste izkutuko aurpegi ta detalle bat: zenbat maite izan dituan beti, bere eskuetatik ateratako lanak, lan bukatuak; nolako penaz ikusi izan dituan, bere lantegitik ateratzen, beren enkargatzalleen eskuetara joateko... Berak esan nai baliguke...

Bañan errespeta ditzagun olako sekretuak. Nik dakidana auxe da: nolako penaz utzi zigun, bere Kresala'tik eramaten, Añorga'ko Elizak duan Ama Birjiñaren busto bikain bat (emen bait-daukazute, ain xuxen, ikusgarri ekarria).

Ama Birjiñaren irudirik, nik ezagutzen ditudanetan ederrenetakoa alde batetik, eta artistaren familiko oroigarritz kutsatua bestetik... nolako penaz ikusi zuan bere tallerretik ateratzen alako egun batean...

Amak besoetan daukan aurra, bere seme baten txikitako iduria da; eta Ama Birjiñaren irudia, berriz, histori polit batez kutsatua... Esango al-degu?... Ara, nik berari entzuna, eta aztutzen etzaidana:

Beobide Iruña'tikan zetorren; Plazaola'ko trenean etorri ere. Plazaola'ko trenea geienean uts-samar ibiltzen zan; eta arratsalde artan ere ala gertatu zan. Eta Julio ta neskatxa gazte bat bakarrik suertatu ziran kotxean —bañan etzaitzela ikaratu!—. Neskatxa Iruñe'ko *Coral de Pamplona*'ko kantora zan —soprano? kontralto?—; ala aitortu zion gure Julio'ri; eta Erasun'go festetara zijoan —nunbait erasundarra izan gurasoz—. Neskatxa egokia; aurpegi ederra benetan; eta Julio'ren tentazioa —bañan etzaitzela ikaratu!—: bere Amabirjiñak egiteko «zer modelu, eredu bikaña uraxel!». Pozik artuko zuan arentxen apunte bat, bere lanetan gogoan eukitzeko... «Esango ote-diot?...». Aizkenik, «tira, ba!». Utziko al-zenidake zure apuntetxo bat egiten neretzako?... Etzaitzela ikaratu. Zure aurpegiaren apuntetxo bat egin nai nuke... Ama Birjiñaren imajiña bat egiteko... Ba'dakizu: eskultorea naiz, eta Ama Birjiñak egin bear izaten ditut... orixe da guztia...

Ez dakigu, neskatxari nolako zarradakoa egingo zion barruan Beobide'ren eskabideak... Bañan gizonaren aurpegi formal-formalak bigundu zuan nunbait, eta berealako batean an egin zuan Beobide'k, geroztik egin dituan Ama Birjiñentzako izan duan eredurik ederrena: ederra alde batetik, eta garbia bestetik; aren irudira egiñak bait-ditu geroztik zuen Eskultoreak, dozenerdi bat pasatu Ama Birjiñaren irudi bikain... gogo-gogoz «Salbe» bat esateko moduko imajin bikain-garbiak...

Ez dakigu, Erasun'go neskatxak jakingo duan, nolako imajin ederrarako eman zuan arratsalde artan bere eredia... Ori zala urte asko samar ere ba'dira-ta, onezkero bera ere zaartuxea egongo da gaxoa... zeruan ez badago, irudi bikain batzuek egiteko bere eredia eman zion Zeruko Amaren ondoan...

\* \* \*

Bañan, jarrai dezagun aurrera, eta ikusi orain, nolako kategoria duten gure artistaren lanak.

Eskultura batek, beti ere, bi gauza ditu bear-bearrekoak: bata antza, eta bestea, bizitasuna. Eskultura bat izan diteke, ereduaren

antz-antzekos, bañan antz illa. Antzaren bizitasunak osatzen du lan baten edertasuna ta kategoria.

Bizitasunak, berriz, bi gauza bear ditu: begiratu bizia, eta gorputzaren keñu bizia. Begitura izan bait-liteke era askotakoa: tristia edo alaia, asarrea edo goxoa, bizia edo illa, distraitua edo zorrotza... Ala berean, baita gorputzaren igitura, izan liteke keñuduna, edo keñugabea, motela —askotan oi-dan bezela.

Bi gauza oiek —ezer ba-da-ta— begitura ta gorputzaren keñua, alegia —dira Beobide'ren lanetan nabarmen-nabarmen ageri diranak.

Ikustagun, adibidez, Añorga'ko Ama Birjiña, Ama Birjiñaren bustua.

Beobide'ren imajin bikain au ikustean, askotan etortzen zaizkit neri gogora, Florentzia'ko *quatrochentoko* Maisu imajin-egilleak: Donatello, Luka Della Robia, Mino da Fiesole... Beobide'k, izan ere, oso ondo ikasi ditu Maisu aundi oien pausuak eskultura-artean.

—Zertan? —esango didazute.

—Ikustagun.

Ikustagun lenengo Amaren begitura. Beobide'ren grupo-busto onek, bati baño geiagori, Rafael'en *Madona della Sedia* («Nuestra Señora de la Silla») ekarriko dio gogora; eta antza ere ba'dute, biok, Ama bere Aurrarekin egote ortan. Bañan begira dezagun dana dan bezela, eta ikusiko dezute, nolako aldeak eta diferentziak dauden bion artean.

Rafael'en *Madonak*, lenengo-lenengo, Aurra estu-estu dauka beso-artean; Beobide'renak ez; eltzen dio —ta nerbioso eldu ere— bañan estutu gabe. Bigarren, Rafael'en Amak begitura «distraitua» du, bere baitan bildua, alegia, edo-ta barrura begira, pentsakor-pentsakor; Beobide'renak, ez: zorrotz-antzean, eskui-antzeara begira dago, zorrotz begira gañera, alde artatik norbait Aurrari zerbait egitera baletorkio bezela... Besoz eta begiratzuz, Amak Aurra anparatzera egiten du. Ez didazute esango, gauza ondo pentsatua ez dagonik, eta pentsatu bezain ondo antz-eman, logratua, iritxia...

Olakoxeak dira, gure Beobide'ren eskultura-lanak. Olakoxe kategorikoak...

\* \* \*

Ez nijoakizute, gai oni buruz ezer geiago esatera.

Esan nentzakean, Añorga'ko prozesiotako Jesus Obiratuari buruz zerbait geiago, gorputz il arren «bizitasuna» aipatuaz, alegia. Ezin bait-liteke izan, gurutzean ildako gorputz bat, uraxe baño sakonago, indartsuago egiñik. Eriotz gogorra, eriotz tragikoa. Orixe erakusten

bait-dute, Jesus illaren begi-zulo ikaragarri aiek... Bañan uztagun gai au, beste azkeneko zerbait ukitzeko: Beobide'ren Gurutze Santuak.

\* \* \*

Jesus'en eriotza, bi lapurren erdian izan zan.

Beobide'ren bizitza, esan diteke, Jesus'en bi Gurutze Santuaren erdian arkitzen dala: Zuloaga'ren Gurutze Santua, eta —gaur arte beintzat— Errenteria'ko AA. Kaputxinuen Gurutze Santua...

Bañan bi öien bitartean, beste bat dagola: «Valle de los Caídos»'ko Gurutze Santua. Azken au batez ere eta Zuloaga'rena. Bi lan, bi obra «zein-baño zein» biok. Bañan, igituraz ta begituraz, biok ain elkarrengandikan bestelakoak! Biok ederrak: «zein-baño-zein!» bañan biok oso bestelako expresiodunak...

Bata zintzillik —nola zintzillik ezik!—: bi besoak goitikan beera, zuzen-zuzen, gorputz unatuaren kargaz etenik; aoa benetan egarri... Besteaa, besoak, zabal; gorputza astintze estu batean; azkenetako indarketan, bere Zeruko Aitarekin izketan... Bi lan, «zein-baño-zein!», gure Beobide'ri mundu zabalean izen aundia ematen diotenak, eta emango ere diotenak...

\* \* \*

«Ematen diotenak» esan det; bañan ori ez bait-da biziro-biziro egia. Urte askotan euki dute *Valle de los Caídos*'en, Gurutze ura zeinena zan ezjakiniik. «Santo Cristo, policromado por Zuloaga» besterik ez bait-zieten esaten ango *cicerone* diralakoak, ango bisitariak: «Santo Cristo, policromado por Zuloaga», arik-eta alako batean Beobide'ren familiko batek esan zien arte: —Policromado por Zuloaga, pero, ¿y el escultor? —Aquí no lo sabemos. —Pues yo se lo diré a usted: el escultor autor de la obra policromada por Zuloaga, es familiar mío: JULIO BEOBIDE, de Zumaya, gran amigo de Zuloaga... —¡Ah!, pues me faltará tiempo para decirlo en adelante.»

Eta geroztik esaten omen-dute txintxo-txintxo: «Escultura de Beobide, policromada por Zuloaga».

\* \* \*

Eta ez noa, bat-ere geiago luzatzera.

Auxe bakarrik, bukatzeko: Jo dezaiozutela txalo bero-bero bat, Zumaya'ren ondra ta ospe aundia dan nere adiskide min, JULIO BEOBIDE jaunari.

Eta urte askoan, Julio.

Bukatu det.

MANUEL LEKUONA.

# TXORI GALDUAK

Eguzkiagaitik negar ba-dagizu gabaz, eztakuskezu izarrik.

Batak bestea ezkenduala ezagututen egin genduan amesetan, bein, guk biok. Eta alkar maite genduana egia ete zatekeanentz, itzarri egin gintzazan.

Zugatz ixiltsuetan illuntzea lez, biotzean bakea egin daroast ixil-ixilka neure samiñak.

—Itsaso, zer diñozu?

—Itaun betikorrik.

—Zuk, zeru, zer darantzuzu?

—Ixiltasun betikorra.

Amil-ertzean ez egizu itxi zeure maitetasuna.

Argontzia atzekaldean daroanak, bere gerizetea baiño eztagi aurrerantz.

Orri ezeen artean ume billoiza lez olgetan zoriontsu diarduan argiak gizonen guzurren barririk eztaki.

Ixpilluaren zurikerian barik, maitetasunean billatu egizu edertasuna.

Lurbiraren ertzean zabaltzen dauz bere ugiñak nire biotzak eta malkoz eginda isten dau: «Maite zaudaz».

—Zeri itxaroten, igetargi?

—Eguzkiari, igaro daiten.

«Neure azkatasunera el naitenean neure abestia aurkituten dot», abestu daroa ur-jausteak.

Etxeko ardureaz baterik-bestera zoiazanean, emakume, basoko iturriak arri-artean lez abesten dan zure soiñak.

Goze etzareala-ta jatekoari errurik ez emon.

Irribarre egin eta uskerietaz berba egin zeustan. Eta nire luzaroko itxaropen guztia arexetarako baiño etzatekeala sentidu neban.

Eskerrak, Jauna, agindaritza-burpilla enazelako, burpil arek zapaltzen dauzenetarikoa baiño!

Apaltasunez andi gaitezanean gagoz andiagandik urren.

Zear-bidea billatuten dau zirimolak, biderik eztagoan lekuan, eta ezebezera urten oi dau beingoan.

«Egarberek nire ur apur bat neikoa daben-arren, pozarren damotsat guztia!» abestu oi dan ur-jausteak.

Egurginañaren azkoreak zugatzari eskatu eutsan beretzat kirtena, ta emon egin eutsan zugatzak.

Txarto irakurri oi dogu mundua, ta guzurtau egiten gaituala esan daroagu.

«Gizonagandik ba-ditxaro oindiño be Jainkoak» esan daroazku mundura datorken sein bakoitzak.

Amaika gudu-esi egin oi dauz gizonak bere buruaren aurka!

Izadiaren jopua ta jabea da antzelaria, bere maitalea da-ta.

—Igali, asago(\*) zagoz nigandik?

—Zeure biotzean naukazu, lora.

«Neurea zaudaz!» esan eutsan munduari aginpidegoak. Eta azpian artu eban munduak. «Zeurea nozu!» esan eutsan maitetasunak munduari. Ta munduak etxea itxi eutsan.

Gabean nok jagiko itxaroten dagoan bere emaztegei-burzapia la-koa da nire biotzaren goibeltasuna.

Ortzi-bazterrean itxaron eban apalkiro laiñoak, eta dirdariz ko-roetu eban goizak.

Sakeleko irabaziakaz ez egiozu zeure lagunari erronkarik jo.

---

(\*) *asago* = urrun.



Oartzunak irri egin daroatso bere jatorriari, bera dala jatorria esateko.

Lagun-artera sartuten da gizona, ber-beraren ixiltasunaren deadarra itotearren.

Emakumeak goruetan lez eguzkian kantetan dauts lurak egun. Eztakit zelako kanta zaarrak direan, ez zelako berbeta aastuan!

Itz dagikean emakumea da amesa. Ixilla jasan daroan senarra amesetea.

«Zeure ama erio nozu, ta bizitze barria damoketsut», diñotsola mun egin oi dautso gabak, jausi daitenean, egunari.

Gau illun ori, kurtzulua itzali daitenean maite dan emakumearena lakoa da zure edertasuna nirekautan.

Txoriak uste oi dau eguratsez ibiltalditxu bat egiteak on egin daroatsola arraiñari.

«Amodiozko idazkiak bidaltzen daustazuz zuk igotargian», zirautsan eguzkiari gabak. Bedartzan darantzutzue nire malkoak.

Egi guztiak esan bear eztireanean erreza da argi berba egitea.

«Nun bizi ete zara zu?», diñotso *ba-ziñak eziñari*.  
«Ezin dabeenen amesetan», diño erantzukizun batek.

Okerregin guztieri atea ertsi ba-daditsazue, ataldean itxiko dozu egia.

Gizonen kurtzulutxoaren argia maiteago dau Jainkoak, arein izar andiak baiño.

Oñaze zoroen mundua da au, edertasunaren musikeaz ematurik.

Ikututa il egin zeinke; atzerantz eginda, eskuratu.

«Ene pitxi, ene pitxi, neure eriotza!» dagi deadar garretan da-goan egurrak.

Lotsatu egiten nau gorespenak, ixillean eskatuten dodalako.

Gizonak ankerrak dira, baiña gizona ona da.

Larrosea ikusteko begiak daukazanak arantzak bakarrik ikusi beiz!

Txoriaren egoak urreztau ba-dadizuz, eztau barriro ortzira egazik egingo.

Argia baiño eztau ixuriten igetargiak ortzitik; bereak baiño ez-tira bere orbanak.

«Zeure biotzean euki nagizu betiko!», esan eutsan euri-tangadeak ixi-ixilik *urkitzari*(\*). «Ene!», zotin egin eban urkitzak, eta jausi egin zan.

Etzaitze bildur izan, gogamen bildurtiok, olerkaria naz-da.

---

(\*) *urkitza* = jazmin.

Euri-tangadak mun egitsoen lurrari, ta ixi-ixilik zirautsen: «Zeure alaba itunak gozuz, ama, ta zeugana biurtzen gatxatzuz zerutik.»

Zure eskuak oiñaze-kurtzulua gori dakarkenean, maite, bai ikusten dautsut ederto arpegia, ta zoriona zareala ezagutu!

«Egunen batean itzali zatekeezala diñue jakitunak», ots egin eutsen izarrerri epertargiak.

Ez eben erantzun izarrak.

Ortzia-zear txori-taldeak lez doaz pentsamentuak nire gogoazear. Ondo bere ondo entzun daroadaz arein ego-otsak!

Mun egin oi daust ariman mundu minduak, eta bere miña abestian biurtu dagitsadala gura dau.

Zer da au, onaraiño bularra estututen daustan au? Neure arimea amaibakotasunare urten gurarik, ala munduaren arimea neure biotzera sartu guraz?

Bakezko ordu onetan sartu dot neure biotzaren edontzia, ta maiteasunez beterik atera dot.

Egin-bearrik ba-daukazu, ala ez. «Zeozer egin-bearra daukat», esanbearra daukazunean asten da gaiztakeria.

Gorrotau ta erail egin eben, eta onetsi egin ebezan gizonak. Baiña Jainkoak lotsatuta, bedar ezez estali oi dau, iraduz, arein gomutea.

Lurbira guztia jagi oi dala berari tokia kentzeko uste daroa altzo txakurtxuak.

Bizitze-iturriaren eresia da, emakume, zure irria.

Oñaze zoroen mundua da au, edertasunaren musikeaz ematurik.

Ikututa il egin zeinke; atzerantz eginda, eskuratu.

«Ene pitxi, ene pitxi, neure eriotza!» dagi deadar garretan da-goan egurrak.

Lotsatu egiten nau gorespenak, ixillean eskatuten dodalako.

Gizonak ankerrak dira, baiña gizona ona da.

Larrosea ikusteko begiak daukazanak arantzak bakarrik ikusi beiz!

Txoriaren egoak urreztau ba-dadizuz, eztau barrero ortzira egazik egingo.

Argia baiño eztau ixuriten igetargiak ortzitik; bereak baiño ez-tira bere orbanak.

«Zeure biotzean euki nagizu betiko!», esan eutsan euri-tangadeak ixi-ixilik *urkitzari*(<sup>\*</sup>). «Ene!», zotin egin eban urkitzak, eta jausi egin zan.

Etzaitze bildur izan, gogamen bildurtiok, olerkaria naz-da.

---

(<sup>\*</sup>) *urkitza* = jazmin.

Zuk, egunaren bide zaratatsuetaz illuntzeko neure bakartadera zuzendu nozun orrek, emoidazu orain arein zentzuna, gabeko ixillaren bitartez.

Egunsentiko argiaren anotsa da txori-kantea lurrean.

«Zelan abestuko dautsut eta zelan jauretsi, eguzki?» esan eutsan loratxuak.

«Zeure garbitasunaren ixiltasun apalaz», erantzun eban eguzkiak.

Abere daitenean gizona, aberea bera baiño be txarragoa da.

Mendizko orriekaz egindako lorea eztirudi ala mendi-lerro onek, argia edaten eguzkian?

Txarto irakurri ta txarto ebagitako egia da guzurra.

Euren ikusbidearren eztira arrotuten begiak, betaurrekoakaitik baiño.

Maite egizu izarra, bideko bedar orrek, eta lora biurtuko zure amesak!

Ume txikiaren atzamarrak lez laztanduten dauste biotza zure orri dardaratsuak, zugatz.

Zeuenan sartuten istekorik eztautsut eskatutan, ene maite; baiña sartu zaitez zeu neure bakartasun amaibakoan.

Loretan eta eguzkiaren argian ikasi neban zure zotiñen tolezbako esangurea. Zeure itzen esangurea oiñazean eta eriotzan ezagututen irakatsi egidazu!

Atsedenaren arrats-izarra biztu egidazu biotzean; eta maitetasu-nari buruz itz egin dagiztala ixi-ixilik gabak!

Ni il naitenean, jabon eidazu mundu zeure ixillean, itz au: «Maiteneban».

Mundua maite dogunean bizi izaten gara munduan.

Egunsentiko argian erdi lo bere ama ikusi dakusan, eta irribarre eginda barriro loak artu dagikean seiñak datusan gisara ikusi zendudazan.

Il egingo naz bein eta birritan, eta bizitzea agortueziña dala jakin dagiket.

Lagun-artean niñean ni, zeure bidez, eta irribarreka ikusi zendudazan zeuen pendizean; ta abestu ta aastu egin ekidan lagunteria, ta eneban geiago zaratarik entzun!

Esaidazu nun dagoan zure ixillaren abiea, abestiz bete gura dot neure biotza ba-ta!

Gizonak irribarre egin ebanean, maitetu egin eban munduak. Barre egin ebanean bildurra izan eutsan.

Gizona barriro jakiturian umetu arte itxaron daroa Jainkoak.

Jainkoaren ixillak eldu egin daroaz gizonaren gogamenak, eta berba biurtu.

Aunexek beitez nire azken-itzak: Uste betea dot zeure maitetasunean.

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN'EK.

# URDIAIN'GO SAN PEDRO'REN KANTAITA

Euskal kantu jatorrak izan dira iragan denboretan Urdiaingo herrian. Beste baztarretan gertatu dena, galtzen joan dira eta orain jende jarriak bakarrik dakizkite. Askok gogoan dute txuntxuna jaioro izaten zuten garaia, eta emakumeak panderuekin koplak kantatzera inguratzen ziren denbora.

Batez ere, festa burutan ba zituzten eguneko kantu bereziak. Gau eskilarekin batean ixiltzen zen txuntxuna eta gazteriak plaza beteko inguru bat eginez asten zuen bere kantaita.

Lau dira bildu ahal izan ditugun bertsuak: Pazko Mayatzekua, San Juan, San Pedro eta Azentziotako zatitxoa.

## SAN PEDROREN KANTAITA

Urdiaín'ek ba du beko basoan elizatxo bat ixtilu frango sortu duena. Atal aurreko arri marratuak dionez, an goratua izan zen Napparoko lenbiziko erregea. Gaur dagon eran Altsasu eta Urdiaingo lurak artzen ditu zorigaiztoko aterpe orrek; erdi erditik dijoakio muga. Hori bai, aldea Urdiaingoan duela.

Aspaldiko epai-erabaki baten bidez Altsasuarrak garagarrillaren 29'an egiten dute beren San Pedro festa, eta Urdiaín'darrak San Pedro ondoko lehen igandean. Ortako da emen esaera zaharra: «Urdiaín'go San Pedro eta mundu guziko San Pedro.»

Eztabaida au dela ta mutur joka asko ezagutu omen dira bi herrien artean. Urdindarrak diote, Altsasuarrak ostua dutela lurralde hura guzia. Besteak berriz esaten diete ez ostu, ez; Urdiaín'ek saldu eta txokolate (beste batzuk aguardiente), asean jana dutela.

Altsasuarreri surik aundiena San Pedroren kantuak ematen zien.  
Urdin'go neska mutil guziak eskutik arturik pausuka zabilzen eran  
kantatu ori zuten:

Migel de Fernandiz zen  
Urdiaingo semia. (bis)

Artzek estrenatu dau  
San Pedro geuria. (bis)

Artzek estrenatu ta  
auzuak lagundu,

ermita seinale bat  
basuan daukagu.

Urdiaingo Andre Maria  
guzitan seinale,

Bribilejiuak antxen  
gordetzen dirade.

Zazpi giltzaren azpiyen  
ala ere daude

ayetikan bi're  
geuriak dirade.

Antxe koronatu zan  
Naparruako errege

korona daitekela  
San Pedro ere.

Geuria San Pedro ta  
geuria «Zangitu»

Altsasun diren zurak  
geuriak ditugu.

Mari Itorrotxen sukaldian  
mugarria daukagu



Ura ere geure Urdiainek  
eginda daukagu.

San Pedro giltzakin ta  
liburuarekin

komunikatzen zaio  
Jesukristorekin;

Jesukristorekin ta  
bere Amarekin.

San Pedro zeru altuko  
giltzaren jabia,

goizian mezia ta  
arratsian salbia.

OARRAK.—Auetako bertsu bakoitza errepikatu egiten zen. Beraz binakako bertsuak ziren. Esan beharrik ez da zoin luze izaten zen kantua.

Iru edo lauengandik artu ahal izan ditugu. Osoena Juana M.<sup>a</sup> Zufiaurre eta batez ere Celestina Lizarraga zekiten. Guk emen ekartzen duguna Celestina Lizarragak esandako eran da. Alare, konturatzen gera puntu askotan aldaketak ba direla. Batez ere bertsu puntak eskaxak dira. Nola nahi dela, aspaldiko denboretako oroigarri beza-la jaso egin ditugu.

José M. SATRUSTEGUI.



## BAT BAKARRA?

Nor da zer ori, eman diguna  
ainbat eta ainbat edertasun  
baña negar malkoz bustitzeko?

Nola liteke esku bat izatea  
zoriontsu esnatzen gaituana  
gauean naigabez biurtzeko?

Nola baña, alde bateko  
ugaritasuna ta ondasuna,  
gosea ta egarria besteko?

Nork du eskubide ori,  
ume bat aberats jaio ta  
beste bat beartsu jartzeko?

Eta, ona ta txarra bi izanik  
ez al du onak indarrrik  
txarra zapaltzeko?

PAKOL.

## GOGOAREN ETA GORPUTZAREN ZILBOR-HESTEAK

bi kate;  
biak ebaki beharrezkoak:  
bat gorputzaren bizitzeko,  
bestea gogoaren askatzeko.

adizu, ama  
ba dakizu  
sortze berean  
zuri gorputzez lotzen ninduen  
zilbor-hestea  
sendagilleak nola ebaki zuen.

lehenengo eten beharra izan zen:  
bizitzaren  
bizitzeko lehen legea.

Sein-zaroan  
zure titia eman zenidan;  
aur-zaroan  
eskoletara bidali ninduzun,  
bizitzarako harmak hartze-arren.


dana eskertzen dizut;  
duan balore guztian,  
nik ahal dutan neurrian.

bainan, gaztaroan  
amatxo maite!  
ohar zaito  
benetan maite nauzun ama  
izan nahi baduzu  
eta nik zu maitatzea,  
ni naizena  
nik izatea nahi dutana izatera,  
ez utzi bakarrik,  
bultza behar nauzula.

hau baita bide bakarra  
biok alkar sanoki maitatzeko,  
biok alkar osoki eta betikoz maitatzeko:  
zuk zure nortasunaz,  
nik nereaz.

ama!  
eten dezagun  
lehen gorputzarena bezela  
orain,  
gogoaren zilbor-hestea.

HARZABAL.



# KANTUZ ETA ITXAROPENEZ

CI

ez eukan arek sirurik  
ezta eukiteko  
                  itxaropenik bere,

alan da guzti be  
ez jakon aztu  
                  aurrerantza joaten;

urrengo egun-sentiaren  
argiagaz  
beti soñisten eban  
                  besperako  
                          illuntzietan,

betikotasunezko  
goi-maitasunaren  
susmoa  
                  aurkitzeko  
                  itxaropena  
                  ekarten  
                  eutsalako.

arrigarrizko  
                  egunsenti  
                          azken bakoan  
                  siñisten  
                          jakin  
                                  eban  
  arek,  
eta azkeneraiño eruan eban  
irribarre

atsegin  
bategaz  
bere  
bizitzako  
kurutze  
astuna.

## CII

emeretzi udabarri-gazte egan  
arabako  
zelaiunetan  
itxaropen  
garbi  
baten  
billa.

an amatau jako bizitzearen arnasea.

uso zuria  
egan  
aidean  
arabako  
zelaiunetan,  
emeretzi udabarrien illobi-ganean.

mendien izkuntzetan berba egin dabe euren artean  
anbotok eta gorbeak

gaur goizeko  
lorail-egun  
aize-mutuaren  
bidez  
errege-bideko odol-errekearen  
barri  
jakin dabeenean,

eta  
uso zuriaren  
gorantzako  
egazkadeari  
begira  
gelditu

dira

biak:

anboto

eta

gorbea.

### CIII

ez deukat zertan itxi bertanbera, Herman Hesse,  
neure sorterrria,  
gauberdiko azti-itzaren deiari jarraitzeagaitik,  
urriñetara joateko.

mundu guztia be txikia zan  
neretzako  
gaztetako egun sargorietan.

mundu zabal guztia baiño ederrago  
ta aundiagotzat daukat gaur,  
adiskide Herman Hesse,  
neure euskalerrri-sorterri txikitxu au.

### CIV

bi.

bide bi.

bide bi aurrean.

bizitza guztirako bide luzea ta atsegi-  
ña, au urriñetara doian au.

pausu bat emon  
eta emen gelditzen dana  
au beste labur au.

burua

eta

biotza

burrukan

alkarren

artean.

zeiñek irabaziko ete-dau?

mendiko baso zabalaren ertzean  
jezarriko zara.

eta  
atseden  
pixka  
bat  
artuko  
dozu  
erreka  
txikiaren  
ondoan

basoaren

edertasuna

eta

aize ta zugaitzen

arteko

sinfonia

ipiniko

dozu

gero

zeure

eguneroko

k

u

a

d

e

r

n

u

a

n.

MARKUE.



# GIZON - ZUGAITZA

Séamus Ó Mainnin

(Jon Mirande'k irlanderaetik itzulia)

Zurezko alki jaso batean exerita nengoen Mac Cartaigh'en ostatuan, Seán de Brún sartu zenean aterpe-billa, aspalditik egin ohi zuen legez. Kargudun bat zen, eta novelisten araura jende-arraza horrek diru-gabea dauka beti, bainan ez dut nik ulertzen nolaz heietako edozein beartsu izan ditekian Sean'en irudimen aberatsa euki ezker. Neuk hogeit hamar zigarrillo erretzen ditut orain egunean, nahiz ez nintzan delako gau hartan *shilling* bakar baten jabe baizik eta nere sakela-ondoraino bultzatu nuen shilling bakar hura mutilla ene aldera etorri zenean. Sekulako ikaran jarri ninduen bereala, haren lehen hitzek beldur izugarria eragin ba aitzidaten bihotzean.

—«Alki hortatik jauts zaite bertan», esan zuen, «bestela ez dituzu zure emazte eta haurrak berriro ikusiko».

Jauzi batekin jautsi nintzan, ustez galzori lazgarrian nengoela.

—«Zoriona izan duzu, alkiko estalgiak zuretik jagon zaitu eta.»

—«Bainan zer on du larruz izatea estalgiak, zura bezain gogorra ba da?»

Ez zuen berehala erantzun, bainan hasi zen hasperenka.

—«Horazio gizajoa, esan zuen, ez dakit nola litzakean gaur, laruzko estalgi bat izan ba lu bere alkian.»

—«Zulo bat egin ahal zaio galtzetan?» galdatu nion.

—«Zulo haundi bat egin zaion lepoan, «esan zuen ahapetik, «bainan nik diot egin. Ixtorio zorigabekoa ba, eta beldur naiz ezin jasan dezakezunik esango ba nizu...»

—«Ixtorio bat jasaiteko gauza naiz, edozein ixtorio izanik ere», segurtatu nuen. «Esaidazu bada.»

De Brun'ek begirada bat eman zuen botoiletara eta hasperen bat soltatu zuen, Horazioren amorea gatik noski, eta gero bere ixtorioa jalki zidan.

«Iñork ez du iñoiz Horazio ikusi, nahiz lanean ari zen gure ororen buruzagia den legegizonaren etxean. Bere ofizina zeukan, eta ez zen sekula handik ateratzen, agure garratz, gaitzikorra zelako, iñorekin adiskidetzen ez zena. Askotan igartzen saiatu ginan, zenbat urte zitukean Horaziok, eta gure nausiak aitortu arren beraren aita-soaren zerbitzuan zegoela, ez zuen halarik ere uste Horazio ofizinan zegoenik aita-soak erosi zuenean. Nitaz besterik iñork ez zuen Horazio ikusten, nik bainion eguneango lana eramaiten, baiian hitz gutxi egiten nion, agure beltzaran, beso-luze bat baizik ez baitzen, alki batean exeririk suma edo subtrakzio egiten ari egun guztian. Larunbatetan ere ez zen nerekin mintzatzen. Egun handi hartan ofizina dena beterik zegoen zaldi—, garagarrardo— edo zineko izarren izenekin, bainan Horaziok ez zuen burua jasotzen, ez eta neri aldarrikatzeko dantza-etxeetatik hurrin egon nendin ere.

Hamar urtean sar-atera egin dut haren ofizinan, hark enekin mintzatu baino lehen. Delako egun hartan beldur galanta eman zidan, ikusi nuenean haren maxelek kolore berdea zeukatela. «Ene! esan nion, ba dirudi pikota ba duzula, bakarrik kolorea bestelakoa duzu.»

Eni buruz inguratu zen, eta berriro ikaratu nintzanikusi bainuen berdetasan hori begiaren zurian ere zeukala. Hitz egin zidan, baso zabal batean dabillen aize-bolada bat gogoratu zidan botz batekin.

—«Ezin ezkuta dezaket gehiago. Ene segetuetan salatu behar ditut. Jakintsuek uste zuten izadiaren segetuetan garaitu zituztela, bainan neronek, neure buruaz, probatu dut oker zabiltzala guztiak. Zenbat denbora da ofizina hontan nagoela?»

—«Hogoi ta hama urte», esan nion.

—«Bai, eta askoz behiago ere» esan zuen. Hainbat denbora ereman dut gartzela hontako lau pareren artean, sumatzen eta sustraitzen, multiplikatzen eta banatzen. Ez nion ineresik arkitzen lan horri, bainan egin behar nuen. Horrela egon naiz, ene indarrak batzen egu-nero hona etorri ahal izateko, sumatu eta banatzera, eta horrelakoe-tara. Guztiak uste zuten luma darabilen tresna bat baizik ez nintzala, bainan amets urdinak ba zebiltzan beti ene buru urdinu hontan. Kanpoan izadia hil eta berpizten zen urtero, bainan lau pareta eta selauru baten hesia zegoen haren eta nere artean. Bizi beharrak borxtatu ninduen begiak itxitzera kanpoko edertasunari, eta ez nuen izadia batere ikusten. Bainan —esan zuen bate batean— izadia etorri da ene gana. Ez zegoen ene ametsetan, bainan hura ene ondotik

zebillen, nitaz zoratuki maitemindurik litzakean emakume bat bezela. Ez kontu egin ene begi ta maxelen berdetasunari —esan zuen handizki— begira ene oinei.» Zurrumuru batean esan zituen azken hitzok ene belarrira.

Beldur nintzan beheiti so egiteko, uste bainuen pizti baten zangoak ikusiko nituela edo. Azkenekoz ordea heldu nintzan hari bekokiz bekoki begiratzera. Horazioren oinak alki-oinen inguruan gurutaturik zeuden, eta so egin nienean, ikusi nuen haren galtza-erdi eta oinetakoak alkiaren kolore berdineko zirela. Zail zen konturatzeari non zeudēn odol, aragi, larru eta oihala, eta non hasten zen zura. Ez zitekean diferentziarik ikus heien artean. Eskua hedatu nuen, eta haztatu nituen oro batean. Oro zurezko mokor bakar bat ziran.

«Jajaja, esan zuen Horaziok, horrek ikara emaiten dizu!»

Begiak borobildu zaizkidan, ikusi nuenean haren gorputzaren bekoalde guztia tankera hortan zegoela, eta alki-oinak lurretik igarotzen zirela.

«Ohituko zatzaizkio, motell!» esan zidan. «Ulertzen duzu? Hainbat luzaro egon naiz alki hontan exerita, non haren zati bat bihurtu bainaiz orani, eta azpitik, lurrak gure oinak bere gana darakarzki. Hemendik gutxi barru, alki eta ni biok zugaitz handi eder bakar bat izango gera. *Kilmer* irakurri ahal duzu sekula?»

—«Ez» erantzun nion.

—«Ez izan ene beldur, eta laster ikusiko duzu iñoren begiek ikusi ez dutena. Gizon-zugaitz bat ikusiko duzu. Behar nuen ene denboran zerbait haundirik egin, eta izadia ene ganatu ezker, egin dut. Ez aipa neri izadiaren bularrean egoitea, poeta guztiek eskatzen dutena, neu dagoneko izadia bera nauzu!»

Ixildu zen de Brún eta izerdia txukatu zuen arpegitik. Beste begirada bat egin zion botoilari, baina ene shilling bakarrari tinko utsi nion, oso txiroa bainintzan egun heietan.

—«Poliki poliki, esan zuen de Brún'ek, heldu zen zugaitz izatera. Denbora luzera gabe haren soina enbor gogor bat bihurtu zen, eta urte baten buruan zur-aldaska bat agertu zen haren sudur-pekoren ordez. Esku-sega bat ekarri nuen ofizinari, bizarra Horaziori egiteko, baina beste apur baten barru ez zitzaion gehiago egin beharrik, nekez ezagut baitzitkean ordurako gizon baten arpegia izan zuela. Amerikako tabako-dendetan ikusi ohi diren zurezko Indianoren bat zirudian, baina, eztabaidarik gabe, ez zen sekula herrialde miresgarri heietan Horazioren bezelakorik izan.»

Urte hartan lehengo ezbarra gertatu zitzaigun. Goiz batean, haren gelara sartu nintzanean, gorputz-enborra makurturik zuen, eta leihora buruzko adarrak kristala hautsia zuen. Zoratzera nintzan. Galdeka hasi nintzaion, baina mintzoa galdurik baitzuen garai hartara,

ez zuen beste erantzunik egin zur-peza bat karrakatzen denean emaiten duen otsa baizik. Pattar tanto bat ixuri nuen haren ahoa izan zen lekuan, bainan besterik ez nuen lortu kolore gorrizka bat haren ostotara erartortzea baino. Ez-jakin zertara jo ba nengoen, gure ofizinarean ondoan zegoen liburutegi batez gogoratu nintzanean.

«Ba ahal duzu zerbait zugaitzez», galdegin nion minuta baten buruan liburutegiko kargudunari.

—«Otso-lizarrez, gorostiaz, lizarrez edo haritz-ondoez?»

—«Horazio-ondoez», esan nion.

«Hum, esan zuen hark, H. G. Wells, ezkerraldeko liburu-pillan.

Bainan ez nuen erantzunik batere arkitu liburutegiko libururen batxoan ere, burutik burura *Zugaitzaren iratxoa* istudiatu arren. Bero zen liburutegian. Ene! zer beroa... Zerbaitxo edan ohi nuen egungo ordu hartantxe, eta orduantxe, hain zuzen, egarriak orhoit erazi zidan hamarrak zirela. Ene hurko-laguna galtzeko zorian zegoen, ba dakit, bainan hauxe da gizonen tankera, Jainkoak lagun dakigula! Egarrria uxatu bezain laster, Horazioren alkiaren gainera igo nintzan eta haren gainaldeko orbelak mozten hasi nintzan. Gero haren ondoan jarri nintzan eta otoitze bat esan nuen. Ordu bat joan zen, ordu bi, eta dagoneko baserrietako nekazariak ere otoitze egiten egongo ziran, euria hasi baitzen erortzen hirugarren orduan. Eguraldia eder denean, lurginek lanean dihardute: horrengatik beti daude otoitze egiten eguraldia leher dadin. Horazio zutitu zenean haren gaina zetozen euri-tanto lodien azpian, otoitze bat esan nuen nekazarien alde: euri-tanto bat edatera jaiki ez ba litz egun hartan Horazio, hilko zen. Gizon bat baino gehiago hil ohi du egarriak, nik diotsut.»

—«Beste gertakizunik izan ahal zenduten?» galdetu nion.

—«Baietz, esan zuen. Nigarrez hasi zen Horazio, eta malko lodiak jausten zitzaizkion enborrean behera. Berriz ere liburutegira joan nintzan.

—«Zer moduz Horazio?» galdegin zidan hango kargudunak.

—«Zerbaitek min daragoio, nigarretan ari da.

—«Nigarrez? Ikus Holtzinhakker'en liburuan hoge ta hamahirugarren orrialdea: zugaitzen neurosiak.»

Bainan ez nukean problema horren erantzuna idoroko, etxera sar eta emazteari probatu ez ba nion gudua sei hilabeteren barru amaituko zela.

«Ez ahal naiz mutil burutsua!» esan nion nere buruari. Ez nuke neronen garrantzia ulertuko emaztea ez ba nu konparazio-gaitzat.

Biharamonean zaku bat hazi erosi nuen, eta denbora laburretan barna, lore txiki batzuek ba ziran ugari Horazioren inguruan, eta berriro eguzkiari buruz zutitu zen lerdan. Hark ere beraren garrantzia ulertu zuen, ikusi zituenean gauza txiki horiek zoratuki dantzan

haren itzalean. Bere eskubiko abarrak oraindik idatzi nahi zuen, ez baitzitekean idaztetik geldi, eta luma bat jarri nionean abar-gainean, hasi nintzan haren gogoaren berri jakiten. Suma batean huts egiten zuenean, ba nekien zerbaiten gatik artega zegoela. Eta haren bidez gauza asko ikasirik, diru ederrik irabazi nuen, aldizkarietara artikulua igorritz zugaitez. Behintzat, asko irabazi nuen, behin *Zugaitzak eta Pythagoras'en theorema* izendun artikulua bat igorri artean. Oso ona zen, funtsez eta formaz, bainan artikulua atzera itzuli zidaten.

Denbora onik igaro genduen biok udaberrian. Alfonbra bat baino gehiago zulatu nuen, langelan zehar hara hona ibiliz, bi eskuak atzelaldean gurutzatuta, ezin egonean, beldurrez, Horazioren lehen ostoak sor haiduru. Txoritxoak ba zetozen eta beren kabiak egiten zituzten lehenago Horazioren ilhea izan zen lekuan eta sarri ikusten nuen txantxangorritxo bat haren sudurra izan zen lekuari oldartzen eta tiratzen. Zibuka jartzen zen orduan, eta aizeak marruma antzera egiten zuen haren abarretan, toki guztia soinu bezala arteraino. Urtea aurrera zoala, fruitu-mota bat etorri zitzaion, bainan igarrak ziren fruituok, garratzak, zume guztia galdurik baitzeukan Horaziok, gizon zelarik ereman zuen bitzta gatik.

Udazkenean, berriz, korapillo bat gaitza izan nuen askatzeko. Problema zen: nola osto hilak kanpora eroan ofizinako iñork jakin gaberik. Ene soineko-pean jartzen nituen; buruzagiak saria behehitu zidan ordea, ustez eta lodiegi egiten ari nintzala. Egun batean, orbel bat hegaldatu zen eta buruzagiaren mahainean erori zen. Sekulako beldurrean sartu nintzan, baina uste izateko da buruzagiak pentsatu zuela hori seinale bat zela, egun hartantxe antolatuta izan zen oihan-lanetako lagundi bateko titulu-pakete bat eros zezan. Eta delako lagundiak hautsi egin zuenean, Horazio eskuan, ez, txotxabarrean jo nuen.

Ni nintzala kausa, marranta edo katarro gaizto bat heldu zitzaion negu batean. Honela gertatu zen: urte hartako udan hazkure bat izan zuen bizkarrean, eta zin egin nion sendatuko nuela. Sendatzeko, nere izena idatzi nion bizkarreko zurean. Ondikoren ondikoz! horrek ahuldu zuen dudarik gabe, eta aizea sartu zenean, etorri zitzaion marranta tzar hori. Berotzeko, *whisky* eman nion edatera eta on egin zion. Ala fedea; ke beltz bat atera zitzaion, astebetean, izena idatzi nuen lekutik.

Egun bat etorri zen ordea non zorigaiztoak jo gaigintuen. Ofizian geunden kargudun guztiak gogor lanean ari ginan. Ez zenuen *jazz*-ahaidetik leku guztian entzungo, ez eta eztabaidarik edo hitz-asperturik edozein tokitan: zaldi—, garagarrardo—, zineko izarren eta *bookmaker*'en izenak zebiltzan orenen ahotan. Gure buruzagi

lege-gizona kliente batekin hizketan zegoen, eta hamarna shilling kontatzen zizkion erraiten zion hitz bi-silabadun bakoitzaren gatik. Kargudun gazteak atsegabeturik zeuden, periodikoak ez zekarrelako hiletarik edo surterik edo ontziondatzerik. Dakusazun bezela, laneko egun amorratua zen.

Bat batean, zerbait erdibitzen eta urratzen zelako ots bat entzun zen airean. Lur-zola zabaldu zen, eta zerbait beltz, gogorrik agertu zen. Lege-gizona leihotik kanpo ihesi joan zen eta guztiok zuloaren inguruan batu ginan. Eztabaida eta oihu ezagun zen kanpoan, eta ikusi genuen lege-gizona goiti etortzen arrain-otare baten barruan, eta ba zegoen hiriko iparraldeko emakume bat harekin eztabaidan. Sartu zen bada nausia, bakoitzaren begiak hari so zirela, bakoitzaren sudurra hari buruz inguratutik, eta telefonora hurbildu zen. Luzaro gabe polizisten oin lodiak ba zabiltzan lekuan gaindi. Orduantxe ulertu nuen zer jazo zen. Horaziok abar bat bultzatu zuen buruzagiaren mahainaren petik... Lasterka atera nintzan, eta atzera itzuli ororen ixilean. Horazioren ondoan exeri nintzan, nigarra begietan nuela. Otsanki, samurki mintzatu nintzaion alkarren laguntasunean euki genduen denbora ederraz, eta haren eskua adiskidetsuki, adeitsuki, bihotz-mindurik hazkatu nuen. Ikusi nuen begiak zerura buruz inguratutik zeuzkala, kabia egitera zijoazen txoritxoegi begira, eta erosi berri nuen aihotz bat har eta haren zintzuraren lekuan igaro nuen. Ez nuen haren orroa entzun, txoriak zoliki eta goibelki kantaz ari zirelako haren kariaz; eta polizistak gelan sartu baino lehen, Horazio nere etxera ereman nuen taxi batean.

Iñork ez gintuen berriro ofizina hartan ikusi. Gogoratzen zera beharbada periodikuek ekarri zituzten eztabaidez, guzaitz-enborra gatik, eta munduaren gainaldetik iñori ezer esan gabe eta lege-gizonari saririk eskatu gabe itzali ziren bi kargudunak gatik? Ni bitartean Horaziorekin batean nengoen baserri batean. Gaitz orotatik gorde-tzen nuen, eta esaten ba dizut sutondoan atxiki nuela joan den negu guztian, ulertuko duzu nola leial egon nintzan haren oroitzapenari. Behin, emaztea entzun nuen esaten haren gandik berezi behar nintzala eta bertze emazte bat bildu behar nuela. Apaizaren gana joatera zen, hizketan egoiten nintzan egur-puska hartatik kanpo deabrua konjura zezan. Orduan, Horazio kanpora eraman nuen, bihotz-gabeturik, eta lantegi batera saldu nuen. Horazio gizajoa...»

—«Eta hori da Horazioren ixtorioa?» esan nion de Brún'i.

—«Horixe», erantzun zidan, eta lapitz bat atera zuen sakelatik. «Lapitz-egile batzuei saldu nuen, sumatzen eta subtrahitzen ari direnek haren ispirituaren parte bat euki dezaten. Ez ahal zera zu ere idazlaria?» galdetu zidan.

—«Saiatzen naiz izaten», ihardetsi nion.

—«Shilling bakar batentzat uzten dizut», esan zuen. «Lagunduko dizu izu-ipuín bat, edo guduko berriak, edo beharbada poema bat idazteko.»

—«Ongi dago», esan nuen, eta neure izerdiz irabazitako shilling hari agur eegin nion.

Shilling haren ordaina edan zuen de Brun'ek, eta berriro mintzatu zen.

—«Nahi ahal duzu ixtorioa egia delako proba bat?»

—«Bai, gogotik nahi nuke», esan nion.

—«Ederki! begira lapitzean markaturik dauden *hizkiei*: H. G. Horazio Gizajoa esan nahi dute hizkiok», esan zuen ahoa txukatzen zuela eta atera buruz abiatzen zelarik.



## “TATA” REN ERIZAIA (\*)

Martxoaren goiz euritsu batean, baserritarrez jantzitako mutil bat, blei-blei eginda ta loiak burutik oiñetaraño zikindua, erropa-pardeltxo bat galtzarbean zeramala, Napoles'ko Erromesen Eritegiko atezaiari azaltzen zitzaion, eta karta bat erakutsirik, bere aitaren berri eskatzen zuen. Ederra zan bere arpegi luzeka beltzerana, gogoetatsu bere begiak, eta erdi zabalik zeuzkan'ezpain mardulen artean, ortzak agertzen zituen, zuri-zuri.

Napoles inguruko errixka batetik zetorren. Bere aita, lenagoko urtean Franzia'ra lan-billa joana, Italiara itzuli ta Napoles'en legereratua zan. Bertan, supituki gaxoturik familiari idazteko beta ozta-ozta izan zuen, etorria zala ta eritegian sartu bearra zuela jakinazteko. Bere emazteak, berri onek atsekabetuta, etxetik alde-egin eziñik —umekondo bat bait-zuen, eta alabatxoa makal— seme zaharrena bidali zuen Napoles'era, txanpon batzuk emanda, Tata'ri —«tata» deitzen bait-diote aitari errialde artako baserritarrak— lagun-egin zezaion. Iru legoako bidea egiñik zetorren mutilla.

Ateziaiak, kartari begiratu bat emanda, erizai bati ots egin zion, mutilla aitarengana eraman zezan eskatuaz.

—Zein da bera? —galde egin zuen erizaiak.

Mutillak, berri samien bat entzungo ote zuen bildurrez, izena eman zion.

Erizaia ez zan izen artaz gogoratzen.

—Langille zahar bat ala?... atzerritik etorria?

—Langillea bai, erantzun zuen mutillak, gero ta larriago, ez ordea ain zaharra... atzerritik etorria, baita.

—Noiz sartua da eritegian?

—Bost bat egun, uste dut —erantzun zuen mutillak, kartari begiratu bat emanik.

---

(\*) “Cuore” italieraz idatzitako liburutik.



Erizaia pentsakor geratu zan unetxo batez. Eta gero bat-batean gogoratu izan balu bezela: —A bai!... laugarren aretoan, azkene-ko oia.

—Nola dago bera? Oso gaizki edo...? galdetu zuen mutillak ikarak pasea. Erizaiaik itzik erantzun gabe begiratu zion. Gero: —Atoz nerekin, esan zuen.

Bi zurubi-sail igaro zituzten; transitu luze baten azkenearno ibi-lli, eta bi oe-erreskada zeuden'areto bateko ate zabalaren aurrean arkitu ziran. —Etorri, birresan zuen erizaiaik, sartzen zalarik. Mutillak, bere izua garaiturik jarraitu zion, ezker-eskubiko gaxoen arpegi zurbi-lletara begikada bildurtuak zuzenduaz. Zenbaitek, begiak itxita, ilirudia zuten; beste batzuk, begiak zabal-zabalik, arri ta zur, ikaraturik bezela zetzaten; ba-ziran negar-muxinka zeudenak ere, aurren antzera. Illun zegoen gela-aundi hura, botika-usaiak kutsututa. Karidade-arreba bi batera ta bestera zebiltzan, bonbiltxoak zeramaz-kitela.

Aretoko azken txokoraño elduta, erizaia bertako oiaren buru-aldean gelditu zan, errezelak zabaldu eta esan zuen: —Emen duzu aita.

Negarrari eman zion mutikoak, ler-egin bearreko, eta pardeltxo erortzen utzita, eriaren sorbalda-gaiñean burua ezarri zuen, eta esku batekin oe-azal gaiñean luze-luze ta geldi-geldi zetzan, besoari eldu zion. Eria ez zan mugitu. Mutilla zutitu zan, aitari begiratu eta negarrari eman zion berriz ere. Gaixoa orduan, begira-begira gelditu zitzaion luzaro; ba-zirudien ezagutzen zuela; baña ez zituen ez-paiñak mugitu. «Tata» gaixoa! Itxura arrunt aldatua zeukan. Semetxoak iñola ere ezin ezagutu zezakean. Illeak zurutuak zeuzkan, bizarra luzea, arpegia gorri-gorri aunditua, larrua dirdaizu tiratua, begiak txikituak, ezpaiñak puztuta, begitarte osoa zearo eraldatua... ez zuen bererik, bekokia ta bekaiñekoa baizik. Neke-neke artzen zuen arnasa.

—Tata, tata nerea! —esan zuen mutikoak—. Ni naiz, ni, ez al nauzu ezagutzen? Ciccillo (1) nauzu, zure Ciccillo, baserritik etorria, amak bidalia... begira zadazu ondo, ezagutzen ba al nauzu? Iztxoren bat esan...!

Eriak baña, arretaz begiratu ondoren, begiak itxi egin zituen.

—Tata, tata, zer duzu? Semetxoa nazu, Ciccillo zurea...

—Gaixoa ez zan geiago igitu, eta arnas-estuka jarraitu zuen.

Orduan mutilla, negarrez, alkitxo baten exeri ta zai gelditu zan, begiak aitaren arpegitik aldendu gabe.

---

(1) Zezilio. Txitxilo esaten da.

—Sendagilleren bat etorriko da noizpait, ikustaldia egitera. Berak esango dit zer edo zer.

Eta bere gogorazio illunetan murgildu egin zan, aita onaren ainbeste esan-egiñak buru-biotzetan ausnartuaz... joan zaneko eguna, itxas-ontzian egin zion azken agurra... erbestera-aldi hura zala-ta familiak egindako amets alaiak... karta arrek amari eman zion atseka-bea... eta erioaren irudia gogoratu zitzaion, aita ilda ikusi zuen irudimenez, ama beltzez jantzita, etxeakoak mixeria gorrian... eta aldi luzean egon zan onela. Noizpait esku arin batek sorbaldan ikututa, bere senera biurtu zan. Moja bat zan.

—Zer du nere aitak? galde egin zion berealakoan.

—Aita duzu? esan zion arrebat, emeki.

—Bai, aita dut, etorria naiz-eta... zer du?

—Biotz on izan, mutiko! erantzun zion arrek. Sendagillea etortzedago.

Eta urrundu egin zan, besterik ezer esan gabe.

Ordu-erdi baten buruan, ezkillan baten otsa entzun eta sendagillea ikusi zuen, aretoren ondotik sartzen laguntzaille batekin. Bion atzetik, lengo arreba eta erizai bat. Asiera eman zioten ikustaldiari, oe bakoitzaren alboan geratzen zirala. Azkengabe iruditzen zitzaion mutillari itxedon-aldi hura. Sendagillea urrerago ta hura larriago. Eldu ziran noiz edo noiz aldameneko oeraño. Agure luze makurtu bat zan sendagillea; arpegia mena zuen.

Ondoko oetik aldendu baño len, Zezilio zutitu zan, eta hura bertaratu zaneko, negarrari ekin zion. Begiratu egin zion sendalariak.

—Gaixoaren semetxoa da, gaur goizean bere erritik eldua, azaldu zuen arrebak.

—Sendagilleak esku bat ezarri zion sorbaldan; gero gaixoaren gainean makurtu, pultsoa aztertu, kopeta ikutu ta arrebari galdera batzuk egin zizkion. —Ezta berririk ezer —erantzun zion onek. Eta orduan, unetxo batez gogoetatsu egonda.

—Jarrai bada, lehen bezela —agindu zuen.

Mutillak, bere buruaz nolabait jabetuta, negar-mintzoz galdetu zuen:

—Zer du nere aitak?

—Biotz on izan, semetxo —erantzun zion arrek, bizkarrean esku bat berriro ipiñiaz. Arpegiko dixipula bat du. Sendagaitza bada ere, ez degu itxaropenik galdu bear. Zaindu ezazu ongi, zu aldamenean ikusteak on egin lezaioko-ta.

—Bañan... ez nau ezagutzen...! oju egin zuen mutillak, naigabetua.

—Ezagutuko zaitu... biar nunbait! Uste on izan dezagun, biotza jaso!

Geiago ere galdetuko zion mutillak, baña ez zan ausartu. Eta sendagillea aurrera joan zan.

Orduantxe ekin zion mutillak bere gaixo-zaintzari. Besterik ezean, oe-estalkiak txukundu egiten zizkion, eskua noiz edo bein ikutu, eltxcak uxatu; gaixoaren antsi bakoitzeko aren gainean makurtu, eta arrebak edaria ekartzen zuenetan, katillua naiz kutxarea beroni kendurik, edaten ematen zion. Eriak noizpeinka begiratzen zion, baña ez zuen ezaguera-zantzurik erakusten. Ori bai, geroago ta luzarago begiztatzen zuen, batez ere sudur-zapia begien aurrean ipintzen zionetan. Eta onelaxe igaro zan lenengo eguna. Gabean, gelandiko txoko batean lo egin zuen, bi alkitxoren gainean etzanik; eta biaramoneko goizean bere errukizko eginkizunari lotu zan berriz ere. Egun artan ezaguera izpitxo bat piztu bide zan gaixoaren begietan. Mutillaren itz legun-maitekorrak ikututa-edo, esker-oneko dirdir xamur batek argitu zituen aren begi-niniak. Ezpainaik ere mugitu zituen bein batean, zertxobait esan naiean bezela. Lozorro-alditxo bakoitzaren ondoren, begiak zabaldurik, bere erizai koskorra billatzen zuela zirudien. Sendagilleak, bi bider igarota, obetoxe aurkitu zuen.

Arrats artan, basoa ezpain aunditueta urbiltzen ziola, irripar arin-arin bat ikusi zuen aietan; ala iruditu zitzaion beintzat. Eta mutilla pizkortzen, uste ona berotzen asi zan. Eta aditua izango zalako ustean —nahasi ta erdi aditua bederik— itz egiten zion, luzaro itzegin ere, amaz, arrebatoez, etxera itzultzeaz, eta itz bero-maitekorrez, aren biotza jaso-erazten saiatzen zan. Maiz askoan, ulertzen ote zion ezpazekien ere, itz egiten zion, iruditzen bait-zitzaion, eriak ala ta guztiz, alakoxe atsegiñakin entzuten zuela bere boza, mintzaira arrigarri, maitekor eta triste hura... eta era orretan igaro zan bigarren eguna, eta irugarrena, eta laugarrena, goraldi ariñak eta bat-bateko makalaldiak elkar jarraika. Mutillak, ain zegoen bere arazoan murgildua, ez zuen kasik txastatzen mojak egunean bi aldiz ematen zion ogi ta gazta puska; eta etzan kasik konturatzen bere inguruan gertatzen zanaz: azken-arnasetan zeuden eriak, arrebak gabaz egin bear zituzten lasterkaldiak; itxaropena galduta irteten ziran bisitalarien negarrak eta espantuak, itz batean, Hospitaletako gertaera mingarri eta lazarri aiek guziak, beste noizpaitean arriturik eta ikaraturik utziko zutenak. Orduak joan, egunak etorri eta bera beti bere artan, tataren ondoan, ardurati, kezkatu, beronen suspirio eta begiraldi bakoitzeko biotza pil pill jartzen zitzaizolarik, arima lasaitzen zioten esperantzak eta biotza larritzen zioten etsimenduak bere barrua eten gabe asaldatuta somaturik.

Boskarren egunean bat-batetan eria gaizkitu egin zan. Sendagi-leak, aztertu-eta, burua jiratu zuen ezker-eskubira, arenak egin zuela adierazteko itxurak egiñaz; eta mutilla, alki gaiñean bertan-beratua, negar-zinkurinka asi zan. Gauza batek alaere miña gozatzen zion, alegia, naiz eria gaizkiago egon, arri iruditzen zitzaion ezagueraren argi-izpi bat ba-zetorkiola, polliki-polliki. Gero ta tinkoago ta goxoago begiratzen zion mutillari; ez zuen edarerik ez botikarik artu nai, arengandik ezpazan; eta geroago ta maizago egiten zuen ezpafiñarekin arako mugimentu ariñ hura, itzen bat esan nai ba-zukean bezela. Ain nabarmenki egiten bait-zuen alditan, mutillak besotik bizikiro eltzen zion, bat-bateko itxaropenak zuzpertia, eta onela esaten zion, poz-urrengo mintzaera batez: —Biotz on, tata, biotz on izan, sendatuko zera, itzuliko gera etxera amatxokin, biotz on oraindik ere!

Arratsaldeko laurak ziran. Mutilla arkitzen zan ain zuzen, xamur-aldi, itxaropen-aldi aietako batek menperatuta; alako batean, aretotik urbillen zegoen atetik zear, pausu-otsa nabaitu zuen, eta gero boz ozen bat... bi itz soil-soillik: —Ikusi arte, arreba!... oiek entzunda, zutitu egin zan, karraxi bat eztarrian itoaz.

Aldi berean gizon bat, eskuan pardel aundi bat zeramalarik, aretoan sartu zan, moja bat atzetik zijoakiola.

Mutillak deadar zorrotz bat egin zuen, eta lekuan josita bezela gelditu zan. Gizona jiratuta, begiratu zion apur bat eta berak ere egin zuen karraxi: —Ciccillo! —arenganontz laisterka zijoan bi-tartean.

Mutilla aitaren besoetan erori zan, itobearrez.

Mojak, eri-zaiak, laguntzallea, danak inguratu ziran eta han gelditu, arri egiñik. Mutillak ezin zuen bere boza arkitu —O Ciccillo nerea! oju egin zuen aitak, eria-aren gaiñera begiratu kontuzko bat bota ondoren eta mutikoa bein da berriz musukatuaz— zer izandu duk au? Beste gaixoaren oiera eraman aute! Eta ni emen, etsi-etsi eginda, amak «bidali dut» esanaz idatzi zuenez gero... Ciccillo gai-xoa! Noiz ezker ago emen? Nola gertatu duk olako naspilla! Ni, neke andirik gabe aterea nauk onik... zutikan ederki natxeoak beñe-pein... Eta Cencetella? Eta «u'nenillok? (2) nola zeudek? Ni baniak eritegitik. Goazemak ba... O Jaungoiko maitea! Nork esan bear zuen!

Mutillak doi-doi esan ahal zituen itz batzuk, etxekoen berri emateko. —Bai pozik nagoela, bai pozik nagoela! Oiek egun gaiztoak

---

(2) Umetxoa.

igaro ditut! —Eta aitari musu ta musu, amaitu ere gabe. Baña... ez zan mugitzen.

—Etorri ba, esan zion aitak. Illundu orduko etxean gaituk... goazemak... —birresan zuen, beregana tiraka.

Mutilla biurtu zan bere gaixoari begiratzera.

—Bañan... etorriko aiz ala ez? galdetu aitak, arriturik.

Mutikoak beste begiraldi bat zuzendu zion eriarri; onek ain zuzen, begiak zabaldu ta arengan josi zituen. Eta itzjario ixuri zitzaion orduantxe Zeziliori, arima barrentik ugari.

—Ez, tata, itxoin zazu... ara... ezin dut. Orra agure ori. Bost egun egin ditut emen. Beti dago neri begira. Zu ziñala uste nuen-eta, nik... asko maite nuen... beti neri begira, nik edaten ematen diot... beti bere ondoan egotea nai du... orain oso gaizki dago... izan zazu pazientzi apur bat, eztut joateko kemenik... eztakit, pena aundi-aundia ematen dit... biar itzuliko naiz etxera, utzi zadazu beste pixka bat gelditzen... itxusi litzake orain uztea. Ikusi, nola begiraten didan... nor ote dan eztakit, baña maite nau, bakarrik ilko litzake... utzi zadazu geratzen, tata maitea...

—Ori duk, ori, «piccerello» (3) oju egin zuen laguntzalleak.

Aita zalantzakor geratu zan, mutillari begira; gero gaixoari. Eta galdetu zuen:

—Nor da bera? —Nekazari bat, zu bezela —erantzun zuen laguntzailleak— atzerritik etorria, zu sartu ziñan egun berean sartua. Korderik gabe ekarri zuten eta ezin esan zuen itzik ere. Urrutiko familiren bat izango du bear bada, semeak eta... zure ori beretako bat dala uste izango du...

Eriak beti ta beti ere mutillari begira. Aitak orduan Zezilio'ri: Geldi adi —esan zion.

—Gutxirako geldituko da... esan zuen laguntzailleak aopean.

—Geldi adi —birresan zuen aitak. —Ik duk biotz. Ni bereala niak etxera, ama lasaitzera. Tori eskudo bat ire gastuetarako. Agur, semetxo bioztun ori. Laister arte.

Besarkatu egin zuen, bizi-bizi begiratu, beste musu bat bekokian eman eta abiatu zan kanpoaldera.

Mutikoa oe-ondora itzuli zan, eta eria lasaitu egin zan, antza. Eta Zezilio berrero ekin zion eri-zaintzari, oraingo ontan negar egin gabe ordea, bañan lengo ardura berberakin alaere, lengo pazientziarekin. Berriz asi zan edariak ematen, oe-azalak txukuntzen, eskuan maite-maite egiten eta goxokiro mintzatzen, aren biotza zuzperzte-

---

(3) Mutiko.

ko... Egun artan guzian zaitu zuen, baita gau osoan ere, eta ondoan gelditu zitzaion biaramunean oraiño. Baña gaixoa gero ta gaizkiago zijoan; bere arpegia moretuago zegoen, arnasa nekozuago, bere ezin-egona aundiago; abotik ots itxuragabeak irteten zitzaizkion, arpegiko aunditasuna ikaragarri egiten zan. Arratsaldeko ikustaldian, gaba etzuela pasako esan zuen sendagilleak. Orduan Zezilio arretatsuago eman zan zaingoari, begiak miñutu bat ere aren gaiñetik aldendu gabe. Eta eria begira ta begira, ezpainaik mugitzen zituen noizpeinka, neke aundi-aundiz, zerbait esateko bezela; eta ezin esan alako begiratu goxo-goxoa agertzen zan noizetik noizera bere begietan, txikia-gotuz eta lañotuz zijoazen begi-nini aietan. Gau artan zaindu zuen mutikoak, egunaren lenengo argi-printzak leioan azaldu eta arreba eldu zan arte. Arreba oera alderatu zan, begi-ukaldi bat eman zion gaixoari eta joan egin zan antxintxika. Andik gutxi barru agertu zan berriz, sendagille laguntzallearekin eta erizai batekin, onek esku-argi bat zeukala.

—Azkenekotan dago —esan zuen osagilleak. Mutikoak eriazen eskuari eldu zion. Onek begiak zabaldu, begiratu zion eta itxi zituen. Une artantxe iruditu zitzaion mutillari gaixoak eskua estutzen ziola. —Eskua estutu egin dit! oju egin zuen.

Sendagillea apur batean gaixoaren gaiñean makurturik egonda, zuzendu zan. Arrebak gurutze bat artu zuen paretetik. —Il da! oju egin zuen mutillak.

—Ba-zoazke, semetxo —esan zuen sendagilleak. Zure lan santua burutua duzu. Zoaz eta ongi izan, merezi duzu ta. Jainkoak zaituko zaitu. Agur...

Moja, alditxo batez aldegiña itzuli zan, bioleta-sorta bat, leioko ontzi batetik artua zekarrela, eta eman zion mutillari, esanaz: —Ema-teko besterik ez dut. Tori au, eritegiaren oroipenez.

—Eskarrik asko —erantzun zion mutillak, sortatxoa esku batekin elduaz eta bestearekin begiak igortziaz— baña, bidea ain luzea dut... ondatuko nituzke. Eta sorta askatu ta bioletak sakabanatu zituen, onela esanaz: —Nere il gaixoaren oroitzez utziko ditut. Eskarrikasko, arreatxo, eskarrikasko, doktore jauna. Eta gero, ildakoaren aldera biuriturik: —Agur... —eta izenen bat arleri emateko billatzen zuela, biotzetik ezpainaetara etorri zitzaion, bost egun aietan ainbeste aldiz emandako izen goxo hura: —Agur, «tata» gaixoa...

Au esanda, bere arropa-pardeltxoa galtzarbean artu zuen eta astiro astiro, neka-neka eginda, alde egin zuen.

Egun sentia zan...

R. BOZAS-URRUTIA'K  
*itzulia.*

## Don Kamilo ta Bataioa (\*)

Egun batez, don Kamilo eskallera batera igota zegoen, San Jose'ren irudiari koroia garbitzen, argi-argi utzii naiean; ta orra, gizon bat eta bi emakume elizan sartzen dirala. Aietako bat, Pepeno'ren emaztea zan (1). Buruja jiratuta galde egin zien etor-berrieri ea zer nai zuten. —Bada emen zerbait, bataio-bearra duena, erantzun zuen gizonak. Eta emakume batak pardel bat erakutsi zuen, aurtxo bat barruan zeukala. —Nork egiña da ori? don Kamilo'k galdetu zuen, eskalleratik jetxiaz. —Nik, erantzun zuen Pepone'ren emazteak. —Zure senarrarekin ala? —Ez, zurekin! Ara bestea berriz! Zer uste duzu, zuk? egin zuen arrek, asarre bizian. —Ez dago asarretzeko zerik, esan zuen don Kamilo'k, sakristiara zijoala; zerbait entzunik nagc ni, zuen partidu orretan maitasun librea edo onartzen duzutela ta... Aldare-aurretik igaroaz, burua makurtu ba begi-keiñu bat egin zion Jesusi. —Aditu al duzu? esan zion aopean ta bere poza ezin gorderik, ziri ederra sartu diet orain Jainkogabe petral oieri, bai orixe! —Ez esan astakeririk, don Kamilo! erantzun zion Kristo'k suminduta. Jainkogabe izan balira ez zuten beren aurtxo ba-taiatzera ekarriko. Pepone'ren emazteak masailleko bat eman balizu, ondo merezia zenduen bai. —Pepone'ren emazteak arpegian ikutu baldin ba-nindu, nik iru oik batean garrondotik eldu eta... —Eta, zer? galdetu zuen Kristo'k, zorrotz. —Ba... deus ez; esateagatik esan dut, erantzun zuen don Kamilok presaka ta jeikiatz. —Kontuz ibilli, don Kamilo!

Gero, bear bezela jantzita bataio-ontzira urreratu zan. —Nola jarririko diogu izena? galdetu zion Pepone'ren andreari. —Lenin, Li-

(\*) "Mondo piccolo. Don Camilo" italieraz idatzitako liburutik.

(1) Gogora gaitezen Pepone erriko komunista-alderdiko buru, ta bertako alkate zala (itzulg. oarra).

bero, Antonio, erantzun zuen onek. —Orrela bada, joan zaitezte Errusia'ra, an bataiatu dezaten, esan zuen, geldi-geldi, don Kamilo'k ontzia estaliaz. Talo-pala ainbateko eskuak zituen apaizak, eta iru lagunak, txintik atera gabe, irten ziran elizatik. Don Kamilo orduan sakristia aldetik izkutuka joaten saiatu zan, baiña Kristo'ren bozak gera-azi zuen. —Don Kamilo, orain bai dollorkeri aundia egin duzula! Tira, lagun oiei ots-egin eta bataiatu umea. —Jesus, erantzun zuen arrek, etsi-eziñik; gogoan artu bear duzu gero, bataioa ez dala txantxetako gauza; bataioa, gauza sakaratu dala; bataioa... —Zer da ori don Kamilo? bataioa zer dan erakutsi nai didazu edo? Asmatu duenari berari erakutsi? Berriz esaten dizut makur aundi-aundia egin duzula; irudi egizu umetxo ori bat-batean iltzen dala; Paradisuan sartzen ezpada, zure errua izango da orduan. —Jauna, ez dezagun alperreko dramarik egin. Zer dala-ta il bear luke ume orrek? Arrosaren antza du, presko-presko ta zuri zuria... —Ori etzaio ajola, marmar egin zuen Kristo'k; tellaren bat buru-gaiñera erori, naiz gorputz ikarak usterik gutxienean arrapatu... hura bataiatzea duzu eginbearra, don Kamilo. —Eta onek, besoak altxaturik: —Baiña Jauna, pentsa zazu pixka bat: ume ori infernura zijoala bageneki ziur-ziur, amor eman genezake; baiñan, baliteke Paradisuan sartzea, naiz ta olako erremintaren semea izan; eta orduan Jauna, nola naiko duzu nik olako «erregalua» biali dezaizudan? Lenin izeneko bat nai ta naiez zuregana bialtzea alegia? Paradisuaren izen ona daukat gogoan, nik... —Paradisuaren izen ona nere egitekoa da, esan zuen Jesus'ek, garratz; gizaki onak izan ditezela, orra ni arduratzen naue-na; ortaz kanpo, berdin da Lenin deitua izan, naiz Bottone deitua izan. Ezer egitekotan, auxe sartu bear zenion buruan jende orreri, alegia, olako izen arraruak ume bati ipiñi ezker, istilluak eta trabak sortu dakizkiola gero, aundi egiten danean. —Ederki ba! erantzun zuen don Kamilok. Nik beti errua. Alegiñak egingo ditut ordea oker egiña zuzentzen. Itz oiek esan zituenekoxe, norbait sartu zan elizan. Pepone zan, umea besoetan zekarrela. Atea morroilloz itxi zuen, eta: —Enaiz emendik irtengo —esan zuen— nere semea bataiatua izango dan arte, nik aukeratutako izenarekin bataiatua. —Orra jauna, esan zuen aopean don Kamilok. Ikusten nolako jende klasea dan ori? Egin zak on... ostikoa artuko duk... —Jarri zaitez aren lekuan; aren postura konprenitzen saiatu bear dugu, onartzen ezpadugu ere. Don Kamilo'k ordea burua astindu zuen, etsi-gaitz. —Berriz ere diot —ojukatu zuen Peponek— ez naizela emendik aldenduko alik eta nere semea bataiatuko duzun arte, nere gogora bataiatu ere. Eta aurtxoa alki batean utzirik, txamarra erantzi, alkandoraren maukak jaso zituen eta don Kamilo'gana urbildu zan, bera jotzeko itxura gaiztoan. —Jesus! otoizkatu zuen onek, zuri nagokizu! Bidezkoa ba-derizkiozu



edozein gizonek zure apaizetatik bat indarka artzeari, egin bedi zure naia, baiña ez arritu ta ez errenkuratu gero, baldin alako batean norbaitek txekor bat ekarri ta bataiatzera beartzen ba-nau! Bein amor eman ezkeru, beti amor eman bear eta... —Bai noski. Baiña zuk bitartean konpreni-azi bear zenioke... —Eta berak muturjoka erasotzen banau? —Orduan artu itzazu muturrekoak, don Kamilo; burutu ta sufritu ukaldiak, nik bezelaxe. Don Kamilo'k, Peponeri buruz: —Ongi da, Pepone, esan zion; zure aurra bataiatua irtengo da emendik; ez ordea, zorigaiztoko izen oiekin. Ez iñola ere! —Don Kamilo —kurrunka egin zuen Peponek— gogoratu gero, sabela minberatuta dudala oraindik, gerratean eta mendian jo ninduen bala hura dala kausa; begira gero azpiko kolperik ematetik, edo-ta bestela alki bat artuko dut nik, eta... —Egon lasai, Pepone, danak ganbara aldean sartuko dizkizut. Eta au esanaz zartako bat galanta zuzendu zion belarri ondora.

Bata gizakote mardula bazan, bestea ez zan makala; besoak ere burnizkoak zituzten, eta orrela dinbi-danba alkar joka asi ziran bero bai bero, aideari txinpartak ateratzen zizkiotela. Ogei bat miñutuan gisa ontan, su ta gar eta ixillik aritu ondoren, onadon Kamilo'ren belarrietara eltzen dan boz bat, argi-argi onela esaten ziona: —Eup, don Kamilo! matraillean emaiok! Aldareko Kristo'ren boza zan. Baita don Kamilo'k eman, eta Pepone'k lur-jo zuen, patata-zaku baten antzera. Bertan bera gelditu zan amar bat miñutuan; gero jeiki, kokotza igurtzi, txamarra jantzi, lepo-zapi gorriaren korapilloa txukundu, ta umetxoa jaso zuen. Don Kamilo zai zegokion ordurako, tente-potente, bataiontzi-ondoan, arkaitza bezin zut eta irme. Pepone urreratu zan astiro. —Zein izen jarriko diogu? apaizak galdetu. —Kamilo, Libero, Antonio, esan zuen besteak, ortz-artean. —Ori ez! Deitu dezagun Libero, Kamilo, Lenin... Bai, baita Lenin ere! Olako bi oiek, Kamilo bat erdian dutela, ez dira bat ere bildurgarriak eta!

Gero, elizkizuna bukatuta, don Kamilo aldare aurretik igaro zanean, Kristo'k irri-parrez onela esan zion: —Esan bearrrik ezta, don Kamilo, politika arazoetan ni baño maixu obea zerala... —Baita muturreko-gauzetan ere, Jauna, erantzun zuen, serio-serio don Kamilo'k, kopetean zeukan txori aundi-aundi bat igurtzitzen zuen bitartean...

R. BOZAS-URRUTIA'K

*itzulia.*

## *Aitona eta billoba*

Eguerdian, karteroak Mitxelena jaunaren atean jo zuenean, alaba bidaldu zuen aitonak kartaren billa. Inñondik ere, Bergara-ko seminario txikian ikasten ari zan illoba txikiaren karta zan. Astero haren karta artzen zutelako edo, aitonak ez zien inportantzia aundirik ematen haren kartei.

Minutu bat barru, sukaldean zan alaba. «Aita, Tolosa-tik dator karta». Aitonari begiak argitu zitzaizkion. Eskua luzatu zuen, eta alabari gogor xamar begiraturik, karta kendu zion. Belaunen gainean zedukan manta gorri-beltza bota bazterrera eta naiz eta otz egin, bolalekura atera zan karta irakurtzera.

Bi billoba zituen aitonak: Bergara-n bat, Tolosa-n bestea. Karta hura Tolosa-tik eldu bazan, norentzat zitekean aitonarentzat ez da?

Irurogei ta lau urte hortxe hantxe zeduzkan aitonak. Irurogei bete arte Beasain-go fabrika aundian ibilli zan lanean. Beste bost geiago egin zitzakean eta erretiro ohea zukean, bainan atera zuen arrazoirik asko eta aitzakiarik frango lana uzteko, eta arrezkero billoba txikiarekin, Tolosa-koakin, ibiltzen zan beti. Udaberrian arrantzan ibiltzea zuen maite eta udan inguruetakoko mendi kaskoetan perretxikuen billa ibiltzea. Burua zuriturik zedukan, bekokia marmolezko pareta iduri, bibote txuri-oria eta eskuak aundi eta illetsu. Pipa aoan.

Silloi aundi bat artu eta karta eskuan zuela exeri egin zan. Bainan esan bear dugu, silloiean exeri aurretik, ardo xorta bat edan zuela, bestetan ez bezela. Billobaren kartak irakurritz gero halakoxe sua sentitzen zuen barruan, ardoak piztenago baitzion emozio hura. «Inñondik ere... inñondik ere Xalbador-en karta da. Gaur asteazkena... beraz... hemendik bi egunera... iru egunera hemen izango dut.» Karta iriki zuen.

Bi urte zeramazkien Xalbador-ek Tolosa-ko eskolapioetan. Amabi urte zeduzkan. Aurpegia txuri, belarriak xut, sudurra xuxen-oker antxa, ezpainañak mehe. Triste xamarrak begiak... urrutira eta puntu batera bakarrik *zorrotzurik* oi dituztenak bezela... noizik bein bakarrik argitzen zitzaizkion begiak, ost, kolejioa utzi eta etxerako preparatzen zanean.

Tolosa-ra eraman aurretik, Jainkoak daki ez beste inork, zer zalapartak atera zituzten aitonak eta suiak. Atera zitezkean aitzakia guztiak bere zituen aitonak: gazteegi omen zan kolejiora eramateko, gorputzez aul, eta hura joanez gero ez omen zan etxean geldituko landare berriak zain zitzakeanik inor. Bainan, gurasoek ahalegiñak eginda'ere ez zuten landare berririk ekarri. Aitonak etsi zuen eta Tolosa-ra eraman zuten, Xalbador. Kondizione batekin halaz ere, ots, amabostean bein, larunbatetan etxera ekarriko zuten, berriz, astelenean hara biurtzeko. Aitona bera joango zan Tolosa-ra eta ekarriko zuen.

Billobaren karta artu zuenean ez zuen itzik egin. Besteak ere ez zioten ezertxo ere galdetu. Beatzak dardaraz zeduzkala iduritu zitzaion. «Pakeatuko dira» esan da, sobrea iriki zuen.

«Aitona: Gaur astelena da eta laister dator larunbata. Ez dakizu nolako poza eta deseok dauzkadan egun hori lenbaitlehen el dedin. Trena ez galdu gero! Aitona!... aitona!... entzuten al nauzu?»

—Entzuten aut bai eta ondo ari aiz. Ez diat trena galduko ez, eta garaiz asko joango nauk kolejioko atera. Ordurako preparatuta egon! Binbitartean ago lasai gaixo hori!

«Bueno ba. Datorren larunbata ezkerro as diteke arrantzan. Amar terdietako tranbian etortzen bazera, ordubatean hor izango gera. Bazkaldu eta bostak aldera arrantzara joango gera. Nere ustez, igaz gutxi xamar atera genuen, eta, aurtan egongo da amorrarik. Egia da bai, aspaldi honetan ez duela eberik egin, bainan, halaz guztiz ere, Gaur Tolosa gainean ageri da odei mordo txuririk eta Ñañarrira ordurako lehertuko balira, urak zikinduko lirake eta berriz larunbaterako pixka bat garbituko. Euriondoa bezelakorik ez dago arrantzarako. Egia al da aitona? Entzuten al nauzu?»

—Entzuten aut bai, eta egia osoa diok.

«Arrantzara baiño lehen, txixareak bilduko ditut. Zu zaude lasai. Zahartuxe zaude eta ez zaizu komeni bizkarra geiegi makurtzea, bestenez gerriko miña berrituko litzaizuke eta. Nik ba dakit nun dagoen ugari eta aundirik. Horiek dira onenak. Ahal dudalarik, gorri-antxak bilduko ditut eta ez oillategian aurkitzen diran txuri horietakoak. Horiek obeak dira udan zozoarrak arrapatzeko. Amorrainak obekigo ikusten du txixare gorria eta gogozago eltzen dio. Honela al da aitona? Entzuten al nauzu?»

—Entzuten aut bai eta gaiñera arrazoi osoa daukak.

«Zuk ziesta egin bitartean, Goikoetxe-ko Pedro Joxe-ren atxurra-ekin txixare billa joango naiz. Kamiñeroaren atxurra aitarena baiño obea da, ezpainez zabalagoa baita eta golpea botatzen danean txixare gutxiago ebakitzen baita. Amorrainak naiago du txixare bizia eta ez guk, igaz, noizean bein ematen genizkien erdibitu haiek bezelakoak. Horrengatik etorriko giñan hainbeste aldiz musu utsik! Ni horrera baiño lehen pote bat billa ezazu. Txixareak barruan pillatzeko da, ezkapa ez ditezten. Ez dago lurrez bete bearrik... gero ere izango dute lurrik, arrapatzen ditudan bezelaxe lur eta guzti bere hartan sartuko baitituzte barrura. Baina txulo txiki batzuk egin izkiozu poteari txixareak arnasa pixka bat ar dezaten, bestenez errekarra baiño lehen ittoko baizaizkigu. Zuloak ez ditezela izan zulo, txulo baizik, aundiegia egin eta iges egin ez dezaten! Aitona!... aitona!... Konprenitzen al duzu?»

Aitonak, eskua begietara eraman zuen, baina inor ikus ezan bildur baitzan, behera jetxi zuen; ukabilla itxi zuen eta gogor erantzun zuen oraingoan, denak entzuteko moduan:

—Konprenitzen diat bai eta ezagun duk zerbait baiño geiago ikasi deala Tolosa horretan... Honezkeru naikoa eta geiegi ere ba dakik, eta nai izan ezkeru... (aurpegia zimurtu zitzaion eta begiak brilluz bete), nai izan ezkeru, datorren urtean etxean geldituko aiz.

«Txixare txiki txiki txikiak ere bildu bearko ditut. Kordelak botatzeko ezkaluak bear dira. Amorrainak txixarea maite badu ere, aingirak naiago du ezkalua. Txixare txiki txiki txikirik billatuko banu laister nuke nai hainbat ezkalu. Horretarako ere bearko dugu potarik, baina, aitona!, txulo txiki txikiakin... katuaren begi ninia bezin txulo txiki txikiakin. Goikoetxe-ko Pedro Joxe-ren atxurraen bearrik ez dut txixare txiki hauek biltzeko, ezkaluari berdin baitaio txixarea illik hala bizirik egon. Ni Tolosa-ra ekarri ninduzunean, bazaltzekoan bi melokotoi pote ustu genituen ba? Amak seguru asko, melokotoi pote horiek oillategian utziko zituen... aski dukezu beraz haiek artzea eta txulo txikiak —oso txikiak gero!— egitea. Egingo al duzu, aitona?»

—Orduan bi bezela, honera betirako etortzen aizenean lau pote melokotoi ustuko dizkiagu eta gaiñera beste lau sobratuko dituk, eta naiko pote eta naiko txulo txiki izango duk txixareak pillatzeko.

«Ezkaluak atxeman eta bereala, kordelak botatzera joango gera. Urak arreak al daude? Hemen Tolosa-n ikusten diran odei mordo txuri hauek Ñañarri aldera joango balira, arretuko lirake larunbaterako... Zuk ba da ez ba da ere jarri bota luzeak, bestenez busti egingo zera eta. Nun botako ditugu kordelak? «Osin aundin» eta «Osin txikin» ez dakit balio duken kordelik botatzea. Igaz ere amai-

katxo kordel bota genuen paraje horretan, bainan ez kordel eta ez aingira gelditu giñan. Oso ur aundiak daude zoko horietan eta han dauden aingirak ere ez dira nolanaikoak izango... ni seguru bainago gure kordel, amu, ezkalu eta arri hango aingirek koba zulora eramán zutela. Onen onena, beheretik gora astea izango dugu. Zaldibarren-go zubitik gora as gaitezke. Zer deritzazu?»

—Ik esaten dean bezelaxe egingo diagu.

«Zubitik gora dagoen biurgunean egoten da aingira ederrik, baita ere amorrainik. Oroitzen al zera, igaz nolako amorraina atera genuen? Aurten ere honelakoxe bat eroriko balitz!»

—Ondotxo oroitzen nauk bai, bainan aurten ez duk eroriko, Billafranka-ko Eskisabel-ek atzeman bai dizkik zeuden guztiak. Ez zekiat zer egiten duten Errikoetxeok, iñori Zaldibi-ko ibaian sartzen uzteko. I aundi izandakoan, gutxienez alkate egingo aute eta ez iok iñori muturrik sartzen utzi.

«Bigarren kordela Zugazti-ko errebueltan botako dugu. Ura bizi xamar dator bainan biurgunearen arrimuan ba da putzu bat eta han ur geldia dago, batere zurrunbillorik gabe. Han aingirarik erortzen ez bada ez dakit nun eroriko dan!»

—Ez zekiat ba!... Obe uen honelakorik esan ez bauen. Eroriko ezbalitz, zer? Ez al aiz tristetuko?

Begiak itxi zituen, biotza, pozaren ondoan askotan gertatzen dan bezela, bildu zitzaion, bainan bere hartan jarraitu zuen billobaren karta irakurtzen.

«Irugarrena etxe ondoan botako dugu. Zaldibi guztian ez da leku oberik. Lizarraga-ko soro barrenean esan nai nuke, ura bi puska egiten dan lekuan. Alde batetik losa ederrik ba dago eta beste aldetik area nun nai. Zuk askotan esan didazu, aretan zulo egiten duela aingirak eta gero hantxe gordetzen dala; zuk beti egia esaten didazu eta, jakiña dago, aretan gordetzen bada losa azpietan are errezago gordeko dala. Beraz, han bi kordel botado ditugu. Oroitzen al zera aitona, igaz atera genuen aingira aundiena hortxe atera genuela?»

—Aundiena bakarrik izan balitz, utsa! Beste iñon baiño geiago ere bai. Arrazoi osoa daukak eta ik nai izan ezkeru, iru botako dizkiagu. Bainan ator lenbaitlehen etxera!

«Bostgarrena etxetik gora dagoen putzuren batean botako dugu. Nun? "Osin aundin" eta "Osin txikin" bota diteke, bainan ni bildur naiz. Zela-ko errebueltan ere leku politik ba dago, bainan nik al dakit zer gertatzen dan! Orain arte bota dugun guztietan, nik ez dakit zer arraio!... aingirarik ez dugu sekula atera eta aldioroz ezkalua janik aurkitzen dugu. Ez dute ba igelak eta zapoak, gaua baino lehen, ezkalua jango!»

Ortzak ikusi zitzaizkion aitonari. Parre txikiak egiten zituen... pipa eskuan artu eta berriz ere lehengo lekuan ezarri zuen, belarri ondoan alegia.

—Ez motell! Ba zegok beste zaporik eta igelik! Lehenago ere esan nian zergatik zan bainan ahaztu bide duk. Izan ere, liburuak illundu besterik ez die egingo burua. Obe uke lebaitlehen etorriko baintz! Amorraikumeak kaska kaska narrutzen die ezkalua. Bainan guzti hori, datorren larunbatean obekigo esplikatuko diat.

«Nere ustez, asko da kordelik. Gorago ere ba dago putzurik, bainan biaramonean Arkaka-ra joatezkeru, ez genuke astirik denak ateratzeko. Bost kordelekin aski dukegu beraz, aitona. Zer deritzazu? Entzuten al nauzu?»

—Entzuten aut bai... hementxe egongo baintz bezelaxe. Ik esaten dean bezelaxe egingo diagu. Itz egin bakarrik ez, eskribitu ere gizonak bezela egiten duk. Honezkero naikoa eta geiegi ere ikasikoen eta beraz, datorren urtean etxean geldituko aiz.

«Dagoaneko aita gureak erreztatzen asita nago. Ba dakit bai, kordelak ateratzen diran egunean, goizean goizik bear dirala errezatu... bainan zer nai duzu! Dana dala igande goizean, jeiki aurretik, berriz denak errezatuko ditut. Kordel bakoitzari bi aita gure; denera, amar aita gure. Gaizki ari naiz: etxeko biurgunean, bestetan ez bezelako luzea botako baitugu iru amuekin, harentzat iru aita gure. Labur: amaika aita gure denera.

Zenbat aingira aterako ote dugu? Bizpairu? Ez legoke txarki! Ba dakizu, eldu dan igandean, amaren urte betetze eguna dugula. Aingira bat aski genuke bazkaltzeko. Aingira bat eta lau amorrain. Biekin ere aski genuke, mataderitik behera ibilliko bagiña: hor atxemaiten diranak oso aundiak baitira... bainan zer nai duzu! aundi badira ere, ez dira oso fiñak eta obe dukegu Arkaka aldera joatea. Zubiondo-tik gora ba dago beltzik eta fiñik! Eguna zabaldu orduko aingirak atera, sei t-erdietako D. Grabielen meza entzun, eta zu bota aundiekin eta ni bota txikiekin, gosari legea egin-da berealaxe asiko gera txixare, kaña eta amuekin amorrainak ateratzen. Pote txikia, txulo txiki txikiekin billatzea ez ahaztu, bestela txixarerik gabe aurkituko giñake eta. Aitona!... aitona!... entzuten al nauzu?»

—Bai! Ondo ederki ari aiz eta ik esaten dean bezelaxe egingo diagu. Txakurra ere eramango diagu. Bainan... ez zekiat baino... onenean... larunbatean etortzea baino ostiral arratsaldean etortzea obe izango uke. Honela, denbora geiago genikek kordelak eta preparamatzeko. Ik ez dakik bainan, lehengo batean ire kaña gorria grisez pintatu nian. Kolore berriaz, gustatuko aizela uste diat.

Aurrera begiratu zuen aitonak eta bolalekuko arbolak kontatzen ari zala zirudien... Bat... bi... iru... lau... Bainan ostiral arratsaldean etorriko balitz?... bat... bi... iru... Ogei ta lau... berrogei ta zortzi... irurogei ta amabi ordu barru... Eztarria garbitu, eskuak bata bestearen kontra txokatu eta paperera zorroztu zituen begiak.

«Bueno. Orain beste kontu batzuek kontatuko dizkituzt. Ez dakizu lehengo batean Tolosa-ko parte zaharrean zer gertatu zitzaidan! Osteguna zan, eta, kalera ateratzeko baimena eman ziguten fraileek. Banijoan, banijoan... erreka ondoan ezkaluei begira bezela hemen kale erdiko automobilei begira, eta, halako batean bai al dakizu zer ikusi nuen?»

—Ez zekiat zer ikusiko uen, bainan dana dala, pozten nauk.

«Denda bat, denda bat aundia, Mariaundine-koa baino aundiagoa. Luze-labur gure dispentsa lau halako. Barrura sartu ez sartu sudurra kristalaren kontra zapal eginik nengoelarik, gizon xahar bat atera zan kanpora eta barrura sartu nai al nuen galdegin zidan. Ez da amorrainik zuloan aguroago sartzen. Han zer ikusi nuen ez dago esaterik. Arritzeko ere ba da! Denda guztiak iru pareteko zirala uste nuen, bainan harek lau ere bazitukean, dena kaña luzez inguratuta. Zer zan hura! Arrantzarako zer nai tresna saltzen zuten. San Telmo-ra fraileekin joan giñanean baino ondotxo pozikago egon nintzan denda hartan, zutik, trabeska, zintzilik, erori ez erori zeuden, kaña, txinga, sare, butroi, kordel, karrete, pita, garramintz, eta nik al dakit zer geiago! denei begira. Kolore guztitako kaña zegoen. Ba zegoen berderik, grisik, beltzik, oririk, arrerik, zuri-beltzik... denetarik! gorririk ez nuen ikusi! Arritzekoa da! Prantzia-tik ekarririk zituztenak, apartekoak ziran. Ez dute parerik! Nola duen nere kaña gorriak, eta zureak ere, aria kanpotik ezarria? Ba... ba... sinets nazazu aitona. Prantxes horiek, kañaren barrutik daramate aria... honela erre-xago botatzen da amua eta ez dago sasitan katiatzeko bildurrik. Honelakorik bagenu, bai al dakizu zenbat eta zenbat amorrain beltzik eta finik atxemango genukean? Denak probatu nituen. Denak ez... bainan... Askok eta askok, frantxes horiek batez ere, batere pixurik ez dute. Amorrainak honelako kañari eltzen dionean, zer dardara gozoa sentiko dan besoan! Prezioa galdetu nion gizon xaharri. Bederatzireun pezta balio zuela bakoitzak, erantzun zidan. Pena ederra artu nuen!

Amutan ere ba zegoen pilla ederrik. Zuk bein baino geiagotan esan baitidazu, Arkaka aldean diran amorrain beltzak atxemaiteko obe zenukeala amu txikiagorik bazenu? Oroitzen al zera, lehengo astelenean zortzi bost pezta eman zenizkidala?»

Zerbait sumatu zuen aitonak... beatz aundia eraman zuen begietara eta malko mardul bat erretiratu zuen sudur ondotik eta gero ezpafiñera eraman zuen beatz aundia.

«Ba... bost pezta haiekin iru amu txiki erosi nituen. Gustatuko ote zaizkitzu? Gustatuko ez balitzaizkitzu, urrengoan zuk gogo zenitukeanak erosiko dizkitzut.»

Aitonak zerbait esan naiko zukean, bainan eztarrian txistu mehe mehea katiatu zitzaion eta doi doa esan ahal izan zuen: Nere... gust... izangoitt... bai... etorri adi... lenbaitle...

«Pena ederra artu nuen kanpora atera nintzanean. Nik dirurik izan banu han barrungo kaña, amu eta kordel guztiak erosiko nituen. Kanpora atera eta berriro ere kristalaren kontra begira egon nintzan, kanpotik are ederragoak iduritzen baizitzaizkidan. Urrerangoan, datoren larunbatean Tolosa-ra zaitzenez, ikustera eramango zaitut.»

Orain arte letra borobillez idatziri bazegoen ere, hemendik aurre-ra dena zan txorrotx eta puntadun. Dena punto eta koma. Izan ere karta bat idazten danean, zer dakigu zer gerta dakion bat bederari? Berandu zan eta lotara joan zan Xalbador. Lehenik leiotik kanpora begiratu zuen eta laiñoak geroago eta beltzago ikusi zituen Goierri aldera joaten. Biaramonean karta botatzeko asmoa artu zuen. Bainan, zer gerta ere, ez zuen firmatu.

«Aitona!... aitona! Entzutzen al nauzu?»

—Entzuten aut bai, gero eta obekigo!

«Aitona!... ederra gertatu zait!»

Ixillik gelditu zan aitona... mututu egin zan, begitarte zaitu zitzaion eta ikarak artu zuen.

«Egun goizean, zienziak irakasten dizkigun profesorearekin genuen klasea. Ain zuzen ere, amorrainez mintzatu da: itsasoan nola bizi diran, ibaian zer jaten duten, arnasa nola artzen duten... nik al dakit zer geiago! Gogotik ari nintzaion entzuten. Berritsukeria ari zala, amorrainak arriaren eta lurraren kontra tripa arraskatuaz uzten dituela arraultzak, serio serio esan ez du ba?»

—Hori ikastera joan al intzan kolejiora? Obe uke berealaxe etorriko baintz etxera... hori ikasteko hor beste maixurik ba daukak hemen ere. Aitona honetxek ere!...

«Kontra atera natzaio. Gezurra dala, esan diot. Ixiltzeko! arek. Gezurra, gezurra zala, nik. Banekiela nola uzten zituen amorrainak bere arraultzak, batere minik gabe, leun leun koba zuloetan. Ez al da egia aitona? Arraultzak uzten dituenean, tripa urratzen al du amorrainak?»



—Ederki erantzun diok!

«Amorrainik frango atera nuela nere bizitzan eta banekiela zer nion. Nik atera nituen amorrainak ez zutela urraturik ageri tripan eta etxera joandakoan zuri esango nizula eta ikusiko zuela zu honera etorriko ziñanean zer nolakoak entzun bearko zituen. Hori esatea ongi egin al nuen aitona?»

—Obekigo ezin!

«Bai al dakizu zer erantzun zidan? Horiek ez zirala profesoreari erantzuteko manierak eta larunbatean ez zidala etxera joaten utziko. Igandean ere hemen gelditzeko, horrera gabe!»

Ekzerreko eskuan karta atximurkatu eta karkaxa bota zuen lurrera aitonak. Honelaxe egotu zan bizpairu minutuz. Barruko sua emetu zitzaionean eta begi orien brillua, dirdira eztitu, irakurtzen segitu zuen.

«Apaiz profesore hau ez da besteak bezelakoa. Kolorez ere beltz-beltza da.»

—Beltza!... beltza!...

«Nik orain arte ez nion horrelakorik sekula esan, bainan klasetik atera ta gero, beste itzik ez zait etortzen mingaiñera: beltza, beltza!»

—Beltza!... beltza!...

«Nere lagunek, «beltxito» esaten diote, bainan politegia iduritzen zait, eta nik «beltza, beltza» esaten diot. Beste zerbait gogortxeagorik ere esango nioke, bainan bildurtu egiten naiz. Ondo egiten al dut, «beltza, beltza» esatea?»

—Beltza!... beltza!... beltza!...

Larunbatean ez zan etxera agertu. Urrillean kolejiora itzuli zanez ez dakigu. Gauza bat ba dakigu halaz guztiz ere. Egun hartan eta urrengoetan eta urrengoetan, beste itzik ez zuen ezpainean: «beltza!... beltza!... Zerbait da, bat bedera triste dagoenean, tristura hori sortu duenaren kontra ezpaineak zerbait esatekorik idukitzea. Aitonari besterik gertatu zitzaion. Egun hura eta urrengoa eta urrengoa ixilik pasatu zuen. Paseatzen ibilli zan. Noizik bein bakarrik gelditzen zan, eta orduan, zangoekin kolpe bat emanez lurraren kontra «beltza!... beltza!... beltza!... esaten zuen biotz guztiaz. Igandean, alabaren egunean, ez zuten aingirarik ez amorrainik ez melokoterik jan. Arrozkoletxea izan zuten halaz ere, bainan, kutxarakada bakoitzean, «beltza!... beltza!... beltza!...» bota zuen aitonak. Azkeneko kutxarakadea sartu zuenean, malko lodi luzea sudurraren gaiñetik zeriola, ikusi zuten alabak eta suiak.

Salbador GARMENDIA.

# ODOLAK ODOLARI DEI

*Marcos Aspeitia, neure aita onari,  
eta Martina Gomez, neure amatxo  
maite-maiteari, alaba baten biotzean,  
izan leiken esker guztiaz.*

*Egilleak.*

Irakurle: Baldiñ eroapen pixka bat ba'dezu eta astia, atoz neu-rekiñ gure Euskal-Erri maite onetako erritxo pollit bat ikustera. Ez da aundia, zertarako? baña zeñ politta! Itxasondo, bere izena, eta onek dion bezela itxasertzean dago, Kantauri, euskaldunen itxaso gogor, indartsuaren ondoan.

Erritxoaren erdi-erditik ibai txiki bat dijoa. Urganbi. Ipar aldean dagon Pagoeta mendian jayo, bost zubiren azpitik pasa, ta Ondartxo izena duan playa txiki polittean besarkatzen du itxasoa.

Erri txiki baterako bost zubi geyegi dirala usteko dezu, ene irakurle, baña Itxasondo'ko biztanle geienak bezela, Rotterdam, Hamburg eta onelako uri zubitsuetan ibillia ba'ziñake ez zenduke ori usteko.

Bost zubi abetatik txikiena Beketxe'ko zubia da. Erromatarren denborakoa ez da baña, aren erakoa, ta antxiñakoa. Bi edo iru etxe beerago zubi eder zabal bat, Mutriku'ko arriaz egiña. Bekale'an beste bat estu-estua baña oso politta, eta azkenez, Ondartxo baño lenago egurrezkoa, sendoa ta ederki egiña.

Agorrilla'ko itxasgora aundiak diranean, zubi onetatik ez dago pasatzerik. Urak arrapatzen du eta bere gañetik ibiltzen da.

Erriko etxeak, danak berriak edo zar-berrituak, geienak erbeste urrutietako erara egiñak, danak loretegiak atzean edo alboan dituztela, Urganbi'ren alde bietan egiñak daude, batzuek besteari begira, zeñek-baño zeñek kurtiña ederragoak, etxeko tresna dotoreagoak, zillarrezko ontzi geyago eta batek baño besteak izen bakanagoa.

Etxien izenak onelakoak dira: «Liverpool», «Villa Anvers», «Le Havre», «El Cairo», «Mindanao», «Villa Manila», eta abar.

Izen abek zuri bakanak irudituko zaizkizu, baña, ara, etxe oyen-oraingo jabeak edo aurreragoakoak, munduari itxasoz bira asko ema-

nak ziran, danak itxasgizonak, kapitanak, pilotoak, mayordomo, makinistak eta abar, eta geyen ibilli ziran, edo diru geyen irabazi zuten lekuen izenak dira oyeak.

Itxasondo'n erri txikia ba'da ere parroki bi dira, batek Jesus du izena, eta nik uste det Erroma'ko eleiza batek izen ori dualako ipiñia izango duala, eta besteak San Juan eta Doniñe esaten diote euskeraz. Eleiza biak Urgarbi'ren alde bakoitzean daude, bata besteen aurrez-aurre zubi nagusien asieran eta bukaeran.

Erti zaleak ez luteke balio aundiko gauzarik aurkituko ez batean eta ez bestean, baña Itxasondo'tarrak alegiñak egiten dituzte eleiza biak apañ eta dotore eukitzeko. Doniñe'ra, batek, aitorleku edo konpesonario berriak erregalatu ba'ditu Jesus'era beste batek jarlekuak. Doniñe'ra batek kanpai berria, Jesus'era beste batek armonioa eta abar.

1914 g. etik 1918 g. eraño izan zan Guda Nagusian, erri onetako itxasgizonak diru asko irabazi zuten eta eleiza biak erregaluz bete ere bai.

Parroki bietan neri geyen atzegiñ zaizkitan gauzak, erderaz «exvotos» esaten zayenak dira. Itxasoan iya galduan ibilli diran ontzi-etako kapitanen opariak. Kuadro aundiak dira geienak. Itxasoa guztiz aserratua, olatu aundien azpitik ontzi gaxua erten eziñik. «Exvoto» danak berdiñ xamarra dira, eta laukien barrenean onelako irakurgaiak dituzte «Begoña'ko Ama itxasontzia, 1902 garreneko illbeltzaren 18, 19 eta 20 garren egunetan, don Ignacio de Zabaljauregi kapitana eta don Roman de Andikoetxea lenengo pilotoa ziralarik, Atlantik itxasoan ekaitz izugarria igarotzen.»

Beste era batzuetako exvoto'ak ere bai daude eleiza bietan, adi bidez: «Guadalupe'ko Ama Birjiña, Mexico'tik don Elias de Sasuategi'k ekarria». Eta abar.

Itxasondo'ko emakumeneak ere Euskal-Erritik urruti ibilliak dira geienak. Ezkonduak beuren senarrakiñ munduko itxasate aundienak ikusiak dira, eta neskatxak Ingalaterra'ra eramaten dituzte Ikastetxera emengo Ikastetxeetan ikasten diran gauza danak ikasten dituztelako eta bide batez ingeleses izketan ederki, emen ez bezela, Liverpool'en jaio ta bizitakoak bezelaxe.

Itxasondo'ko ezizen batzuek esango dizkitzut: «Jose Anberes, Anbers'en urte askotan bizitako gizon batena, Inazio Anburgo, Alemani'ko uri onetan ogei urte egindako beste batena, eta Jesus'eko sarkristauarena Lourdes.» Ara ezizen onen zegaitia. Gizon au ez zan Itxasondo'koa, ez eta itxastarra ere legorrekoa baizik, Mendata izena duan Bizkaiko erri txiki batekoa, eta Itxasondo'tarrak «mendian jayo ta mendian bizi» egin dutenak gutxitzat epaitzen dituzte. Egun batean,

gizon batzuek eztabaida baten ari ziralarik, sartu zan sakristaua ere bere iritzia ematera, eta erriko seme batek esan omen zion gogor:

—Y, ago ixillik; Donosti'tik aurrera juan ez dan gizonak ez ziu-kak emen itz egiteko eskubiderik eta.

Eta sakristauak erantzun omen zion:

—Zer? Ez naizela ni Donosti'tik aurrera ibillia? Baita Prantzi'an ere izando natxiok ni, Lourdes'en (beti *Lourdes* esaten zuan) Mendata'n bizi nintzanean, peregrinazio batean juan da.

Eta *Lourdes*'ekiñ gelditu zan betiko.

Itxasondo'ko biztanleak, oso dira aurrerapenen aldekoak. Bilbao'n baño ondotxo lenago, antxe ikusi nuan lenengoz kremallera, eta erradioa entzun. Gaur egunean ez da etxerik TV gabekorik.

Itxasondo'n ez dago aberats milloi askoren jaberik, baña ez eta ere Banku edo Diru-Etxeakiñ artu-emanik ez duanik. Dinamarka eta onelako erri batzuetatik gaur esaten dana, eta aiiñ gauza aunditzat artzen dana (ez aberats purrukaturik, eta ez eskalerik eukitzea) Itxasondo'n aspaldi lortu zuten. An ez dago Erruki-Etxerik, bear izanik ez dagoalako.

Itxasondo'ko semeak ez dute legortarren ikaskizunik edo karre-rarik ikasten, itxastarrenak baizik. Danak dira lur bira osoan dabil-tzan itxasontzietako gizonak, agintariak geyen bat.

\* \* \*

Oraiiñ, nekatu ez ba'zera, beste erri eder bat ikustera eramango zaitut, ene irakurle. Itxasondo'tik berrogei kilometrora. Geure Euskal-Erri maite onetan au ere. Ara nolako mendi aundiak inguru guz-tian. Anboto aundiena, Udala ederrena. Eguzkiak sartzean agur dagio musu emanaz bere azkeneko argi bigunaz. Ara Oiz ere eta ara Mu-garra.

An, Anboto barrenean ikusten dezun etxe zuri mordoa eta eleiza aundi ederra, orixe da Mendiondo.

Erri onen albotik Ugarbi baño ibai aundi zabalagoa dijoa. Bere izena Uraundi. Baña Mendiondo'ko ibaia aundiagoa, zabalagoa eta urtsuagoa dan arren, zubi bat besterik ez du bere bizkar gañean. Ez baita Mendiondo'n, ez Rotterdam ez Hamburgo'ko zubiak ikusitako ez gizon eta ez andrerik!

Mendiondo'ko etxe guztiak euskal arkitekturakoak dira, zaba-lak, urak alde bitara botatzen dituzten tellatudunak, urtetsuak baña sendoak. Urrutitik begiratu ezker, bere egapean txita pillo aundia gordetzen dagoan ollo-loka eder bat dirudite.

Mendiondo'ko etheen izenak onelakoak dira: «Gazteluzar», «Ar-dantza», «Gorostiaga», «Ibaseta» eta abar. Danak euskaldunak.

Itxasgizonik bat bakarrik ere ez da Mendiondo'n. Erri onetan danak dira nekazariak eta artzaiak, eta ikaskizunak egiten dituztenak, Karrera bat bakarrik egiten dute: Apaiz karrera. Mendiondo'ko semeak ez dute beste karrerarik nai. Etxerik ez dago bi edo iru seme apaiz edo praille ez dituanik, eta beste bi edo iru moja.

Abadegaiak oporketak dituztenean, ikusgarriak izan oi dira erri onetako eleiz puntzioak, parroko sei apaizen atzetik amar edo geyago abade gaiak sakristitik erteten dutenean danak apaiz jantzita. Sevilla, Leon eta Toledo'ko katedraletan, apaiz gutxiagokiñ, ikusita nago beñ baño geiagotan, Meza Nagusia!

Mendiondo'n etxe bat bakarra dago besteak ez bezelakoa. Aintziñako jauregi eder bat. Etxe-aundia, tellatuko euriak lau aldetara botatzen dituana.

Alderdi nagusia arri landuzkoa, erdi-erdian ate aundi bikoteakiñ, iru balkoi eder burnizkoak, euskaldun errementariak ederki landuak, eta erdiko balkoien gañean arrisko eskudoa, aundia baño sarrerako atea baño zerbait txikiagoa. Eskudoan ikusten dira bi ezpata, otsoen buru bat eta zubi bat. Zubi onen gañean irakurgai auxe erderaz (baña nik euzkeraz ipiñiko det): «Zubiya igarotzean eriotza aurkitu neban».

Etxekoren bat iltzen zanean, eskudoa oyal beltzez estali oi zuten, eta bi edo iru urtetan ala egoten zan eguzkiak eta aizeak erre eta puskatzen asi arte. Orduan kendu egiten zuten.

Etxe aundi eder onek Zubieta-Jauregi du izena, eta iru arpegi lorategiaren barruan ditu arrisko orma aundiz inguratuta, eta arpegi nagusia kanpoan.

«Zubieta-Jauregi» etxea, Mendiondo'ko zubi bakarren ondoan dago. Ze erri politta Itxasondo! Eta ze erri ederra Mendiondo!

Bi erri abetan gertatu ziran nere irakurgai onetan esaten ditudan pasaizo nagusiak, eta bi erri oietakoak dira bertan agertzen diran gizon eta emakumeak. Gauza abek 1912 garrenetik 1920 bitartean pasatuak dira.

Mendiondo'ko Zubieta Jauregi sendiak aberats pama aundia zun ez Mendiondo'n bakarrik, baita Euskal-Erri osoan ere. Larogei ta emeretzi baserriren jabe izanak omen ziran Zubieta Jauregi'tarrak eta nik esan nuanean: —bat bakarragaitik eun baserri bear zituztela erantzun ziran Mendiondo'tar batek:

—Ez Zubieta Jauregi'n geiagorentzat ere dirurik ez zalako, baño eunera eldu ezkerro kontribuzio ikaragarriak ordaindu bear, eta orregaitik.

Aberastasun abek karlisten bigarren gerrate aurrerakoak ziran, gerratea bukatu zanean Zubieta Jauregi'k beia jo zuan,

*«Don Carlos eta  
Doña Margarita  
Ikusi nai zituzten  
Tronuan jarrita»*

orduko bertso berri batzuetan kantatzen zan bezela, eta beuren diru, indar eta odola Dn. Carlos'en alde jarri zuten eta augaitik ondatu zan sendi aundiki aura. Etxe onetako bi zaldun gazte Carlos Maria ta Iñigo, gerran ill ziran, gerratea bukatu ta bereala Prantzia'n ill zan etxeko Nagusia Dn. Jose Ignacio de Zubieta Jauregi, eta bere izeneko seme gazteena ta etxeko andrea, Zubieta Jauregi'ko Damia (ez zun beste izenik Mendiondo'n), gelditu ziran bakar-bakarrik etxe aundi itun aretan.

Denbora gutxi barru Jose Ignazio Amerika'ra juan zan, eta Zubieta Jauregi'n, eskudoa oyal beltzez estalitako etxe triste artan, bakardaderik itzalenean, neskame bat lagun zuala, ta gau ta egun negarrez, bere egoera siñistu eziñik, gelditu zan Zubieta Jauregi'ko Damia.

Amerika'n zori onak lagundu bear izan zion Jose Ignazio'ri eta baita berak ere amari; beintzat obetoago ikusten zan au, eta bi neskame ere bai zitun, eta lorategia ere bideak garbitu, lore berriak aldatu ta oso txukun eta dotore ipiñia zuten, gerrate aurreko denbora onenetan bezela.

Amerika'ra juan da amabost urtera Mendiondo'n zabaldu zan Jose Ignazio, Zubieta Jauregi'ko seme gazteena neskatxa oso aberats batekiñ eskondu zala. Baita ere zabaldu zan neskatxa au beltza zala edo ez zala beintzat bera bezelako zuria, baña aberatsa, bere lurretan kafe asko egiten zala, baita kakaoa ere eta abar. Iñork ez zekian ordea gauza garbirik. Ez baizun iñorekin artuemanik Zubieta Jauregi'ko Damiak! Etxetik ez zuan irteten eleizarako izan ezik, eta mais-terrakiñ San Tomas'etan ikusten zan.

Gauza abek errian zabaldu ta bost urtera, gabetik-goizera agertu zan bere errira Zubieta Jauregi'ko zalduna, bost urteko alabatxo batekiñ, alargundu berria jendeak esaten zuanez, eta egia izan bear zuan alarguntasun onek, beintzat etxeko eskudua estali zuten oyal beltzaz, eta Dn. Jose Antonio ere beltzez jantzita agertu zan.

Jaun au, zaldun aundi, serio, bizarduna zan, beti ondo jantzia, oso eleizkoa, Mendiondo'ko eleiz-puntzio ta prozezio guztietan aurretik ibilltzen zana.

Eleiza nagusian berarizko lekua zuan Zubieta Juregi'ak, orma batean etxeko eskudo berdiña zualarik, eta leku artan egoten ziran beti, guk ezagutzen degun Dn. Jose Antonio, bere ama, eta bere alabatxoa, jarleku ederretan belauniko eta exerita. Baña neskameak, bakarrik juaten ziranean ere, ez ziran ausartzen jarleku ayeri ikuturik egiten, eta atzean belaunikatzen ziran, eta beien gañean exeri, jarlekuak utzik egon arren, Nagusiai errespetua galtzea izango zan beztela. Zubieta Jauregi'ko nagusiai gañera!

Guatemala'tik ekarritako alabatxoa ez zan itxusia. Nola izan leike ba itxusia bost urtedun neskatxo bat? Baña ez zan euskaldunak bezelakoa. Begi beltz ederrak zituan beste edertasunik ez. Bi begi eder ayekin ordea, arpegi itxusirik bai al zitekean?

Neskatxo onek Altagracia zuen izena eta amar urte zituanean ill zan amona ta bera gelditu zan Zubieta Jauregi'ko Damia.

Orduan aitag eraman zuan Madrid'eko ikastetxe elegante batera, aberatsen alabari bakarrik asiera ona ematen aritzen ziran moja batzuetara. Madrid'eko «Sedes Sapientie»'ra. Ez det au esatean, moja oyen aurka ezer esan nai. Aberats purrukatuen alabak ere, nun-edo-nun edukazioa artu bear dute, eta aberatsak aberatsen erara ezitzea ondo dago. Gauza bat esan bearrean naiz ordea, auxe: Aberats aundiak ez diranak, ez ditzatela Ikastetxe oyetara euren alabak eraman, bizi guztirako kaltea izango dutelako.

\* \* \*

Altagracia «Sedes Sapientie»'n utzi eta Itxasondo'ra jua bear degu, irakurle, ango pertsona batzuek ezagutzera. Lenengoa José M.<sup>a</sup> Latxiondo, mutill ederra, aundia; egokia ta bikaña. Illea gaztaña margokoa, begiak galtzairu kolorekoak.

Itxasondo'ko neskatxa guztiak berari begira zeuzkan errira etortzen zanean, eta eurak esaten zutenez bai zuan begi ayetan zerbait... erri guztian beste iñork ez zuana.

Baña Latxiondo ez zan artoa ta naiz «Linea Egurrola»'ko Kapit'an'en uniformeaz jantzita zegoanean, naiz alkandora utzik eta abarketa zuriakiñ pelotan zebillenean, jende guztiari abegi ona egiñ oi zion, danakiñ itz egiten zuan, eta danakiñ ibilltzen zan.

Norentzat izango ote zan Latxiondo? Neskatxa batek esan oi zuan: —Ez du zorionik izango bere eskontzan.

—Zergaitik bada, aiñ mutill ona ta aberatsa izanik?

—Bere karreran zori aundiegia izan dualako. Guk, emen, danok

Joxe Mari, edo Latxiondo, esaten diogu, baña Bilbao'ko ofizinan danak txapela erantzita itz egiten omen diote ta Dn. Jose Maria deitu.

—Jakiña, ia nolako marka egin zuan Guda Nagusian?

—Bai, berak nai ba'lu, Ingalterra'n biziko litzake, ispetore, legorrean.

\* \* \*

Nik esango det oraiñ Latxiondo'k lenengo Guda Nagusian egindako *marka*, Ingalterrako agintariak galdetu zioten «Linea Egurrola»'ri, ia zenbat itxasontzi ipiñiko zituzkean, Argentina'tik Liverpool'era narruzko kargamentuak ekartzeko (Biajia guztiz arrixku aundikoa zan, narrua gudako kontrabandua zalakoz, eta bideak, aleman itxaspekoz beteak zendelako). Fleitta (el flete) mariñelen seguruak, itxasontzienak, eta agintarienak, naiz ondo ta naiz gaizki irteñ ba'zuan ere eginkizun aundi onek, «Linea Egurrola»'k eskatzen zituanak (*aua neurri*, esan oi dan bezela). Ingalterrak babestu bear zituan bide guztian, itxasontzi bakoitza, bi guda ontzigaz.

«Linea Egurrola»'k, Etxeko Kapitan guztiai eskiñi zien zori ura, borondatez iñork bere burua eskeñi nai ba'zuan. Eta Jose Maria Latxiondo'k, ogeita zortzi urteko pilotoak bakarrik erantzun zuan baietz. Eta «Esther Egurrola» itxasontzian berakiñ zebiltzan mariñel danak ere bai.

Latxiondo'k, Alemani'ko itxaspekoak ongi jarraitzen ziotela egiñ zuan biajea ta baita kargamentua Ingalterra'n entregatu ere. «Kata Egurrola», egite au bukatu zuan itxasontzi berriak, bere lenengo bajea pagatu omen zuan bere burua.

Ingalterra'tik Bilbao'ra laztan (en lastre) zetozela, eta Ingalterra'ko guda itxasontzien laguntza gabe, ondatu zuten aleman itxaspekoak «Kata Egurrola» baña gizon danak bizirik eldu ziran euren etxietara. Latxiondo'k egite aundi au gorabera ez zion bere buruari inportantzi geiagorik eman.

Jose Maria Latxiondo Filipinas'en jaioa zan, aita ere itxasontziko agintaria zuan. Aita gazterik ill eta umetan etorri zan Itxasondo'ra amakin, eta «Villa Ilo-Ilo» izena zuan, aitak egindako etxean bizi ziran. Ama zuan Andre Josefa Arrospide, emakume buru argidun eta sentzunduna. Senarrak utzitako ontasunak lau bider geitu zituan pama zuan errian. Au ez da arritzekoa, onelako andreak asko ziran Itxasondo'n. Egunero izparingia etortzen zanean lenengo irakurtzen zuan «Linea Egurrola»'ko itxasontziak nundik zebiltzan, eta gero Bolsa'ko gora-berak.

Alargundu zanetik, semearen maitetasunak betetzen zion biotz osoa, ta beretzat eta beragaitik egiten zuan guztia.



Altagracia'k Sedes Sapientiaen amar urte egin zituan. Kolejio'ko Araudiak «Educación completa» emateko eskatzen zuan denbora.

Andik etorri zanean, Zubieta Jauregi'n sortu zuan matxinada ez zan izan nola-naikoa. Aita bere esanetara jartzea lortu izan ba'zuan, zer jasoko ote zan an!

Dana gaizki billatzen zuan. Neskameak, aundi, gizenak. Mandoak ziruditela esan zion beñ aitari. Berak ez zuala alako neskamerik nai, luze, argal, liraiñak baizik. Gañera irugarrena ekarri bear zala, bera jasteko, orrazteko eta bere jantzi ta oñetakoaren ardura izateko, ta Zubieta Jauregi'ko maizterren alabarik ez zuala nai orretarako, etzuela balio ta. Madrid'tik edo ekarri bearko zala, bere lana ondo zekien bat.

Balkoi ta leioak ez zutela zabal-zabalik egon bear, zirti-irekian baizik, argiak «demi jour» egin zezan. Maia serbitzeko neskameak guante zuriak jantzi bear izaten zituan, eta eziñ ezer egiñ izaten zuan, platerak erori eta edontziak apurtu baizik, baita ere jantzi bear izaten zuan soñeko beltza, ta lepoan gauza zuri gogor bat, neskame gaxoari egundoko neke ta larria ematen ziona. Gero zenbat baldintza; au eskubitik eta beste au eskerretik, lenengo ari, gero oneri... eta txarrena, esan gabe igerri bear gauza asko, berari begietara begiratuaz bakarrik. Agindu zuan baita ere, naiz berari, naiz bere aitari zerbait esan bear ziotenean, esan baño len eta esandakoan, burua makurtu ta erreberentziak egitea, ezer eskatzen zuanean (adi bidez guraizeak) eskuan ez eramatea bandeja batean baizik, eta bandeja ta guraizien artean ondo plantxatutako zapitxo zuria, baña eskutitzak eta erre-bistak eraman bear zizkiotenean, orduan, bandeja utsean, zapitxo zuri gabe.

Debekatu zuan neskameak etxean abarketakiñ ibiltzea (takoi erdidun zapatakiñ ibilli bear izaten zuten eta gabean oñak aundituta oera) albergan erropa garbitzen ari ziranean kantatzea (aiñ ederki garbitzen zuten erropa Maria'ren alaben kantzak kantatuaz) josten eta plantxan ari ziranean parre algarak egitea. Meza nagusiko jendea zubitik zetorreanean leiora ikusten ertetea, eta nik aldakit zenbat agindu, ta zenbat eragozpen!! Neskame gaxoak kartzelan sartuta bezela zeuzkan eta maizterren alabak ziran arren erren egiñ ziran. Eta ori, orduko maisterrak nagusi jaunari itzal eta begirakune aundia ziotela!!

Aitak buruan sartu nai izan zion jasteko neskamerik ez zuala bear. Orain arte Zubieta Jauregi'ko andre ta anderañoak beren soñekoak berak jastzen izan zituztela iñoren laguntza gabe; neskameak lodiak izateak etxea goratu egiten zuala eta orrelako iñosokeririk ez zuala entzun nai.

Egun baten esan zion aitari zaldi bat nai zuala ta zaldia zaitzeko morroia eta ekitazioa ikasteko maixua. Geroago eskatu zion Madrid'era negua igarotzera juatea, lorategian pizsina aundi bat egitea, Zubieta Jauregi'n ez dakit nolako aretoak eta eskillera berriak nes-kameak gora ta bera beste leku batetik ibilli zitezten, bi edo iru gela kanpotarrentzat eta... ez naiz oroitzen zenbat gauza eskatzen zizkion «Sedes Sapientiae»'n eman zioten «Educacion Completa»'k.

Alperrik zan aitak esatea:

—Baña, ene alaba, guk ez bai degu orrelako aberastasunik!

—Ba, erri onetan bizitzea nai ba'dezu nik zaldia bear det, eta bestela ez det emen bizi nai. Ez det lagunik, ez det jolasik, etxe au aiñ illuna, aiñ tristia...

—Alabatxo, lagunak egiño dizkitzut. Sendagilleak dauzka alaba bi gutxi-gora-bera zure adiñekoak, Notario'ak ere bai, eta...

—Ez dezu gutxi uste, nik, baserri onetako Sendagillien alabakiñ eta Notario'enarekiñ bat egiño detala uste ba'dezu! Ez naiz alperrik egon amar urtean «Sedes Sapientiae»'n!!

Neskameak, berriz, sartu ta erren gelditu gabe. Len Zubieta Jauregi'n denbora gutxi en egiten zutenak zortzi edo amar urte egiñ oi zituzten eta eskatzeko edo moja juateko erren. Orañ, geiena egiten dutenak zortzi edo amar egun. Mendiondo'n iñork ez zuan ondo esaten Zubieta Jauregi'ko Damia'gaitik.

\* \* \*

Nola izan zan Jose Mari Latxiondo Zubieta Jauregi'ko Damia'kiñ eskontzea? Nik bai dakit baña, irakurgai onek neurriak ditu, eta geiegi luzetzeko bildurra det ori esaten asitzen ba'naiz, Auxe bakarrik esango det: Cupido'k egiñ zuan gaiztakeri aundi bat izan zala eskontza aiñ ezberdiñ au. Altagracia ezkondu zanean, aitak arnasa artu zun. Astindu zituan bere bizkarretik disgusto guztiak eta Latxiondo gizaioak artu bear izan zituan.

Ezkondu aurretik izan zuten lenengo eztabaida. Altagracia'k ez zuan nai Parrokian ezkondu, baserriar danak ezkontzen ziran lekuan (au aitari bakarrik esan zion). Zubieta Jauregi'n baizik. Obispo jaunak baimena emango zuan eta etxeko areto batean ipiñiko zan eleizatoa, bear ziran aldakuntzak eginda. Bilbao'tik ekarri arkitekto bat, eta dekoradoreak, eta...

Latxiondo'k tinko erantzun zuan ezetz, Parrokia orretarako zala eta berak bear bezela ezkondu nai zuala, Eleiza nagusian danen aurrean.

Ezkondu ziran. Egun artan Itxasondo'ko anderaño batek baño geiagok egiñ zuan negar. Errian zan mutillik onena galdu zan Itxasondo'rako. Andre Josefa'k ere bakarrik gelditu zanean negar egiteko gogo aundi bat nabaitu zuan bere barruan, eta ittoko ez ba'zan Jaungoikoa'gana zuzenduaz eskatu zion izan zezala bere semearen errukia eta lagun zeiola, etzekiala zergaitik baña, bere gañera zoritxarra ekarri ebalu uste zualako.

\* \* \*

Denbora gutxi barru asi zan Altagracia, senarrari erpe luzeak erakusten. Lenengo eztabaidak izan ziran, «Mercedes» automobil bat eta txoperra nai zitualako. (Ezkongai zegoalarik ere, aitari egun gorriak erakutsi zizkion gauza beragaitik.)

\* \* \*

Semetxo bat izan zuten, Joxe Maritxo, eta andik laister ill zan Zubieta Jauregi'ko nagusi zarra.

Aita ill da iru urtera Altagracia'k esan zion senarrari ez zala geiago iñoiz juango Burdeos'era ta Marsella'ra bera zetorreanean, lenengo makinisten emaztearekiñ eta pilotoarenakin ez zualako ibilli nai trenetan eta ostatuetan.

—Zergatik?

—Ez diralako nere idekoak. Ez dute batere gustorik, baserritar utsak dira.

—Baserritar utsak? Biak Ingalterra'n egonak dira Ikastetxean, eta zuk baño obetoago dakite ingeleses izketan.

—Berdin zait. Ez naiz juango.

Ordutik aurrera, Andre Josefa juaten zan Jose Mari'n itxasontzia zetorren portura, bere illobatxoakiñ, ondo pozik semea ikusteagaitik, baña bere barruan naigabe aundiakiñ. Beste andreak ez zioten ezer galdatzen itzalagaitik, eta Andre Josefa'k bere baitan eskertzen zioten berekiñ gordetzen zuten asiera ona.

Lau urtean egon ziran senar emazteak alkar ikusi gabe, eta denbora onetan milla gauza esaten ziran bai Mendiondo'n da bai Itxasondo'n, baña Andre Josefa Arrospeide'n belarrietara ez zan ezer eldu, onelako gauzetan gertatu oi dan bezela.

\* \* \*

«Esther Egurrola» Latxiondo'k agintzen zuan itxasontzia, Liverpool'en konponketa batzuek egiteko, ango Dike Legorretara eramatea

agindu zuan Etxeak, eta Jose Mari'k idatzi zion emazteari esanaz, dagonillaren zortzian, ogei egunerako aske gelditzen zala, eta Mendiondo'ra illen amabirako elduko zala. Bere naia zala oporaldi ori Itxasondo'n igarotzea danak «Villa Ilo-Ilo»'n eta uste zuala umea ta biak pozik izango zirala.

Garagarrilla'ren asieran juan ziran beste urteetan bezela Altagracia, Joxe Maritxo ta neskame bat Itxasondo'ra Amandrearen etxera, udara an igarotzeko asmoetan, eta ill onen erdian, uste gabean, eldu zan Latxiondo bere amaren etxera pozez lertu bearrean. Bost urte bai ziran bere errira agertu ez zala!!!

Itxasontzien erreparazioa aurreratu egiñ zuan Etzeak, eta augaitik eldu zan bera ere esan baño illabete lenago.

Etorri ta urrengo goizean, semetxoa eskutik zuala, alkandora utzik eta abarketa zuriakin eta praka urdiñakiñ pozik zijoan Latxiondo Ondartxo'ra. Emazteak ez zun juan nai izan, arteraño egunero juan zan arren. Buruko miña zeukala, edo orrelako aitzakiren bat eman zuan.

Bekale'ko zubian, zaldun gazte batekiñ kurutzetu ziran. Zaldun au, Donosti'ko Kasino'rako, edo Club Nautico'rako eran jantzita zijoan.

Pixka bat aldendu ziranean semeak galdetu zion:

—Aita, nor da jaun ori?

—Ez dakit, zergaitik galdetzen dirazu?

—Ara, gu Ondartxo'n gaudenean, ori Portu-Txiki'n egoten da, beti guri begira, jemeloakaz, eta amak esaten dit ia guri begira da-goan ikusteko.

Umeak ez zun besterik esan, ez eta bearrik ere. Latxiondo'ri, biotzak, esan oi dan bezela, bira osoa eman zion, eta arnasa paltatu bear zitzaiola uste izan zuan. Zer egiten zun ez zekiala, lo zorroan bezela juan zan Itxaspe'ra, iñor ez zegoan leku batera, ta exeri zan aitz baten gañean, begiak zabal-zabalik itxasora begira. Baña ez zun ezer ikusten, kanpoan beintzat. Bere barruan bai, gauza asko ikusten zituan, geiegi, ta adimenak erakusten zion danak egiak zirala. Egia itunak, egi lotsagarriak eta beltzak, odola irekiten ipintzen zizkiotek. Egia bere aitagarreba alarguna ez zala, bizi-alarguna baizik, emazteak beste gizon batekiñ iges egin ziolako. Egia Altagracia ezkontzako sakramentuaren ondorena ez zana, indiya batekiñ izandako sasi-ekontzakoa baizik. Egia au, egia bestea, egiak berak jakiñdako ta siñistu gabeko gauza asko...

Joxe Maritxo, negarra begian zuala, aitari begira zegoan, aita, zer dezu? aita zer dezu? galdetuaz.

Baña aitak ez zion entzuten. Bere barruan zebillen erresakak zarata aundiagoak egiten zizkion.

Oldozmen gaizto bat eta desio bildurgarribat igaro zitzaizkion burutik, zalantza ankerrak eskutik ekarrita bezela. Inpernuko etsaia ez bait dago lo inoiz! Baña Latxiondo'k Jaungoikoa'ren bildur santua biotzean ondo sartua zuan, eta bat batean kendu zituen bere burutik eta biotzetik pentsamentu ta nai ain gaiztoak.

Jaungoikoa'k beriala eman zion adimeneko argitasun izpi bat, eta semetxoa bereganatuta galde zion:

—Joxe Maritxo. Zu, norena zera? Eta umeak.

—Zurea, aitatxo, Zurea ta amarena.

—Eta zenbat zera nereea?

—Dan dana —erantzun zion lepotik eldu ta musu emanaz.

Umearen aotik errugabetasunak itz egiñ zuan. Eta Latxiondo'ren biotza baretzen asi zan. —Nere Jaungoikoa, eskerrik asko, geyegi izango zan esan zuan bekokiko izerdi otza legortuaz. Eta umearen begietara begiratuta bere aita zanaren antza artu zion. —Nerea zera bai, maite ori, Latxiondo'tarra-esan, eta samurki laztandu zun.

\* \* \*

Egun artan bertan erten zan Latxiondo Itxasondo'tik eta zuzeanean Liverpool'era jo zuan. Urrengo egunean erten zan Altagracia. Joxe Maritxo amandrearenean gelditu zan.

\* \* \*

Urte bete pasa zan eta Itxasondo'n betiko eran bizi zan jendea. «Villa Ilo-Ilo»'n andre Josefa bere neskameakin bakarrik bizi da. Joxe Maritxo Ingalterra'ra eraman zuan aitak, bera egondako Ikastetxera. Andre Josefa'k baratzako loreak zaitzen, asteoro illobatxoaren eskutitza artzen zuanean berari erantzuten, eta Bolsa'ko gora-berari ta «Linea Egurrola»'ko itxasontziari jarraitzen, juaten zitzaion pakean denbora. Orañ oso pozik zegoan, Joxe Maritxo iru illabeterako zetorren etxera eta aitak idatzi zuan berak ekarriko zuala. Zer zoriona beretzat! Irurak alkarrekiñ egun batzuek egitea!

\* \* \*

Goiz batean, Meza entzunda (andre Josefa, Jesus'ekoa zan) beti bezela etorri zan etxera eta jan tokian prest zeuzkan kafe-esnea ta

egunerokoa. Gosaldu zuanean ipiñi zituan begi-aurrekoak eta artu zuan izpar-ingia. Jakiñ zuan «Linea Egurrola»'ko itxasontzien berri eta «Esther Egurrola»'k urrengo egunean eldu bear zuala Plimout'era. Gero ikusi zituan Bolsa'ko berriak, eta gogo aundi gabe ireki zuan papera irugarren orrian.

Bat-batean bere begiak izen bat jo zuten. Altagracia Zubieta Jau-regi. Ene Jaungoikoa! zer dio emen? esan eta ardura aundiz, biotza taupadaka zuala, irakurri zun beñ, bi, eta iru bider gauza bera.

Ara zer zion izparingiak: «Ezbearra». «Atzo gabeko amaiketan, Madrid'tik zetorren tren azkarrak, Santander baño zazpi Km. lenago dagoan paso-nivel'ean, jo zuan Mercedes beribill bat. Madrid'eko matrikuladuna. Barruan iru lagun ziran; senar-emazteak eta txoperra. Onek ez zuan miñ aundirik artu, beso bat puskatua besterik ez, baña senar-emazteak jaso zituenerako ilda zeuden.»

«Len esan degun berri txarrari jarraituaz eta gauzak obeto argizteko esan bear degu, gizasemeak burua ziatz apurtua zeukala, eta emakumea, ogeita zazpi metroan trenak arrastaka eraman zuala eta oso itxuragabetua utzi. Len, senar-emazteak zirala esan degu, baña txoperrak deklaratu duanez, ez ziran. Jauna zan Guatemala'ko Konsul Generala Madrid'en, Dn. Carlos Roviroza Revuelto, eta emakumea, bere adiskide bat. Udara pasatzea zetozen Santander'era, Hotel Kontinental'en lekua artua zekaten.»

Jesus! Jesus! zion andre Josefa'k, Jesus milla bider! Au lotsagarria!

Au ere gureztat zegoan nonbait. Ai ene seme ona! Nik bildurra nuan bezela erten du: Odolak odolari dei.

Baña bereala berejabetu zan, eta barru-barrutik, egi-egiaz esan zuan: —Jaungoikoak barka dezaiola eta Bere Glorian dezala. Goyan bedi, euskaldunok esan oi degun bezala. Baña azkeneko itzakaz batera gañez egiñ zion biotzeko naigabe izugarriak, eta samiñtasun aundienaz negarrari eman zion.

\* \* \*

Dagonilla'ren irugarren eguneko gabean, «Esther Egurrola»'ko bere kamarotean lo zegoala, Latxiondo ontziburuak, zarata ikaragarri bat entzun zuan, eta garbi-garbi abotz bat ezagutu. Altagracia'rena, estutasun larrian. Jose Maria! Jose Maria!! bi bider deitu ziona.

«Iceberg»'en bat ontziak jo zualakoan, bere burua bota zuan oetik kanpora, eta adi-adi segundo batean egon da gero esan zun:

—Ene! Au ametz gaiztoa! Gorputz gutzia ikara batean jarri zait. Eta bekokian bera zetorkion izerdi otza legortuaz berriro oeratu zan.

JULENE DE AZPEITIA.



Datorren garagarrillaren azken-aldian, eta «C.A.T.»-k antolatuta, berealdiko billerak egingo dira Donostia'n. Billera orietan erabilliko diran gai nagusienak, Eiza ta Arrantza izango dira.

Billera oriek dirala-ta, *Cofradia Vasca de Gastronomía*'k jai batzuek —itzaldiak, elkarrizketak, otorduak eta abar— gertutzeko asmoa du.

Ta orrela, illaren 28'an, len aitaturako *Cofradia*'ko etxean bazkari jator bat egingo da.

Bazkari ortako jaki oñarria ziur asko basurde-aragia izango da noski.

\* \* \*

Oraintsu eskuratu ditugun liburu berrien artean *Estire sus Billetes en la Cocina* deritzaiona arkitzen da.

Bere egillea Jose Maria Busca Isusi degu, ta liburua, txikia baña xit ernagarria da, batez ere etxekoandreentzat. Beraren gaia, erdi mallako famili batek astean zer jan bear duan bait-da.

Bosteko ori, Jose Mari!

\* \* \*

Aurten ere, lengoan bezala, Ondarrabi'ko ostatu ta jatetxe Jaizki-el'ek jan-edan-gaiezko liburu bat argitaratu du.

di, Conde de Llobregat, A. Larrea ta Unsain arkitzen dira.  
Aurkezpena, berriz, ezin diteke ederragoa ta apañagoa izan.

\* \* \*

Azkenengo Literatura'ko Nobel Saria irabazi zuan idazle japon-  
dar Jasunari Kawabata, iñolaz ere moko-fiñ on-samarra izan bear  
du. Ala azaltzen da beñepein guk irakurri ditugun bere lanetan. Ba-  
tez ere téa'ri dagozkien gaiak iñork ez bezala ikuitzen eta erabiltzen  
ditu.

Baldin gai auek gogoko badituzu, emaezu begiralditxo bat, ira-  
kurle, Kawabata'ren *Zembazuru* deritzaion nobelaren azken-orrialdiei.

\* \* \*

Ona emen Donostia'n, otsaillaren 16'ean, *Cofradía Vasca de Gas-  
tronomía*'k, *Real Madrid* eta *Real Sociedad*'en arteko futboleko par-  
tidua ikustera etorri ziran madridar adiskideai eman zien bazkaria-  
ren errenkada:

«Neskazar-zukua.—Tolosa'ko babarrun gorriak.—Lekunberri'ko  
odolkiak.—Belate'ko azak.—Zugarramurdi'ko mamia kaikuetan.—As-  
tigarraga'ko sagardoa ta Murchante'ko ardo beltza.»

\* \* \*

Orain illabete batzuek, Canarias'eko Las Palmas'en, *Los Toneles*  
deritzaion jatetxe berri bat idiki zan. Eta jatetxe ortan, Euskalerra'ko  
jaki jator batzuek ere —lur-sagarrak Araba-erara, arkume-iztarra Ara-  
ba-erara ta abar— serbitzatzen dira. Baita Errijoja'ko ardo aundiak  
ere. Arabarra bait-da nagusia. Ain zuzen ere, Gasteiz'ko semea.

\* \* \*

Madrid'en judu batzuek jatetxe bat idiki dute. Uriaren kalerik  
onenetako batean, gañera, ta oso dotorea.

Bertan serbitzatzen diran jan-edanak eta serbitzuak berak ere ju-  
dukutsu ta usai jator eta bereziak dituzte.

Eztakigu israeldarrak euren lur eta lur-inguruetan ongi edo gaiz-  
ki dabiltzan, baña gainontzean, mundu-zear, gero ta aurrerago da-  
biltzala, ezin uka...



Joan dan garizumako egun batez, Donostia'ko Parte-zarreko jatetxe ezagun batean adiskide-talde bat afaltzera bildu giñan. Eta, jakiak aukeratzen ari giñala, gure arteko erdi-teologo batek, *seriyo-seriyo*, esan zigun:

—Mutillak, gaur bijili-eguna dek eta ezin genezakek aragi-gauzarik jan. Ez jan eta ez... egin.

\* \* \*

Ondarrabi'ko jatetxe batean entzundako elkarrizketa:

Gaur ere angulak jan bear al dituk?

—Bai, gaxo-samar bai-natxiok.

—Gaxo agoala-ta, angulak jan bear dituala?

—Bai, sendagilleak arrai zuria jateko agindu bai-ziak.

\* \* \*

Gure erritar Juan Bautista Agirre, euskal-idazle gain-gainekoa ezezik, iñolaz ere eleizgizon argi, jakintsu ta onbidetsua gañera izan zan.

Beraz, Vaticano'ko Kontzilioa baño lenagokoa izan arren, euskaldun katolikoak beartuak gaude noski beraren iritzi ta esanak onartzea. Ez da ala?

Ongi. Ona emen *Erakusaldien* egilleak, itzez itz, ardoari buruz sermoi batean zer zion:

«Galde egin bide zioen bein norbaiti, zar batentzat zer gauza ziran onenak. Erantzun zuan: ardo gozoa, Jaungoikoa'ren itza ta konzienzia garbia. Iru gauza oek baña zer gauza obeagorik ta gozoagorik izan diteke? Ederki esana, nere kristauak. Eskritura Santa'k berak esaten digu: ardoak eta musikak poztutzen du gizonaren biotza. *Vinum et musica laetificat cor*. Au bera dio David Santua'k ere: *Vinum laetificat cor hominis*. Ekusiko dezue, ta ekusi ere dezue iñoiz, gizon adiñean sartu bat bere neke, kezka ta eginbearrakin moteldua ta illundua, ta ardo gutxi batekin aztutzen zaizkala bere nekeak, aienatzen illuntasunak ta jartzen dala gogotsuago nekeari ekiteko, baita Jaungoikoa'ren gauzetarako ere. Argatik zarrentzat ta zerbait eri diranentzat ardoa modu onean edatea gauza ona da. Ez oraindik urik edan; edan-etzazu ardo gutxi bat, zure estomagoari ta zure eritasunari begiraturik, esaten dio San Pablo Apostolua'k Timoteo'ri karta batean.»

*Masusta-berri*'ri.—Bai, ezagutzen degu trinpollarabak izeneko jakia. Ta, mundu ontako beste gauza geienak bezala, jaki au ere, ongi gertutzen bada, txit ona da, baña ez bestela.

Onatz Pasaia'ko adiskide batek bein batez eman zigun trinpollaraben prestaera. Baña, aldeaurrez, oartxo batzuek. Trinpollak —Imanol Beleak tripollak *esaten* du, ta Azkue'k, berriz, trinpoilak—; trinpollak, diogu, gure arrantzaleen izkuntzan, arraien esteak dira, ta ez, norbaitek uste duan bezala, *cuajo de ganado*. Ta arrabak, berriz, jakiña, *rabas*, au da, *huevas*; bai, *huevas de los peces*.

Gainontzean, gure errezetako tranpollak eta arrabak legatzarenak dira. Ta goazen arira.

Lendabizi, bai trinpollak bai arrabak garbitzen dira urez ongi ta euren lingirda —batez ere, trinpollena— zearo kendu arte. Edukitzen dira gero ur irakiñean ordu bete gutxienez, eta ondoren kentzen zaie urdana. Jartzen dira bereala kazuela batean olio ta tipula txikitua, ta tipula erdi-gorritzen danean, botatzen dira kazuelara trinpollak —trinpollak bakarrik—, baso bat ardo zuri ta perrejill txetuarekin. Ordu erdi batean guzia edukitzen da egosten, aldiz-aldiz ur irakiñ edo salda piska bat erantsiaz, eta, azkenik, arraba-zatiak ere botatzen dira kazuelara, ta uzten da egosten beste zertxobait. Gatza bota di-teke azken-aldiunean.

Jakiña, errezeta onek baditu aldakuntzak, eta, orrela, erabiltzen omen dituzte batzuek, tripollaraben prestaeran, tomate ta baita azenarioa ere noski.

A!, ia aztu zitzaigun esatea. Donostia'ko tabernari ajolakabe batzuek bein baño geiagotan zerbitzatu omen dizkie trinpollarabak bezero ezjakiñei tripaki jator-egiazkoak balira bezala...

\* \* \*

*Ondarreta*'ri.—*Foie*'rekin ze edari mota serbitzatu bear dan? Arlo au guziz labaña da. Orain urte batzuek, berari buruz, Paris'eko aldizkari ezagun batean berebiziko eztabaida izan zan. Batzuek *foie*'rekin ardo beltza serbitzatu bear dala, zioten; beste batzuek, zuria; onek, ardo sikua; arek, berriz, goxoa...

Gure iritzi apala da, baldin *foie* bazkalasieran artzen bada, edan litekeala, esate baterako, txakoliñ on bat, eta bazkalondoan artzen bada, berriz, jerez usaitu bat, au da, gazteleraz *jerez oloroso* deitzen dioten orietako bat; baña beti, bai bazkalaurrean bai bazkalostean, eta beste jaki askorekin bezala, *foie*'rekin ere txanpañ on bat dala edaririk egokiena.

*Arriurdin'i.*—Esker milla, biotz osoz, *Zeruko Argia*'ren maiatzeko zenbaki batean EGAN'eko atal onezaz ezarri ziñuan errenkada legunengatik.

\* \* \*

Gure mundu ontako bizitzako borroka gogorraren estalki gezurti au, ardoak austen du, eta, beraren bidez, kristal garbi batez bezala, gizonaren anima billutsiaren barrunbean ikusten degu.—*Unamuno*.

A. A.



# ADABAKIAK

AHALDANA, ONAREN URRENGOA DA.—Euskaldunok maiz ari gera gure mintzairari gutxi-etsirik, daukaguna baino ez daukaguna nahiago dugula edo. Eta horrelako usteak ez digute kalte gutxi egiten. Batasuna lortzeke dugu, eta norperana edo auzokoana sarri baztetzen dugu, edo ridikulizatzen dugu. Esate baterako, eurena gutxi-etsitze hau oso zabaldua dago eibartar euskeltzaleen artean, eta horri gaineratzen badiogu auzoak —batez ere hurrutikoak, zeren hurrutikoak bai dira gutxien dakitenak— guregaitik esaten duten guztia, ez da arritzekoa euskeltzale ez diran eibartar euskaldunak beren mintzairarekin lotsaturik erderara jotea.

Baina, hontan, auzoak ez dirala txarrenak esan dut, eta inoiz edo gehienetan ez eta ere hurrutiko euskaldunak, baizik euskerarik ez dakitenak edo euskera motel baten jabe direnak, maiz erderaz eta gutxitan euskeraz mintzo direnak. Gutxitan eta esnedunakin edo basarritarren batekin arkitzen denean bakarrik. Hoiek onenak ez badira ere, Euskal Herriko erdaldunak ez dira hobeak, batez ere hauek, euskeraz jakin gabe beren buruak euskeltzale badituzte. Euskeraz euskeragatik ari geranok amaika holako aguantatu behar ditugu. Halajaina! Euskerarik ez dakiten tolosarrak ere Eibarkoaren lepotik parre eta berena hoberena dalako arro-arro. Eta, Eibarko hizkera esaten dudanean, kasurako berdin da Ondarrukoa, Bermiokoa, Arratiakoa, Azkoitikoa edo Nafarroako Barrankakoa. Bizkaian Markiña, Gipuzkoan Tolosa edo Lapurdin Donibane Loitzune-koan fama ona ez duten herri hizkera guztiak zaizkie ridikuluzkoak zentzu gutxi eta euskera gutxiagoren jabe diren ahozabaleri.

Gauza xeheak dira, jakina; baina gauza xehe hoiek amaika kalte egin digute eta egiten ari zaizkigu. Ikusi besterik ez dago azkenean Bilboko «Anaitasuna» berari zer gertatu zaion. «Anaitasuna» Biz-

kaiko euskera jatorrean etorren. Txukun egin nahirik, bizkaitar euskaldunak egiten duten baino askozaz garbiago, baina bizkaitarrak ondo ulertu ditzakean eraren nehurritik irtetzeke. Baina, betikoa: euskeraz mintzatzen ez diran euskeltzaleak, erdera ongi dakitenez, erderarekin zer ikusia zuten hitz asko bilatzen omen zituzten eta, jakina!, hori ezinezkoa zen gure mintzaira orbangabearen azaletik itxuren prestijiorako. Eta, orduan zer gertatu da? Ba, hau: euskera salbatzeko dirua ez dala prolema, esaten duten hoietakoak (nunbait diru asko erabiltzen dutenak eta beren ardurarik handiena nun enpleatu asmatzea zaien hoietakoak), diru laguntza ukatu omen diote. Eta, ito eta kitto. Agur! «Anaitasuna». Euskeraren itxuragaitik, anaitasunik ez eta etsaitasuna bai.

Alde batetik, prestijiozko euskera batu bat ez izatearen kontuak dira hauek, zeren euskeraren batasuna egiten dan egunetik (eta lehenengoz euskera idatziaren batasuna behar) seriozki hasiko gera gure literatura hobeto eta gehiago lantzen eta hornitzen. Landuak eta horniturak emanen dio hizkuntzari behar duen itzala.

Bitartean, iñosokeria ugari. Herri hizkerak konponketa dute; euskal alfabetatzen kanpainetatik ongi ikusi dan gauza da hau. Baina euskera galdu dan tokietan, konponketak, askoz ere nekezagoak izango zaizkigu.

Euskal Herrian zehar, nungoa naizen galdetu didatenean eta eibartarra esan, amaika aldiz entzun ditut asto-beltzarenak gure euskera gaitik. Gainera, «alkatia kabezan banda munizipalakin, eta pueblua masan...» eta horrelako erretolikak. Eibar-en esaten ez diranak eta bertako euskerarekin esan ezin ditezkeanak gure bizkarrerara erantsiaz. Eibarren euskera zaindu dutenak oso ongi konprenditzen dute giputz euskera eta lapurdikoa ere euskerarik ez dakiten gipuzkoarrak baino hobeto, jakina, eta bizkaiera gaitik zer esanik ere ez, nik ez baizik Altube berak esana da eibartarren aditza os-osorik Frai Bartolome idazle handiak erabiltzen zuan ber-bera dala. Guk ondo dakigu, gure euskera, Elgoibar eta Plazentzia-koarekin baino hurrago dagoala Markiña-Etxebarrikoakin. Baita Durango aldekoaregandik baino ere.

Honekin agertu nahi dut, gure euskera mordoiloak baduela konponketa, mordoilo irauntzen duen artean. Galtzen danean joana-joan.

Bizkaiko euskera ez dakiten giputzak, beren erakoa ez dan guztia txartzat hartzen ere badakite, eta euskerarik ez dakiten bizkaitarrak, Bilbo aldekoak bereziki: «Eibartarra, kaballua, bentania, trigua maduratzeko...» Baina, lehen ere esan dut gure lepora datorzkigun asko ta asko guk esan ezinak direla: «madurau», nekez daki eibartar euskaldun batek, batez ere zaharrak, eta era berean gutxi gora-behera «trigua». Errezago entzungo da eibartar gatzetxo euskeraz ez daki-

tenen artean: «gustoko», «txanda», «mutxikin», «okaran», «bezero», «biotzerre», eta abar, hoietariko asko erderaz zelan esan ez dakitelako.

Honela dira gure gauzak. Aspaldikoa da hau, eta batasunezko euskera bat lortzen ez dugun artean iraungo duena. Hara zer zion Mogel-ek bere *Konfesio ta komunioko sakramentuen gañean Erakasteak* izeneko liburuaren hitzaurrean (1800-ean argitaratu zan liburu hau); liburua gipuzkeraz dago eta geroagorako bizkaieraz jartzea agintzen duanean, hau dio: «Libru berau ipintzea uste det Bizkaiko euskeraz ere. Ez dakitenak uste dute Bizkai guzian esaten dala: *Ené, ara toroa plazaan manzania jaaten*. Bilbotarren erdi erdera erdi euskera daukate Bizkai guziko euskeratzat. Ez da ordea ala. Eztitsua-goak dira giputzen itzak; baña itzen euskeratasun, garbitasun, ta euskera legeen aldetik, ez dio ezer zor Bizkaikoak.»

Nork esan, «toroa manzania jaaten» ikusi zutenen ondorengoak, eurak orain hori esateko ere gauza ez direlarik besteen lepotik parre eta adar-joteak, edo hobeagoa ez dan garbikeriak eskatzea?

Prolema hauen erabagi bakarra, euskeraren batasuna da. Bata-suna nahi ez duana, prolema hoieri indarra ematen ari da. Eta, euskeran erdalkutsurik ez duen hitzak nahi dituenak, har beza esperantoa. Berdin baita, baldin euskerak ehundaka urteetatik bere dituenak, atzo norbaitek laboratorioan asmatu dituanen truke eman behar badira.

## J. SAN MARTIN.

KALAMENDI, KALAMUA, MAX.—Etxebarria (Bizkaia), Elgoibar eta Eibar (Gipuzkoa) mugatzen dituan mendi bat da Kalamua. Gaztarotik entzun izan dugu bere egiazko izena Max edo Max-mendia dala. Baina beste mendi askoren izenak bezala, hemen ere bietara dijoa errazoa. Eibar aldeko baserrietan, San Roman aldean, Max izenez ezagutzen dute. Are gehiago, ia oraintxura arte, alde honetako baserriarrak etzekiten Kalamua izenik, izen hau azken gerratean zabaldu zan bertan.

Hemendik oinharriak harturik edo, mendizale elkarteak han-hemen ateratzen dituzten boletintxo hoietakoetan inoiz argitaratzen diren «Depuración toponímica» sailetan, irakurri dugu Kalamua gaizki esana dala eta bere ordez Max behar duela. Nunbait konturatzeke Markiña-Etxebarria alderako hegietan Kalamua izen bera ezagunagoa dela. Hori, zera bezala da, Elorrio eta Elgetaren tartean dagoan mendia bezala: elorriarrentzat Erdeilla, elgetarrentzat Lapurdi-mendi (Lapurdi izeneko baserrien gainekaldean dagoalako) eta zaldibartarrentzat Pagatza-gaiña.

Agertu nahi dut, «Depuración toponímica» hoiekin kontuz ibili beharra dagoala. Toponimiak, leku-izenak, toki bakoitzean ematen zaion balioa du. Eta izeneri bere esan-nahitik zuzenketak egiten jardutzen direnak hutsak egiten dituzte herri hizkera bakoitzaren joerak eta lehenagoko dokumentu zaharrak kontuan hartu gabe egiten dituztelako beren lanak. Holako lan batean irakurri nuen Eibarko Galdaramiño gaizki esana zala eta «Galdara-muño» behar zuela izan. Nunbait konturatzeke guk maiz aldatzen dugula «i», «u»-ra, eta «u», «i»-ra. Iliá, uliá; irina, uruna; iri, uri; ikubil, ukubil; itxi, utzi; eta abar. Gehienetan, guk, «i», «u»-ra bihurtzen badugu ere, inoiz besteratuaz, «u», «i»-ra. Ikubil eta itxi (= utzi), bezala. Beraz, «muño», «miño»-ra bihurtzeak ez du ezer arritzekorik gure artean.

Baina nijoan Kalamua, Max izenetara. Kalamua ezta askok uste duten bezin berria. Ondarrua gainekaldean bada Kala-mendi izeneko mendi bat. Eta biok aipatzen ditu J. A. Mogel-ek *Peru Abarka*-ri egin zion erdal hitzaurrean (ikus 1881-eko argitalpenaren 26-garren orrialdea), *Calpe*-ren hitz-aztarna atera nahirik dio: «Tenemos por aquí dominando al mar, un monte llamado *Cala* ó *Calamendi*, es decir, en versión literal *monte Cala*. Item, á la vista del aposento y mesa en que escribo, otra cima del monte llamado *Calamuaga*.» Beraz, Mogel 1804-an hil zanez, badakigu urte horren aurretik izen hori zuela. Baita ere Mogel-ek bere lanak Markiñan mendi hortara begira egoan etxe batean idatzi zituela.

Beraz, Max izen zaharra bada ere, Kalamua, Kalamuaa edo Kalamuaga ere ez da hain berria.

Mogel-en *Calpe*-k eta gure Kalamuak baditeke sustar beretikako jatorria izatea. Behar bada ez harek uste zuen bezala, baina bai arabeen *kallā*-tik edo. Itxas bortu edo gorde-leku, gure «garbizale» burrukatu askok hain sutsu defenditzen duten *kaia* = *portu* datorkigun sustar berekoa, noski.

Max berriz, inoiz Maxa edo Maaxa aditu diet gure baserritarrei. Eta hau horrela izatera baditeke Mahai edo Mahain-etik etortzea. Holako izenak baditugu Euskal Herriko mendietan, eta beren kideko dira erderetako Mesa, Meseta eta Table. Gutxi baino ez bada ere Euskal Herri barnean bertan arkitzen ditugun formak. Horrela da Mesa de los Tres Reyes Erronkarin, frantsesak «Table» deritxotena, eta euskeraz «Iru Erregeen Maia» inoiz esan ez dana, Pirineoari «Auñamendiak» inoiz esan etzaion bezala. Erronkariko «uskaldun» zaharrentzat «Auñamendi» eta gaurko Ibar-exkergo ziberutarrentzat «Ahüñemendi», Pirineoko mendi gailur bat besterik ez da. Mendi gailur hau, Erronkari eta Zuberoako mugetatik hurbil dago, Biarnoko partean. Eta frantsesak «Pic d'Anie» deritzen diote; «Anie», euske-

razko «Ahüñe» (= Ahüña, Auma, auntz-uma) dalakotik hartua. Baina mendi soil bat, eta ez Pirineo guztia.


Erronkarin bertan, Aragoirekin mugan, Belagua (ez Belagoa, «Depuración toponímica» hoietakoak nahi duten bezala) eta Zuriza aldeko Linzola gainean dagoan mendi bat da Maz, gaur Txamantxoia izenez gehiago ezagutzen dana. Izen honekin ere berdina gertatzen da, alde batean Maz eta bestean Txamantxoia. Maz honek ez dakit ezer ikusirik izango duen gure Max-ekin. Eta Erronkariko Maz haren egoaldeko hegiak Mazelarra izenez ezagutzen dira.

Dena dela, ni ez naiz linguista. Linguistegandik baino hurbilago nago «Depuración toponímica» hortan ari diranekin. Beraz, ez dakit lan honekin ziria sartu dedan ala neroni ziria sartzeko tokia utzi dedan.

Etimolojiak alde batera utzirik, leku-izenak, toki bakoitzean esaten diran bezala jaso behar dira. Eta zuzenketak aintzinako agirieta-tik bakarrik egin genezazke. Horrez gainera, estudiorik egingo bada, toki-izenak sailka harturik izan behar du eta ez soilka harturik.

Konturatuko zerate letra bakar bat aski dala esan nahia zeharo aldatzeko.

J. S. M.





# OAR LABURRAK

## JEAN-PAUL

Paris eta Europako beste uriburu batzuetan ibili zan gaztetako urteetan Jean-Paul, ertilari-ikasle.

Etxe oneko semea, ez zan txarto ibili diruz, baiña larri be ikusi zan iñoz.

Bein beintzat goseak jota, eta diru barik aurkitu zala, esan euskun.

Pariseko Sena ibaiaren ertzeko orma ganean jesarrita, makurtuta burua gosearen gosez, gose amorratuagaz, arpegi-larri ta esteak gigili estuan.

Txarrak, oso txarrak izan ziran arek ordu luzeak Jean-Paulentzako.

Jendea bai ugari, bakoitza bere bidean. Iñork be jaramonik ez, gixajoari.

Andrazko bat aurreratu jakon, alakoren batean.

—*Gixajo ori, arpegian dok ezagun ik.*

Eta diru pixka bat emon eutson, gosea kentzeko.

Biotz oneko emagaldu beartsu baten laguntzeak kendu eutson gosea Jean-Pauleri, gaba aretan.

## MONET

Bai, Monet-en impresionismoko lauko-zale nozu. Benetan arritzen nabee bere kolore zirrarakorrak. Alaitasun bigun batean menderatzen dabee nere biotz sentikorra.

Nori ez ote-jakoz atsegín egingo Monet-en pintura-para aberatseko more-koloreak, Regoyos gogoratzen deuskuezan orrek kolore argiok?

Udabarri-kolorezko oial eztitsu baten aurrean gelditzen naz gaur. Argiuna koloretsuak, kerizpe nabarituekin. Zeru laiflotsua ikusten da, arboladoi ugarien artetik. Arribidea beian, basoaren erditik ziar.

Eun urte ta geiago izango dira, Copenhague-n dagoan lauko au pintau ebalá paristar pintore bikain onek.

Orreagako baztarrak gogoratzen deustaz, berantza Auritzerako bide zoragarria. Ango bide egokia, piñu, pago eta aritz-tantaien kerizpe arteak.

Ez nabe bereganatzen Monet-en beste oial lilluragarriak gaur. Onixek bakarrik.

Nere gogoá ez doia «Impression», «Le Champ d'avoine», «Les Peupliers» edo «Gare Saint-Lazare» lauko-oialen atzean.

Matisse beraren kutunenakaitik be ez enuke truke egingo («Bois de Boulogne» eta «Notre Dame en fin d'après-midi»: parkatu egidazue gaur zuek be!) Chailly-en-Bière'rako bidean dagoan arboladoi onegaitik. Ez da, Van Gogh eta Cézanne eurenen bazter-oialik onenakaitik be ez.

Atsedetik aundienean arnasea artzea gure dot gaur, Monet-en oial onen aurrean... Odol-otzituzko algodoi-laiñoak joan eta zerua ondo garbituta ikusi arteraiño, edo euri-zaparrada on batek Chailly-en-Bière'rako arribide gorrixka au ondo busti arte... amesetan.

## AMESLARIA

Sarriten alkar ikusten dogu Gariko adiskidea ta biok. Amesetan eta amesetan beti nire adiskide on au.

Ogei urte daroaz berak, ixarrik amesetan.

Liburu barri bat asmatzen dau egunsenti bakoitzean. Bein be ez dau lumarik artuko. Amesetan bai, amesetan egingo dau, eta asi barik geldituko da liburua.

Eundaka ta millaka gai agertu dira bere buru ameslarira, eta liburu bat egiteko legin be ez da izan.

—*Asi zaite beingoan zer edo zer egiten, gizona, bizitza guztia joango jatzu amesetan ostantzean-da!*

—*Bai, asi bearko dot zeozegaz.*

Bein be ez da asi. Eta bildur naz, ezetan asi be egin barik joango ete-jakun Gariko adiskidea. Bere buru barruan geldituko ete-diran, idatziz Euskal-Literaturara jaio barik.

MARKUE.

# AINGIRA KUMAK

Egilleak: Umientzako antzerkia.

URRE.—Amonatxo zaar bat irudituko dabena.

MANU  
KELE  
PAUL  
BEGO  
GOZO } Amanogaz bizi diran neska mutil umezurtzak.

KAKU.—Erriko zaindari edo aguazilla.

YHON.  
KETY } Pelikula egilleak.

Gaurko denporetan.

Etxe zaar, Traketz eta erdi utseko sukaldia.

## I IRUDIA

URRE, MANU, KELE eta PAUL

MANU.—(Asarre.) Kendu alkondara ori.

KELE.—Zegaitik?

MANU.—Neuria dalako.

KELE.—Guzurra.

MANU.—Guzurra dala?

KELE.—Ez da zuria, Paul'ena baño.

MANU.—Esaten dozulako be! Kentzeko esan dautzut.

PAUL.—Amuma, neuria ez da ba?

URRE.—Danona, txotxo, danona.

KELE.—Orrela, neuria be bai, ez?

URRE.—Pobrien kontuak olaxe dira. Al dan moduan konpondu bear.

PAUL.—Neuk erabilli neban atzo.

MANU.—Ta zer? Baita nik zure prakak, eta zure jertza, ta zure abar-ketak. Ta zer? Niriak dira? Niriak bez ta ezta zuriak be. Etxe-kuak baiño.

URRE.—Txotxo, noiz ikasi bear dozue alkarren maitasunez biziten, anai lez alkar artzen?

KELE.—Beti-beti beorrek euki nai izaten dau errazoia.

MANU.—Ta zuk nai dozuna egin. Ez? Eztozu ba zeuriagaz urtengo. Ezta, ezta... Eztozu urtengo.

(*Alkondaratik tengadaka diardula apurtu egiten dautsa.*)

KELE.—Ikusten, amuma, ikusten?

URRE.—Aitaren... Orain amumarentzako biarra, ezta? Beti bardin. Egun guztiak zuen txatalak konpontzen.

MANU.—Nai ta ez dot egin.

KELE.—(*Asarre.*) Ezetz?

URRE.—Manu...!

MANU.—Ba daki naita ez dodala egin ta zegaitik dabil niri kolpe egiten?

URRE.—Ba dakit. Baña zure zatarkeriak eta gaiztakeriak beti ekarten dabe olako zerbait.

KELE.—(*Asarretuta, alkondaria kendu ta MANU'ri botaten dautsa.*)

Or, orain, zeuretzat. Baña niri ez geiago eskatu ikomelaturik. Alperrik ez eskatu.

MANU.—Nai be ez nik zurerik.

KELE.—Ikusiko dogu.

URRE.—Jesus...! Jesus! Zer esango dabe orrela ikusten zaituenak? Gure auzokuak zer esango dabe?

PAUL.—Amuma, eztakizu? Eztakizu? Gaur Manu eskola igesi ibilli da. Egia da. Benetan.

URRE.—E? Benetan?

MANU.—Nai dozuz tollanak artu min laban orrek?

URRE.—Ia, ia esaten dozulako be gero. Zeuk oraindik errazoia? Zegaitik ez zara juan eskolara? (MANU, *musturak ipiñita, ixilik.*) Esan, zegaitik ez zara juan?

PAUL.—Arrabal txikiñian ibilli da. Neuk ikusi dot. Egia. Benetan. Neuk ikusi.

MANU.—A lapiko exiki! Atrapauko zaitut kalia. Ikusiko dozu, ikusi. Amak be ez zaitu libratuko ba.

URRE.—Zelako lotsagabekeriak dira orreik, Manu? Ezin dautsazu baketan laga ilda dagon ama gaixoari? Beste bein egingo dozu olakorik?

MANU.—(*Betozkoz, makur, ezezko kiñua egiten dau.*)

URRE.—Belauniko jarri ta egin parkatu jauna, anaiari, olako gaiztua izan barik. Eztakizu mutil gaiztuak gantzeruen lagunak izaten dirala?

KELE.—Amuma, Patxi be gaiztua izan zalako, aitzetan bera jausi zan, ezta?

MANU.—A, lantzoia! Ori be bai? Txirrist egin ta laprastadaka jausiten diranak be gaiztuak izaten diralakuan? Ori be sinistu, ori be?

KELE.—(MANU'ri eskua luzatuaz, parkamena eskatzeko kurutzeari egiñaz.) Ala ba, egin parkatu jauna.

MANU.—(*Destañez.*) Zeñeri? Zuri?

KELE.—Ikusten, amuma? Ez dau egin nai.

MANU.—(*Parkatu jauna egiterakuan, maltzurkeriz txitximurka egiten dautsa.*)

KELE.—Ai! (*Asarre.*) Orrek ez dau balio!

URRE.—Manu!

MANU.—(*Parkatu jauna ondo egitean, KELE'k eskua jaso ta zudurrrian joten dau.*) Ikusiko dozu, ikusi!

URRE.—Geldi! Naiku da! Zegaitik ez zarie ibiltzen alkarregaz jokuanedo, ikusi-makusika-edo, beti beti alkarri txonpinka ibilli barik?

KELE.—Onegaz? Tranpak egiteko?

MANU.—Zeñek?

PAUL.—Estreiñia bestela be!

KELE.—Neu lenen.

MANU.—Neu naz zaarrena.

PAUL.—Baita ni gaztiena. Ikusi makusi.

KELE.—Zu lenen? Guzurretan ibiltzeko?

PAUL.—Ez. Benetan. Bene-benetan. Ikusi-makusi.

MANU.—Zer ikusi?

PAUL.—Ikusten dot, ikusten dot... *Ma*. Edo ez. *Le*.

KELE.—Ikusten ointxe be? Zer da, *ma* edo *le*?

PAUL.—*Le*.

MANU.—Lepua.

PAUL.—Ez.

KELE.—Lepanto.

PAUL.—Ez.

MANU.—Lefante.

PAUL.—Lefante? Elefante esaten da. Ze kakote da berau?

MANU.—Lemia.

KELE.—Lekia.

PAUL.—Lekia? Ori zer da ba?

MANU.—Eztakizu lekia zer dan? Botilletan egoten dan ura garbiketak egitek.

KELE.—Ori lixibia izaten da. Nik lekia esan dot. Indarrak eta eukiten dabe azala. Babak-eta eukiten daben azala.

PAUL.—Ez.

MANU.—Le... le... Lesteko aizia.

KELE.—Aizia ikusi egiten da ala?

PAUL.—Aize bolarak ez dira ikusten?

MANU.—Zudurreko kandelak be ikusi egiten dira ta... kandelak izaten dira?

KELE.—Le... le...

MANU.—Le... lebatza!

PAUL.—Ikusten?

MANU.—Le... le...

PAUL.—Esango dot?

MANU.—Le... le... Lekeitio.

KELE.—Le... leloia!

PAUL.—Ezin? Ezin?

MANU.—Zer da ba?

PAUL.—Igarri... igarri...

KELE.—Ointxe be tranpetan dabil au, amuma!

MANU.—Le... le...

KELE.—Esan nigaitik.

PAUL.—Esango dot, amuma?

URRE.—Onezkero...

PAUL.—Lapak.

MANU.—(*Bizi bizi.*) Emoten ba dautsut gero... Lapak *le'gaz* asten da?

PAUL.—Ez da elegaz asten?

KELE.—Baña zuk *le* esan dozu, *le*.

PAUL.—Leoirik ikusi dozu iñoiz, amuma?

URRE.—Bai orruka be.

PAUL.—Askotan?

URRE.—Birritan bai beintzat.

KELE.—Nun?

URRE.—Zirku bat etorri zan uda baten errira.

PAUL.—Leoi ta guzti?

URRE.—Lau bai, gitxienez.

PAUL.—Andiak?

URRE.—Burdiñazko kaiol andietan sartuta!

PAUL.—Ene! Ta bildurtu be ez?

URRE.—Mutiltxoak pozik juaten ziran eurak ikusten. Ogi zatiak eruaten eutsezan, arrain azurrak eta buruak, okela ondakiñak. Ta leoiak, bota ala, iruntsi.

MANU.—Zelan emoten eutsezan ba?

URRE.—Makilla luzien puntetan.

KELE.—Tengadarik ez eutsen egiten?

URRE.—Bai makillak brintzatu be!

MANU.—Orain zegaitik ez dabe ekarten leoirik?

URRE.—Zetarako? Iru mutiltxo urreratu ziran bein.

PAUL.—Ni lako txikiak?

URRE.—Ba... ortxe ta ementxe.

PAUL.—Ta?

URRE.—Jolasean ebiltzan, arri txikiak eta apurrak leoei botaten.

MANU.—Ta leoiak geldi?

URRE.—Orruka, amorruz. Pozik ebiltzen mutiltxoak. Bitsetan, leoiak zirikatzen.

KELE.—Ta arriekin jo egiten zituen?

URRE.—Jo ta bizitu. Zoratu eragin. Amorratzen ipiñi. Ta bein...

PAUL.—Zer, amuma, zer?

URRE.—Txirrist egin eban mutiltxo batek. Arria botatean, gorpuztaren indarrez, laprast. Burdiñazko kaiola ondora jausi zan. Jausi ta batera leorik andienak erpakin ten egin eutsan, ten, bere albora.

KELE.—Zelan ten?

URRE.—Burdiña artetik.

PAUL.—Il egin eben?

KELE.—Erpa bakarragaz?

URRE.—Ango ikara, txiliotsa, estutasuna!

MANU.—Nun egozan ba leoien zaintzalleak?

PAUL.—Domatzallerik ez euken?

URRE.—Leoi zaintzallea agertu zan bixkor. Tiroka asi zan, baña leoia gero ta itsuago, ez egoan umetxoari lagateko. Erpakin arpegi guztia urratu ta bere odola mixkaten itsu-itsu ebillan.

KELE.—Ta ikusten egozanak ez eben ezer agiten?

PAUL.—Zeu urreratu ziñan, ala?

URRE.—Estutu ziran danak. Didarrez eta negarrez egozan. A zan estutasuna! Zaintzallea beretik urtenda ebillan, irizil luze bategaz eta latiuagaz jo ta jo kaiolako burdiñak... Leoia orruka atzeratu zanian, mutil txikiak ez eukan zudurrik, ez begirik, ez arpegiko narrurik... Odol utsa zan. (*Ixilunea.*) Itzala da, ez Paul?

PAUL.—Korapillua egin yat eztarrian.

URRE.—Ez estutu, mutil. Emen ez da jazoten Jaungoikuak nai dabe-  
na baiño-ta. Egun aretan be... Aingerutxuak nai izaten ditue  
zeruetan mutil urduri eta zirikalariak be.

MANU.—Nungua zan mutilla?

URRE.—Nungua? Gaur bizi izan ba litz, zuen osaba izango zan.  
Zuen osaba Miel...

## II IRUDIA

URRE, MANU, KELE, PAUL, BEGO eta GOZO

(BEGO eta GOZO agertzen dira. BEGO busti busti eginda dator. Ezin dau barbarik egin. Negarrez eta sispuruz betetik jardungo da. Atian agertzen diranean, lenengotan GOZO lotsakor dator, baña gero guzurril ezin biribilduta igarriko da.)

KELE.—Ene! Ikusten?

MANU.—Uretara jausi, segurutik.

GOZO.—Eztakizu, amuma?

URRE.—Ze jazoten da?

GOZO.—Ondartzan ebillan eta...

KELE.—Ondartzan? Ba! Sinistu nai dabenak!

URRE.—Ez dautzuet beti esaten ara ez juateko?

GOZO.—Ondartzan ebillan, eta...

URRE.—Zenbat bidar entzun biar dozue ori? Zelako itxura eta egoera da ori.

GOZO.—Ondartzan ebillan, eta...

URRE.—Merezi zenduke goitik bera ebagi-ebagi egitea.

KELE.—Nik ori egin ba neu...

GOZO.—Ondartzan ebillan, eta...

URRE.—Ondartzan bakarrik?

GOZO.—Ibon'ek eta lagunak ura bota dautse.

(KELE eta PAUL kanpora juaten dira, BEGO'ri irrika.)

## III IRUDIA

URRE, MANU, PAUL, BEGO eta GOZO

GOZO.—Benetan ura bota dautse.

URRE.—Ez baketan laga ba zeuntse.



BEGO.—(*Zotinka.*) Nik... nik... nik ez dausat... nik... nik... nik ez.  
 MANU.—Gaur ez, baña atzo ez ziñan ibilli?  
 BEGO.—Gaur ez... gaur ez beintzat. Atzo bai, baña gaur... ez...  
 URRE.—Ez dautzut beti esaten mutillekin ez ibilteko?  
 GOZO.—Gu geldi geldi gebizen.  
 URRE.—Zeintzuk dira mutillok?  
 MANU.—Postura, zerbait egin dautsazuela.  
 GOZO.—Eurak asi dira.  
 BEGO.—Kirrixka bat euken ta guk kendu dautsagulako eurak asi dira.  
 MANU.—Jakingo dot.  
 URRE.—Aitiaren... Zer jantziko dautzugu orain? Gure etxian zer dagola uste dozue?  
 BEGO.—Otzak ilten nago.  
 URRE.—Egongo ez zara ba, burutik biatzetara bustita zatoz da?  
 MANU.—Ortxe dago, amuma, gure alkondaria.  
 BEGO.—Mutillen alkondaria neuk jantzi? Danok burle egiteko?  
 URRE.—Nundik asi be... Erantsi erropok eta sartu zaite oian ta egon antxe sikatu artian. (BEGO *eta* GOZO *juaten dira. Batetik bestera dabil* URRE, *tarteak arakatuten, erroparen bat billatu naiean.*)  
 Oneik umiok...! Nerbixuak be etenda lagaten dautsez bateri.

#### IV IRUDIA

URRE, MANU, KELE *eta* PAUL

(KELE *eta* PAUL *agertzen dira, jantzi batsuk dakarrezala.*)

KELE.—Politak dira, ez, amuma?  
 PAUL.—Erregalo emon dauskuez, erregalo.  
 URRE.—Zeñek?  
 KELE.—Eztakizu? Doate dendariak. Eztakizu bere errekaduak egiten ibilten nazala?  
 PAUL.—Erregalo, amuma, benetan, erregalo.  
 URRE.—Ta?  
 KELE.—Ikusi dau Bego negarrez etorten.  
 PAUL.—Balio dabe, ezta?  
 MANU.—Esaten juango ziñen zuek, kontaten.  
 KELE.—Gu esaten?  
 MANU.—Ez dautzuet igarri? Ez? Atzaparra mixkaten nagolakuan?  
 PAUL.—Gu esaten? Ez. Ez da ala, Kele? Berak ez dausku emon ba?  
 KELE.—Ondo ba daukaz arrotuta ibilliko da. Danok baño dotoreago.

PAUL.—Andereñuak, maistriak pentsatuko dau aberastu egin gareala etxian.

URRE.—(*Jantziak ikusiaz.*) Ia... ia... Jaungoiko maitia! Oneik neska gangarrok lotsatuta laga bear gaitue, lotsatuta...

KELE.—Ta ba dakizu? Arek esan dau zuri ez kontateko, baña...

PAUL.—Ez esateko esan dau.

MANU.—Zer?

KELE.—Molla gañetik uretara jausi dala.

URRE.—E?

KELE.—Bai, amuma, ez esan kontatu dautzudanik, e?

(*URRE neskaen gelara juaten da.*)

## V IRUDIA

MANU, KELE eta PAUL

PAUL.—Esan dabe noiz ittoko ibilli dala.

MANU.—Olako arin ittoten dalakuan?

KELE.—Ezetz? Aitona be itto zan ba.

MANU.—Itxasuan. Ta igarian ez ekialako.

PAUL.—Ba ekian.

MANU.—Zeñek esan dau?

PAUL.—Amumari itanduko dautsagu gero.

MANU.—Neuk dakit ez ekiala.

KELE.—Dana dakizula pentsatu!

MANU.—Zuk baiño geiago bai beintzat.

KELE.—Zuk?

PAUL.—Saustan ba dakizu nun dagon?

KELE.—Saustan? Kirten! Saturran!

MANU.—Ene! Saustan eta Saturran bat diralakoan?

KELE.—Zu etzara Saustan'en iñoiz izan.

MANU.—Ezta zeu be Sankeolimon.

KELE.—Ara txis egiten dabenak bakarriak eruaten dituelako. Ez da egia?

MANU.—Irri egitearren esaten dozu ori.

KELE.—Tres mayuskularik egiten be eztakizu zuk.

MANU.—Ez da maixuak be.

KELE.—Jakín ez?

PAUL.—Maixuak jakín ez?

MANU.—Zelan egiten da ba?

KELE.—Asiera ta buztena biribil-biribil eginda.

MANU.—Ori be sinistu, txo?

PAUL.—Ta Malaga ba dakizu nun dagon?

MANU.—Jakin ez? Itxas ertzean. Barra egalean.

PAUL.—Nungo barran?

MANU.—Ondarruko barran.

KELE.—Mozolo! Malaga mapan dago.

PAUL.—Zereko papan. Eztakizu andrak eguzkia artzen nun egoten diran, barran?

## VI IRUDIA

MANU, KELE, PAUL, URRE, BEGO eta GOZO

(URRE, BEGO eta GOZO agertzen dira.)

URRE.—Sikatu egizu ondo ondo burua. Ondo gero.

(BEGO, GOZO'k lagunduta, burua sikatzen ibilliko da.)

PAUL.—Amuma, gure aititak ba egian igarian?

URRE.—Pixkat. Ez asko asko.

PAUL.—Entzuten?

KELE.—Gure aitita zelakua zan?

URRE.—Ez andi ta ez txiki.

KELE.—Argala?

URRE.—Totolo.

PAUL.—Zuri? Baltz?

URRE.—Ez zuri ta ez baltz. Mariñelen koloreko. Neguan illun, atuntsuan gorrixka. Ule ta bizarra be urre koloreko.

KELE.—Arrantzale ona izango zan, ez?

URRE.—Bestien antzeko.

MANU.—Ixurdetan eta ibilten zan?

URRE.—Ixurdetan ain zuzen be, ez. Ixurdei laga egin bear yakoe arraiñak ataraten. Atunetan, zimarroieta, antxoatan, berdeletan...

PAUL.—Ona zan?

URRE.—Okerrik ez neutsan ezagutu. Baiña, txotxo, zetarako orrenbeste jakin gura?

BEGO.—Sikatu dot, amuma.

URRE.—Beste bein ibilten ba zara...

MANU.—Ori? Beti mutillei burletan ibilten da.

BEGO.—Ez da egia.

PAUL.—Ezetz? Ta gero... negar ta negar egiten be eziñen ibilli atzo bertan?

URRE.—Negarra? Berak ikusiko dau. Len be gurian negarra obeto dago, kaletik malkorik ekarri barik.

GOZO.—Origaitik ibilten zara beti baltzez jantzita?

URRE.—Origaitik? Alarguna naizelako.

GOZO.—Alargun izatea, zer da ba?

URRE.—Bakarrik gelditzea.

PAUL.—Orrela dala orain etzara alargun.

URRE.—Zegaitik ez?

PAUL.—Geu be emen gagoz, eta...

URRE.—Baña laguna falta, senarra falta.

BEGO.—Ni laguna baño geiago naz, ez?

MANU.—Izan ez? Inpernuko barrabasa zu.

BEGO.—Entzuten, amuma?

PAUL.—Ta Martintxu be alarguna izango da? Gaiztuago da...

URRE.—Batek ba daki.

KELE.—Eta Kospa be alarguna da?

MANU.—Eztakizu Pello'neko ama dana? Ama izan eta alarguna?

PAUL.—Ori jakiteko aiña pospororik be eztaukazu buruan?

KELE.—Asko esan, zera, kofradixako lendakaria zara zu bestela be-ta.

GOZO.—Ta zegaitik, amuma, beti beti baltzez jantzita ibilten dara?

URRE.—Ezaugarri bat. Oitura bat. Zerbaiten utsunea, illuntasuna agertzeko.

KELE.—Orregaz agertu nai dozu aitita maite zendula, ez?

URRE.—Zeiñek ez?

PAUL.—Eta, amumatxo, alargunei bizarrak urteten dautse okotsean?

URRE.—Alargunei eta alargun ez diranei.

PAUL.—Ollo kakagaz igortziten dozue, ala?

URRE.—Nok esan dautzue ori, Paul?

PAUL.—Neuk ikusi neban atzo Peru, igortzi ta igortzi.

KELE.—Bai neuk be. Ta berak esaten eban bizarra ariñago urte-teko zala.

URRE.—Bakarrik ebillan?

PAUL.—Bai. Ni neuk be, Peru lako izatera eltzen naizenian, ori egin bear dot?

URRE.—Kontuz gero olako zikinkeriak egiteagaz.

PAUL.—Ta bizarrak urten ezik?

URRE.—Orren kezkarik ez artu, ez orixe.

KELE.—Ba eukan aiteitak bizarrik?

URRE.—Kirikixu batek baño sarratuago.

MANU.—Arek asto pekorotzagaz igortziko eban eta...

URRE.—Zeinek esaten dautsuz olako gauzak, nok?  
PAUL.—Eztakizu? Peru-ta, Ibon-eta, Patxitxu-ta, olakoxe kontuak  
esaten ibiltzen dira beti.

(*Atea jotzen dabe.*)

BEGO.—Atea jotzen dabil norbait.

GOZO.—Bai zera be.

MANU.—Onek beti atearen bildurra eukiten dau.

(*Atea barriri.*)

BEGO.—Egia da edo ez? Eztozue entzuten?

MANU.—(*Giltzan zulotik ikusiaz.*) Aguazilla da. KAKU aguazilla.

PAUL.—Eskola igesi egin zendulako etorriko da. Edo uretara jausi  
zarealako.

KELE.—Eta orain zer?

URRE.—(*Deika.*) Aurrera. Ai txotxo, orain izango dira kontuak.  
Gaur be ba dakazue zuek garrazkeriren bat.

## VII IRUDIA

MANU, KELE, PAUL, URRE, BEGO, GOZO, KAKU, YHON eta KETY

(KAKU aguazilla sartzen da YHON eta KETY zine egi-  
lleak beragaz datozala. Sartu orduko KETY egal batetik eta  
bestetik argazkiak ataraten ibilliko da. Umiak bildurrez  
dira.)

KAKU.—(*Garratz.*) Mutil gaizto baten billa gatoz.

URRE.—Zein da ori?

KAKU.—Erritik okerreana.

URRE.—Gurean ain zuzen be? Emen?

KAKU.—Ementxe, bai, ementxe.

YHON.—(*Erreak gaitz esanaz.*) Barrabas txikiaren billa gatoz. Erri  
onetako barrabas txikiaren billa, geugaz eruateko.

URRE.—Baña...

KAKU.—Eskola igesi ibiltzen dana. Ementxe ez dago?

URRE.—Beingoa parkatzen ez dakizue?

KAKU.—Leyoetako kristalak apurtzen dakiana.

MANU.—Nik eneban apurtu. Nik eneban apurtu. Nik arria bota neban, baña nireak ez eban jo.

KAKU.—Ixi! Toki guztietan arrika ibilten dana. Tiragomakin ibilten dana...

URRE.—Baña... eneban apurtu, amuma. Sinistu. Benetan esaten dot. Juramentu egitea nai? Nik eneban apurtu. Ni enitzan izan.

KAKU.—Danakin auskan ibilten dana, danoi geiago egin nairik.

KELE.—Neu naz, amuma, neu naz.

URRE.—Zeu, txotxo?

KELE.—Neu juango naz kartzelara, neu.

KAKU.—Zu ez... zu ez... Ori elitzake zuzena izango. Orrela ezin leike ezer parkatu. (MANU'ri *jarraituaz.*) Ori da, ori...

KETY.—Auxe, ez? Ba dauka itxura.

(*Argazkia ataraten dauksa, baña MANU'k bere burua esku artean eskutatzen dau.*)

KAKU.—Ez eskutatu, gaizto ori, ez eskutatu.

MANU.—Geiago ez! Geiago ez!

KAKU.—Etorri onera. Aurreratu. (*Eutsi ta YHON'eri erakutsiaz.*)  
Atsegin? Ba dauka itxurarik?

YHON.—Esan leike baietz. Plantakoa da.

KETY.—Okerra da? Benetan?

KAKU.—Gaiztua? Piper miña bera.

URRE.—Ez ainbesteko. Edozein mutillen antzeko. Ba dago errian orrek baño geiago egiongo dabenak, azkenean gixajo orrek ordainduta be.

YHON.—Benetan barrabasa?

KAKU.—Ikusiko dozue.

YHON.—Orrela dala, ogei milla peseta.

URRE.—Zer? Ogei milla peseta? Zegaitik? Nundik atara? Etxe uts oneri begiratu ta ogei milla peseta? Komoda zarrik ikusten dozue gurean, urrez beteta egoteko itxurakorik?

KAKU.—Atara ez, Urre. Sartu, sartu.

URRE.—Baña guk ezin. Prakazarrek erosteko be eztaukagu ta ogei milla peseta gurian?

KAKU.—Naiago dabe prakazarrekin.

URRE.—Ogei milla peseta?

YHON.—Zer? Ez deritxo ondo? Ogetabost ba.

URRE.—Neu juango naz ointxe alkatiagana.

KAKU.—Baña etzaitetz itsutu. Alkatiak ez dauka onetan sartu bearrik.

URRE.—Ezetz? Ikusiko dogu.

YHON.—Ogetabost, ba, ogetabost.

- URRE.—Alargun zaar bateri zelan kendu leikez ogetabost milla peseta? Nundik atarateko? Obe biotza kendu bein.
- YHON.—Zer diño? Ez dala konforme? Ogetamar ba, baña zentimurik be ez geiago.
- KAKU.—Ori da suertia, ori. Ume oker eta sapu oneik dirala ta eztirala. Ori da...
- URRE.—Neu iltea nai dozue? Orren billa zabize?
- KETY.—Ta zuri, berrogetamar.
- KELE.—Ze erru daukat nik? Nik ez dot ezer egin. Ni enaz ezetan sartu.
- KETY.—Orixegaitik. Egin ez dozulako.
- URRE.—Zoratuta al gabiz danok?
- YHON.—Ta zuri, amonatxo... Lenengoz musu bat, maitagarri zarea-lako, ta gero... eun milla peseta.
- URRE.—Auxe da lotsagabekeria! Jaunak, ezin dot sinistu. Nik ezin nei...
- KAKU.—Ori da suertia, ori.
- URRE.—Ondamendia! Betiko ondamendia! Zelako gauzak ekarten dauskuzuz?
- KAKU.—Zinekuak! Zinekuak!
- URRE.—Ezin dot irunsi diñozuenik. Zenbat guzur darabiltzuez? Zer nai dozue nigandik? Esan egizue, bein esan!
- YHON.—Ez estutu, amonatxo. Nasai artu. Ez bildurtu. Pelikula egilliak gara, mundu guztian ikusten diran pelikulen egilleak.
- KETY.—Amonatxo baten estutasunak agertu nai doguz. Ume txikiz betetako amonatxo baten kezka ta burukomiñak.
- URRE.—Kezkak? Kezkak eta burukomiñak? Salduko dautzuedaz nai dozuezan aiña. Baña besterik eztakit ezer.
- YHON.—Zer jakin ez?
- KETY.—Bizi guztian egin dozuna egiten jakin ez?
- URRE.—Ene ba! Nik ezer egin ez da dot!
- MANU.—Eztakizula ezer, amuma? Ez estutu. Neuk erakutsiko dautzut.
- URRE.—Zuk, txiki?
- KELE.—Charlot'ena egiten ba dakigu beintzat. Popeye be bai. Geu lakoxia da, a. Eztakizu?
- BEGO.—Ara, zu dotore dotore jantzi ta...
- YHON.—Ezelako ardurarik eta kezkarik ez artu. Konponduko gara.
- KETY.—Guk ez dautzugu eskatuko bizi guztian egin dezuna baño besterik. Mutiltxo oneik zaindu, eurei jaten emon, jantzi ta... eskola igesi egiten laga ez.
- URRE.—Nik ezin sinistu, baña, ezin sinistu... Parte txarrekuak ez ete dira eurok? Zein diabruk bialtzen ete daustaz niri, neure azken egunak garratzuten?

YHON.—Ai, andratxo. Iñok be ez ditu sinistuten pelikuletako gauzak.  
URRE.—Ta zeñeri eskerrak emon bear dautsaguz alderdi onekuak  
ba dira?

YHON.—Zeñeri? Noiz ittoko ibilli dana alabatxoari. Orduntxo jakin  
dogu nor zarien ta zure illobak nortzuk diran. Ta azpaldi, ume  
errukarren aldez egiteko asmotan gabiltzan pelikulia, ementxe  
egin al izango dogu, zure illobatuak erabilliaz.

KETY.—Propaganda edo zabalkunde pixkat egiten asi gaitezen, gertu  
danok arretratu bat danok batean atarateko.

URRE.—Ain baldar?

YHON.—Bizi zarien lez, bardin bardin. Zenbat eta gordiñago, obeto.

PAUL.—Itxaron pixka baten.

KETY.—Nora zuaz?

PAUL.—Olo kaka egitera nua, bibotia urteteko.

MANU.—Tonto lapiko! Olako arin urtengo dautzulakoan?

KAKU.—Geldi errekontxo! Arrabal txikiñian zabizelakoan zagoze?

KETY.—Bibotia nai dozu?

PAUL.—Olgetan...

YHON.—Olo kaka baño erremedio obeagoa ta seguruagoa neuk emon-  
go dautzut.

PAUL.—Asto pekorotza?

YHON.—Arto bizarra. Eztakizu? Begira... (*Patrikaratik bibote txiki  
bat atara ta ipinten dautso.*) Pozik?

(*Danak berari barrezka.*)

PAUL.—Ta luze luze azten ba yat, zelan ebagi?

YHON.—Orain dotore zagoz, bai?

BEGO.—Ta gu? Olako itxusi?

GOZO.—Ori, ori! Ta gu?

KETY.—Noiz orain baño dotoreago?

KELE.—(*Arro.*) Txapela lagako daustazu, Kaku?

KAKU.—Erretratateko? (*Emoten dautsa.*) Ta bastoia?

MANU.—Ez asarretu, baña... Etzara gogoratzen egun baten, Zubizar  
onduan, igari egiten gendulako, erropak zelan gorde zeunskuzun?

KAKU.—Ta?

KELE.—Bai? Ta egun aretan bastoiaren faltarik etzendun artu?

KAKU.—Demoniño demoniena? Zein zan ori? Zein zan nire bastoia  
nik igarri barik gorde ebana?

MANU.—(*Egal batetik bastoia atara ondoren.*) Kaku! Ixi! Orain neuk  
agintzen dot. Neuk daukadaz emen txapela ta bastoia!



(Argazkia ataraten dauksen bitartean, dan danak dotore ta alai, barre eragiten, kopletan diardue, onetan une barre-garri bat igaro eragiñaz.)

KELE.—Ze izen ipiñiko dautsazue gure pelikuliari?

KAKU.—Zuenari? Nik aginduko ba neu... Barrabasak!

YHON.—Ez, ez... Egokiago ez ete Txitxarro kumiak?

MANU.—(Arro arro, pregoia joten lez.) Alkate jaunaren aginduz adierazoten da... erri onetan egingo dan pelikuliak eruango daben izena, erri guztiaren borondatez izango dala... AINGIRA KUMIAK.

DANAK.—Ori! Ori! Ederto! AINGIRA KUMIAK!

A M A Y A .


\* \* \*

OARRA.—Kanturako modua dagonetan, azkena kantuz emon lei, onetara:

*Bost anai arreba  
beti ur ertzean,  
batsutan eskolan,  
igesi bestetan;  
KAKU aguazillan  
tollanak artzean,  
estu ibilten gara  
kale bazterretan.*

*Amuman kontseju  
Kaku'ren tollanak,  
maixuen alegin...  
alperrik dan danak,  
Aingira azi giñan,  
kresalez buztita,  
Aingira ilgo gara  
beti, bai, AINGIRAK.*





# LIBURVAK

AGUSTIN P. U. ITURRIAGA. *Ipuiak*. Auspoa Liburutegia, 71-72. Tolosa, 1967.

Pascual Iturriaga-ren alegiak. Laugarren argitalpena dute alegiok, baina lehenengoak denak osorik. Aurretiko argitalpenak: Donostia, 1842; Tolosa, 1884; eta, Tolosa, 1932, urteetan.

Liburuaren hitzaurreak dionez, Iturriaga hirugarren deitura zuen; lehendabizikoa Pascual eta bigarrena Ugalde. Lehendik hala zirudín zalantza batzuek izan badira ere.

Hernaniar jator hau 1778-an jaio zan eta denbora haietan euskerazko eskolekin gehien arduratu zen gizona zan, Luis Astigarragarekin batean, nere *Euskeraren inguruan*-en laugarren kapituloan ongi bereizten dudán bezala. Alde honetatik gorezgarriak ziren denbora haretan bi jaun hoiek egin zituzten lanak. Eta, Iturriagak, eskoletarako irakurgaiak gertatzen, batez ere. «Auspoa»-k berak argitaratu zuen 1963-an bere beste lana, *Jolasak* («Auspoa», 25) eta oraingo *Ipuiak* osatzen dutena. Inungo ikastoletan falta behar ez litzazken irakurgaiak hauek.

Liburuaren zertzelada nagusiak ematen dira hitzaurrean.

Iturriaga dugu euskal literaturak maixuetariko bat, batez ere euskerazko eskoletara begira jartzen badugu. Bere Ipuiak, lehen, gaur eta betiko gaiak izango diran alegiak dira. Euskera aberats eta txukunean eginak gainera. Euskeran, alegigileekin ez gere izan hain hurri, baina danetan gorengoa izango dugu, noski, Iturriaga, behar bada Oxobirekin batean (honen bilduma berezia «Gure Herria»-k

argitaratu zuen 1966-an *OXOBI-ren lan orhoitgarri zombait*; ikus neronek EGAN-en egin nion aipamena, 1967-ko 1-6 zenbakiaren 112-gn. or.).

Iturriagaren alegiak Esopo-gandik Samaniego-ra arte, Pedro, La Fontaine eta Iriarte-gandik pasaturik, orotarik bilduak daude, eta batzuek bere buruz sortuak, beste haiek ere beren gisa egin zuten bezala. Euskal Herriko ipui zaharrenak ere hoiien antzerako zombait agertzen bazaigu ere, idatzitakorik zaharrenak induen *Pantxatantra* eta *Hitopadesa* dira.

Esopo-ren itzulpena euskeraz lehenengo eman zuena Bizenta A. Mogel izan zan, 1804-an *Ipui onak* argitaratzean. Honen hirugarren argitalpena «Auspoa» berak egin zuan 1963-an.

Alegilari hoiek aipatzean nahi ta nahiezkoa zaigu, Bizenta Mogel, Iturriaga eta Oxobi-rekin batean, Artxu eta Goyetxe aipatu beharra. Artxuk, zuberotarrez argitara zituen 1848-an La Fontaine-ren alegiak, eta Goyetxek lapurteraz 1852-an.

Alegi eta ipui bertsoz eginak, meritu handikoak izango dira Pedro Ormaetxea Aldana-k *Lontzi Aba'ren Ipuintxuak* izenez Santiago de Chile-n 1947-an eta 1948-an argitaratutako bi liburuak, hori ez dut ukatzen, baina haurrentzat astunegiak egiten dira bizkaiera latz batean daudelako. Haurren mundua arina eta biguna da; molde gogorrez egindako euskera iruntzi ezinezkoa du. Eusebio Igarza-k «Oleriti»-n argitaratuak askoz txukunagoak dira.

Baina Gipuzkoa eta Nafarroako haurrentzat, guztietan hoberena, duda gabe, Iturriaga da. Behar bada Bizkaikoentzat ere bai, batez ere Gipuzkoaren mugakoentzat. Haurrentzat irakurgai bikainagorik nekez aurkitzen da.

Lan ederra bada ere, haurreri begira, dibuju on batzuekin ederragotua izango zan.

J. SAN MARTIN.



PEDRO BARRUTIA, SOR LUISA, XABIER MUNIBE. *Teatro zarra*. (*Gabonetako ikuskizuna, Gabon-sariak* eta *El borracho burlado*). Auspoa Liburutegia, 48. Tolosa, 1965.

Literatura barnean teatrua ezta nere espezialidadea, inoiz ikusi ta entzun eta maiz irakurtzen badituz ere. Euskeraz ezagutzen dituda-

nen artean ez dira txarrenak XVIII-garren mendekoak. Arritzekoa da noski hain hasiera ona izan zuen euskal teatruak ondore hobeagoa ez izatea. Hori gainera, aspaldi hontan euskal literaturan gairik landu bada teatrua izan dala landuenetako bat, ugaritasunez beintzat.

Jakingarria eta oso interesantea «Auspoa»-k eskeini diguna, liburu batean loturik hamazortzigarreneko hiru teatru. Pastoralak alde batera utzita, gure teatru zahar idatzia gorpuzten dute hoiak.

Arestiren hitzaurrea darama. Barrutiaz beste bietaz baino gehiago mintzaten dala. Dionez, mende horretan laugarren bat ere ba omen zen. Joakin Azpiazu josulagunaren *Euskera zarraren apurtxoak* izeneko hitzaldiak (ikus *Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak*, 132/134 or. Euskaltzaindia. 1923-an emandako hitzaldia eta 1926-an argitaratua) dakarrena iturritzat emanez, eta geroztik bere berririk ez dakiguna.

Lasai esan geneza liburu inportantea dala, oso inportantea, euskeltzaleok gure aldetik kasu gutxitxo egin badiogu ere. Literatura lan onak hain prestijio gutxi izate hau, badirudi euskeltzaleok, maiz, maizegi, euskeraren azaletikako prestijioari begira gaudelako dala. Eta zer da prestijio hori? Erderatikako hitzen antzik ez izatea. Bate-tik erderaz ere dakigulako eta bestetik hizkuntza guzieren prolema dela ez dakigulako. Baina esaera eta formen jatortasunari begiratuko bagenio, orduan beharrezkoak izango zaizkigu erderatikako hitz hoiak, gure artean ehundaka urteetan dabilatzelako azken urteetan ames-lari txar batzuek asmatu dituztenak baino gureagoak direlako. Hau, argi ta garbi ikusten da antxinako izkribuetan. Eta gure lanok behar haina ez baliatzea ekarri digu azaletikako itxurak gorde nahi horrek. Herrikoia eta gainera oso ona denari ere garrantzi gutxi ematea. Azalari asko begiratuaz eta gutxi mamiari. Eta, gainera, konturatzeke, munduko literatura guztiak goratzen dituztela beren klasikoak, eta gu bakarrik bertaz gutxi-etsirik. Ez dakit oraindik kontu hau negargarria ala parregarria dan.

Barrutia du Aresti bere bihotzeko teatrugilea eta ez du errazoiaren faltarik. Personajeak eta teatruari buruak inoiz nahastutzen eta gainera moldeetan ba omen du gaurko teatrugile famatuen aide bat. Neri ere Ghelderode eta Brecht datorzkit burura.

Tartean erderakadak baditu ere, euskera aberatsa eta indartsua du. Bada bere euskeran zer ikasi, hala bere teatruan ere. Ez dakit pastoralekin zer ikusirik izango duen, hauek ez ditut gehiegi eza-gutzen, baina fantasia amain emanik dioja zein batean ala bestean.

Sor Luisak, tarteka, poesia fiña du, oso fiña, eta idea oso aurre-ratuak ere bai: gerrarako armen burnia urtu eta lanerako tresnak egitea eskatzen duen haietan bezala, baina aparteko lan batean az-tertu nahi nuke gauza hau.

Unetan poesia eztsuaren jabe izate horrek adierazten digu bi bururen lana dabilela bertan, Sor Luisa eta berak hitzaurrean aipatzen duen Martin Beltz koblakariarena, noski. Baina ez dakigu nor zein den. Ez litzake arritzekoa, poema fin hoiek koblakariarenak izatea. Bada tartean beste zerbait ere: Batzuen iduriz, Peñafloidako konde berak zerbait ikutuak eta konponduak omen dira. Nere aldetik, egia esan, ez diot *El borracho burlado*-ren antz gehiegirik arkitzen. Eta Munibek konponketa egin bazion, hala behar zuen izan. Beste esku batetik pasea egote horrek nork daki zenbaterainoko aldakuntzak izango dituan. Gauza bat dago garbi: bi lanetan ematen diran zortziko-txikietan, *El borracho burlado*-koak ez dutela bertsolari eskola ondo betetzen eta bai oso ongi *Gabon-sariak*-koak. Baina hau da hirugarren pundua, Sor Luisa eta Peñafloidako kondearen bitarte dagoela Martin Beltz koblakaria eta honena ere norainokoa den ez dakigula.

Muniberen komediak ordea, *El borracho burlado*-k, bere egitura edo forman erdal kutsurik gehien du hiru teatru hauetan, eta bere sustraiak bilatzekotan Erdi Aroko frantsezen *farce* haietan izan behar luke. Moliere eta Racine ere, esaten dutenez, *farce* haietatik ondo hornitu omen ziren, eta, hala bada, gure Munibe ere ez ebilen gaizki.

Gure literaturaren aberastasun hurrian pitxi eder bat da liburu hau. Lastima guk orrelako lanak gehiago ez izatea.

J. SAN MARTIN.



FRANZ WEISER, S. I. *Mendiko argia*. Muxika'tar P., S. I.-k alemanetik euskeratua. MENSAJERO. Bilbao, 1968.

Lehen euskerazko mendi-liburua izanik, ni bezelako mendi-zale batek nola utzi irakurri gabe? Gero konturatu nintzan uste baino gutxiago zuela mendi-ibilierarik. Baina hala ere ez nuen utzi irakurtzeke. Aurrera ninjoala konturatu nintzen aspaldi batean erderaz irakurri nuen liburua zela. Oso aspaldi, beste prolematika batzuek arkuratzen ninduen denbora haietan. Hain zuzen, nere koinata dedan anaiaren emazteak ekarri zidan, ezkongai zeuden denboran, nun-

bait nere urrats okerrak zuzendu nahirikan edo. Beraz, ez da arritze-koa orduan interes gehiagorekin irakurtea. Hala ere, gustora irakurri dut oraingoan ere. Polita da, arin irakurtekoa. Baina nere bidetik beste bateruntza ez tiratzea, orain konturatzen naiz orduan baino obeto zergaitik zen: bertako prolematika zeharo bestelakoa delako, gure artean ezinezko hauziak diralako bertan presentatzen diran erlijioen arteko burrukak, zeren gure artean besterik autatzerik ez da ta. Baina hala ere gustora irakurri dudala esan dut, zeren bestelako sozio-prolema azaltze horrek bestelako munduak ezagutzera garamazki, bestelako pentsaerak, bestelako ekintzak... eta beti dira jakingarriak munduko edozein tokitako gauzak. Gainera, egilea, bere neurritik irten gabe ibili dala esango genuke.

Bertako giroa, gazte giroa, mendi giroa, atsegingarria da. Nik nahiago nuen Moll-en mendi gailurretarako igoerak adierazi balitu, baina nobelak etzuen horren beharrik. Hori gora-behera nobela polita da.

Euskera samurra du, hitzez aberatsa. Konturatu naizena da, mendi-zalea naizen aldetik, mendiko hitzak batzuetan ez dituala guk ezagutzen ditugun bezala erabiltzen, eta guk ezagutzen ditugunak ez dira besterik artzai ta baserritarrak erabiltzen dituztenak baizik, zeren berengandik ikasiak ditugu. Esate baterako, amiltegia eta arrua, liburu honetan leiza hitzarekin agertzen dira; eta leiza, ni ibili naizen Euskal Herri guztian, harpeetara jeitzen dan zuloa da; erderaz «sima» eta «abismo» nahastutzen dituzte, baina euskeraz leiza eta amiltegia egundo ere ez. Bi hitzok naiz Bizkaian edo naiz Zuberoan arkitzen dira. Amila ez beti, baina bai leiza, eta beti esan nahi berarekin. Hau da, inoiz amila izan daiteke leiza, baina leiza amila ez. Hitz gutxi dira holakoak, ohartuko diran euskeltzale mendi-zaleak ere gutxi diran bezala.

Honekin batean izan dugu Svensson-en *Noni eta Mani*-ren bigarren argitalpena. Lehenengoak 1952-an izan zuen, «Kuliska Sorta»-ren lehen numeroa.

Era honetako nobela errezak asko behar genituzke irakurleak gehitzeko. Noiz irakurriko ote dugu urrengoa? Ondo hartua izango da.

J. SAN MARTIN.



DANIEL LANDART. ...*Hogoi urte*. Goiztiri. Baiona, 1968.

Daniel Landart donostiriari gaztearen lehen liburua. P. Narbaitz jaun kalonjearen aintzin solasarekin.

Gutxi izan dira Euskal Herrian hain gazterik idazle bezala eza-gutu direnak. «Daniel Arberu» bere izenordea aspaldidanik ezaguna da euskal letretan. Eta, hamazortzi urte besterik ez zituan 1964-an «Eskualzaleen Biltzarrak» eratutako teatru saria jaso zuenean, *Herro eta nigar*-ekin. Honez gainera beste hiru teatruen egilea da, ta gainera Garcia Lorca-ren *Bodas de sangre* euskeratua du. Gero, batek bai al daki zenbat artikulu idatzi dituen euskal aldizkarietan, batez ere *Herria*-n.

Poesi eta gogoetadun liburua, orotariko gaiak biltzen dituelarik. Eskuratu orduko abiatu gera liburuaren orrien barna ezti xurkatzaille, eta arkitu ditugu bai ezti, bai gogoeta samin. Ezin zitekean bestera izan, gazte hain kezkatiazen pentsamenetik irtena. Maiz dakarzki gaurko prolematika gogoetak eta hoietan ezin aurkitu gauza eztsurik.

Bere poesia gintza oraindik beharduen goitasunera heltzeke dago. Poesi asko ditu makal xamarrak, baina bai bikain askoak ere. Esate baterako, hor ditu: «Gazteri berria», «Arratseko otoitza», «Eskualdunak portuges...», «Bihar» eta abar, tarteka oso goi-maila agertzen duelarik.

Gogoetak ere oso barnetiarrak azaltzen zaizkigu, hala dira «Langile gazte baten gogoetak», «Eguberri gaua» eta beste zenbait.

Gazte bat guri mintzo, eta «Pindar horiek, agian piztuko daukute anhitzen bihotzetan aspaldian Eskual-Herriak galdegiten zuen sua!», dio Narbaitz-ek bere aintzin solasean. Hala bedi. Eta gut oraindik gehiago espero dugu gazte gihartsu bezin burutsu den honen emaitza onurakorretatik.

Baita ere, oso pozik ikusiko genituzke bere teatruok argitaratuak.

J. SAN MARTIN.



JOSE ESTORNES LASA. «*Erronkari'ko uskara*». Edición subvencionada por la Institución Príncipe de Viana de la Excm. Diputación Foral de Navarra. Editorial Auñamendi. Donostia, 1968.

Erronkariko «uskara»-ren gramatika didaktiko bat, apain eta txukun egina, lumaz egindako dibuju politak tartean dituala. Lehen mailako gramatika gaiak, ariketak, elkarrizketarik beharrezkoenak, kanta, doinu, hiztegi, errefrau eta abarrek hornitzen dute liburu bakan hau. Haurrendako egina.

J. M. Satrustegi adiskideak igazko maietzaren 24-ko «Diario de Navarra»-n liburu honi buruz zionez: «Il ezkil guzien ondotik Erronkari'ko eskuara ez da erabat ila. Eskualdun bat bizi den artean bizi da gure erria; eta gizon orren barneko mudua gure eskutan da. Aintzinekoen lokarriak ez dira autsiak. Nortasuneren gure eskutan hauts azpian bada ere, antxe dago bizirik. Zertako ez aizatu eta Pazko eguneko su berria sortu?»

Nahiago nuke hala balitz, baina nik Erronkariko «uskara»rekin ez dut esperantza gehiegirik. Gaisoa, aspaldi etsipena emana da eta ez diot ikusten salbaberik. Bere agoni luzea heriotzaren mugan da eta hizkuntza hila nekez piztutzen da.

Dena dela, txalogarria iduritzen zaigu Pepe Estornes-ek egin diguna. Nahiago nuke neu oker banengo eta hil zorian dagoena lozorroan balego eta bere lozorrotik bat-batean iratzartu. Eta iratzartuko bada, lehen lehenik honelako lana beharko du bere aintzinatiko bidea hartzeko. Hortarako eskoletan sarrera ofizialkia beharko du, eta noiz bait hau ere ez da izango ezina. Egun horretan izango litzake euskeraren salbazioia, zeren, bestela, ongi daki luzarora Erronkariko bertaria bera datorrela gainerako Euskal Herrian ere. Baina gainera abea eroriko ez bada horrelako eusgarriak behar ditugu.


Baina neronek Erronkariko «uskara» bihotzez maitatzen dedanarren, honen salbaziorako, iduritzen zait, hobeagoa zela bertako hiztegiarekin eta morfologiako beste zenbait gauzarekin baliatuaz, Aezkoako gramatiko oinharri hartu eta era hortara aezkoarra, saraitzuarra eta erronkariarra denak batean sartu. Zeren Erronkarin berriz hastea denez, eta Saraitzun bertan ere hain eroria danez, Aezkoakoekin indartsuago geldituko zen, hemen oraindik biziago dagoalako honen indarrez baliaturik eta hiru ibarren ahalmena zabalago litzaketa, Erronkarikoarekin, aberastuko litzake, ta bestalde euskera batu batengana urbildu. Erronkarin zaharren artean oraindik indartsu izan balitz beste gauza bat zan, gazteeri irakaskintzatik eta zaharren laguntzarekin sartzea. Jakina, hemen nere asmuekin ari naiz eta ez liburuaren egilearenakin.


Liburuaren egileak lan ederra egin duela, ez dago dudarik. Euskal Herriko toki guztietan holako lana bagendu beste bizkortasun bat izango zuten gure gauzak.



Lanak, gainerontzean, ez du ezertariko tatxarik. Erronkariko «uskara»-ren zerbait jakin gura duenak bertara jo beharko du. Era praktikuan dago. Askori etorriko zaie burura Azkue-ren *Particularidades del dialecto roncalés* izeneko estudioa («Euskera», tomo XII-II-III-IV zenbakia, 207/407 or. 1931), baina huntaz zerbait baliatu baldin bada ere, eztu zer ikusirik berakin, zeharo bestelakoa da, eta, horri esker, erronkarieraren estudioetarako material gehiago eskeintzen digu orain arte genuena baino. Hitzen azentua zaintzea ere oso ongi iduritu zaigu. Eta horrelako lan bat egiteko nor obeto bertako seme eta maiz bertan bizitzen dan bat baino? Gainera euskera aski ongi ikasi duena, gipuzkera eta erronkaria bereziki. Asmuok aurretat ikusteaz poztuko ginake.

J. SAN MARTIN.





PUBLICACIONES  
DE LA  
REAL SOCIEDAD VASCONGADA  
DE AMIGOS DEL PAIS  
(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLOIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR. por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churrua.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XVIII, por Manuel Laborde.

### REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 50 Ptas.

Suscripción anual (España) 200 »

» » (Extranjero) 250 »

EGAN: Ejemplar suelto: 50 Ptas.

Suscripción anual: 90 »

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales  
Número suelto: 30 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN

